

HUTSIK UTZIKO DUTE?

Edesa Industrialek berretsi egin du Garagartzako (Arrasate) planta ixteko asmoa; eta asko jota 160 lanpostu eskaini ditu. Langileek gaur jakinaraziko diote ez dutela proposamena onartuko / 3



IMANOL SORIANO / GMA

Antzuolako Zorroztarrietan industrialdea egiteko aukera atzera bota du Ingurumen Sailak / 28

Merkealdiak aukeran: Merkemerkaue Arrasaten eta Ixadebalde Aretxabaletan / 'Herriak' saila

Erdi Aroko azoka bueltan da eta bihar zabalduko ditu ateak Arrasaten, domekara arte / 11

Irailaren 24ko Kilometroak jaira Elorregitik bakarrik iritsi ahalko da Oñatira / 7

Gaur hasi eta datorren irailaren 17ra arte ospatuko dituzte San Martin jaiak Bergaran / 24

SINADURAK



gama altuko
2 mō betaurreko
progresibo
197€

www.multiópticasgipuzkoa.com

BEASAIN • EIBAR • DONOSTIA • ERRENERIA
IRUN • LASARTE • TOLOSA • ORDIZIA

Eskaerza ballagarria 2017/12/31 arte. Kontuak itzazu zure optikan kanpainaren esugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.



Gure betaurreko guztiak bilduma berrietakoak dira

Otalora Lizenziaduna, 18 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
lehen a zerbitzu optikoetan



Ibon Leunda eta Aitziber Jauregi, 1990 Gastrotekaren arduradunak. IKOM

"Tradizioa berrituz sortu dugu gastroteka hau"

AITZIBER JAUREGI ETA IBON LEUNDA 1990 GASTROTEKAREN ARDURADUNAK

'Gastroteka' hitza ez dago hiztegian, baina zentzumenak pizten dituen boutiquea definitzeko balio du, eta, hain zuzen, hori da 1990 Gastrotekako atea zeharkatuz gero gertatuko zaizuna

Gainezka egiten duten espazio komertzial handi bezain inpersonalen aurrean, plazer hutsa da herrira haize freskoa ekarriko duen komertzioetan fedea dutenekin topo egitea. Aitziber Jauregi eta Ibon Leunda sinetsita daude ez dela existitzen modernitatezko tradizioz gabe. Eta, horregatik, gure-gurea denari berrikuntza eta berezita-

sunak gehitu diote, bestelako kontzeptua duen 1990 Gastroteka zabaldua. Orain arte, Tolosan eta Ordizian zituzten habiak, eta irailaren 7tik aurrera Arrasaten izango dute hirugarrena.

Taberna bat baino zerbait gehiago da 1990 Gastroteka.

Gastronomiaz -zentzu zabalean- gozatzeko espazioa da.

Gosaritik hasi eta afalordura arte otorduak egiteko aukera egongo da, aperitibo hartzeko edota eztarria bustitzeko. Edozein arrasatearren eta debagoiendarren nahiak eta beharrak asetzeko espazio bat sortu dugula esango nuke.

Horretarako, lokala bi zatitan banatu duzue. Zer topatuko du bezeroak zati bakoitzean?

Batetik, taberna dago; eta, bestetik, jatetxea. Tabernan pin-txoak, pikatzeko errazioak, entsaladak, arrautza hautsiak, pottokoak, sandwichak eta hamburgeresak egongo dira. Jatetxean, astero aldatuko dugun eguneko menua eta karta izango ditugu, bereziagoak. Espazio bakoitzak bere izatea du, taberna informala goa da eta jatetxea jantziagoa, baina biak oso ondo ezkon-tzen dira.

Tolosan eta Ordizian ez bezala, Arrasaten jatetxea ere izango duzue, beraz.

Egiari zor, lokala handia da oso, eta, aukera hori ematen zigunez, zukua atera nahi izan diogu. Indar eta ilusio handia jarri dugu horretan.

Lokalaren dekorazioa ere berritzailea da.

Garrantzitsua da guztiak harmonia izatea. Espazioak gure filosofia islatzen du: formalak gara, baina ez serioak, eta detaile txikiak ere zaintzea gustatzen zaigu. Bezeroa eroso sentituko den toki bat sortu nahi izan dugu lokal berri honetan. **Lokala zaintzeaz gain, produktuak ere ongi aukeratuak izango dira.**

1990 Gastrotekan garrantzi handia ematen diogu tokikotasunari. Bertakoak diren produktuak erabiltzen ditugu. Mimo handiz kozinatzen eta zerbitzatzen dugu, baina arreta handia jartzen dugu lehengaietan. Eskaintzen duguna kalitatezkoa izatea bermatzen dugu.

Garagardoa ere berezia izango da.

Beer drive sistema berritzailea daukagu. Fabrikatik hotz-katea hausten ez duen kamioian garraiartzen da zerbeza, eta handik betetzen dira gastrotekan dauden hiru deposituak. Bakoitza mila litrokoa da; beraz, guztira, hiru mila litro daude. Garagardoa ez

da ohiko barriletatik zerbitzatzen, baizik eta deposituetatik. Hori dela eta, ez duenez H2O hodirik behar bultzatzeko, zerbezak ia ez dauka karbonikorik. Freskoagoa eta zaporetsuagoa da, eta ez da horren betegarria. Gainera, Gipuzkoan, garagardoa sistema berritzaile honen bidez zerbitzatuko duen lehen taberna izango gara.

Egun, gina modan dagoen edaria da, baina zuek pauso bat harago joan nahi izan duzue, koktel ugari eskainita.

Gure bereizgarrietako bat gin-tonicak dira; 50 gin desberdinez atondu ditugu gure apalategiak. Bermut prestatuak eta mojitoak ere badauzkagu. Egiten dugun koktela eginda, sortze-prozesuan eman beharreko pauso guztietan arreta handia jartzen dugu.

Ardoetan ere eskaintza zabala daukazue.

Denetarik daukagu, bai. Berdejoak, chardonnayak, albariñoak, tempranilloak, erreserbakoak... zapore eta gustu guztietakoak! Kalitatea bermatuz, aukera zabala eskainiko dugu.

Zer eman diezaiokete 1990 Gastrotekaren Arrasate bezalako herri bati?

Haize freskoa. Kontzeptu berritzailea da gurea; beraz, berrikuntza. Kalitatezko lehengaiak eta produktuak erabiliko ditugu eta zerbitzua ere kalitatezkoa izango da, gertukoa. Ilusioz gainezka gaude erronka berri honen eta arrasatearrei ilusioa egitea gustatuko litzaiguke!

"JATETXEAN, ASTERO ALDATUKO DUGUN EGUNEKO MENUA ETA KARTA IZANGO DITUGU"

Euskal Herria plaza 9
20500 Arrasate
943 82 90 23
www.1990gastroteka.eus

GASTROTEKA

Beer drive zerbeza sistema berritzailearekin

Eguneko menua Karta

JAN GE LA

Ubane Madera DEBAGOIENA

Gaur, egubakoitza, 09:30ean dute Fagor CNAREN gatazkan inplikaturako alde biek oraingo aste-ko bigarren hitzordua.

Edesa Industrial eta Geysler-Gastech enpresetako langileen ordezkariak orduantxe jakinarazi-ko diote zuzendaritzari eguazte-neran erabakitakoa: ez dute onar- tuko Garagartzako plantaren itxiera eta 167 langileen kale- ratzea proposatzen duen bidera- garritasun planik. Alegia, enpre- sak aurkeztutako azken propo- samenari ezezkoa emango diote.

09:15erako bigarren hitzordu bat ere bada gaur: langileek el- karretaratzea egingo dute Gara- gartzan, presio modura.

Eta hirugarren hitzordu bat ere badago iragarrita. Kasu ho- rretan, CNA Taldeko zuzenda- ritzaren eskutik etorri dena: lantalde osoari eragingo dion enplegua suntsitzeko espedien- tea abiaraziko du, "altxorregia- ren gaur egungo egoera" argu- diatuta. Bestela esanda, enpresak iragarri du Fagor CNAko 327 langileen kontratuak eteteko prozedura abiaraziko duela, bai edo bai.

Data zehatzik ez

Azken horri dagokionez, baina, oraingo asteko martitzenean iragarri zuten gaur, egubakoitza, aurkeztu behar zutela. Baina, Goienak kontsultatutako Ede- sako iturrien arabera: "Ez da- kigu zein izango den enplegua suntsitzeko espedientea aurke- zteko egun zehatza, baina aurrei- kuspina da datorren astean izango dela".

Egunen dantza alde batera utzi- ta, baina, ezusteko handia litzate- ke enpresak atzera egitea iraga- rritako asmo horrekin. Izan ere, dagoeneko Lan Ikuskaritzan aurkeztu dute Edesa Industria- leko bulegoetako langileei era- giten dien enplegua suntsitzeko espedientea. Bestela esanda, da- goeneko abiarazi du 91 langileen kontratuak eteteko prozedura.

Lanpostuak eta Garagartzako

Gauzak horrela, eta orain arteko informazioa mahai gainean, pa- noramarik ilunenaren aurrean daude Edesa Industrialeko eta Geysler-Gastecheko langileak: langile guztiendako enplegua suntsitzeko espedientea aurke- ztu eta gero, 30 egun naturaleko epea dute egoerari buelta ema- ten ahalegintzeko.

"Xantaia erraldoia" salatu dute langileek

Edesa Industrialeko eta Geysler-Gastecheko langileen ordezkariak gaur, egubakoitza, jakinarazi-ko diote zuzendaritzari ez dutela onartzen azken proposamena; enpresak enplegua suntsitzeko espedientea abiaraziko duela iragarri du, lantalde osoarendako



Edesa eta Geyslerreko langileak Garagartzako plantaren kanpoko aldean elkarretaratzea egiten, martitzenean. UBANE MADERA

Eta horretan jarriko dituzte indarrak. Iragarri dutenez, epe horixe baliatu gura dute "enpleguaren alde negoziatzen jarraitzeko".

Ildo beretik, Garagartzako planta zabalik mantentzearen alde borrokan segitzeko asmoa dutela jakinarazi dute.

Jaurlaritzarekin, astelehenean

Hori bai, bide horretan lagun- tzeko, beste hiru eragileren inplikazioa aldarrikatu dute: Fagor S. Kooperatibarena -Fagor markaren jabea dena-, Ekimen Berrirena -Garagar- tzako pabiloien jabe den el-

karteak- eta Eusko Jaurlaritzar- ena.

Dagoeneko azken horrekin lortu dute hitzordua: astelehen arratsaldean Eusko Jaurlaritzako Industria zuzendari Alejandro Lopez Carcamorekin batzartuko dira. "Guk Tapia sailburua ego- tea ere eskatu dugu", zehaztu du Rikardo Perezek, langileen ordezkariak.

Fagorren, eskaerarik ez

Bigarren eragileari dagokionez, berriz, Fagor Kooperatibako iturriek Goienari esandakoaren arabera, Edesa Industrial SL enpresak eurekin duen kontra-

tua, markaren erabilerari dago- kiona, "indarrean dago eta inork ez du aldatzeko eskaerarik aur- keztu, nahiz eta kontratu horre- tan zehaztu lanean egon beha- rreko gutxieneko langile kopu- rua 350 lagunekoa dela. Baina inork ez du aldaketarik eskatu, dokumentaziorik ere ez dute batere aurkeztu, oraingo, eta inork ez du esan ofizialki, ezta ere, Garagartzako planta itxi egingo denik. Beraz, enpresak egin gura duenaren gainean ezer ofizialik aurkezten ez duten bi- tartean, Fagorren ezin da ezer erabaki. Zerbait eskatzen dute- nean aztertu egin beharko da

EDESA INDUSTRIALEK ABIARAZITA DU BULEGOKO LANGILEEN KONTRATUAK ETETEKO PROZEDURA

LANPOSTUEN ETA GARAGARTZAKO PLANTAREN ALDE BORROKAN SEGITUKO DUTE LANGILEEK

LANGILEEN USTEZ, 'PELOTAZOA' EMAN GURA DU ENPRESAK, FAGOR MARKA ERABILTZEN SEGITZEKO

eta zer egin ikusi, baina, orain- goz, ofizialki ez dute ezer esan", jakinarazi dute.

Garagartzaren zati bat

Eta hirugarren eragileari dago- kionez, berriz, Ekimen Berri Kudeaketa SL elkartearen gaiari buruz galdetuta, adierazpenik ez egitea erabaki dute. Mondra- gon Korporazioaren baitan da- goen elkartea da, zehazki, Ekimen Berri.

Kontua da kasu horretan Ga- ragartzako plantaren jabe den elkarteari gaur egun azpiegitura horren alokairuari dagozkion ezaugarriak aldatzeko eskaera egin diotela Edesa Industrialeko ordezkariak. "Planteatu diote ea Garagartzako planta zatitu eta industrialde moduan erabil dai- tekeen. Hau da, gaur egun Ede- sak erabiltzen du plantaren %35, gutxi gorabehera, baina %20an ere kabituko ginatete bertako langileok. Hori horrela, enpresa ibili da galdetzen ea zatitu dai- tekeen, eta guk bakarrik %20 erabili. Jakina, ordainduko litzatekeen alokairua %20 horren arabera litzateke eta ez orain bezala, planta guztiarengatik ordaintzen dute eta. Hori onar- tuz gero, planteamendua da Eki- men Berririk plantaren gainon- tzeko espaziora bestelako enpre- sa batzuk erakartzea", esplikatu du Rikardo Perezek, Edesa In- dustrialeko langileen ordezkariak.

Hala ere, langileen ordezkariak eurek oraingo astean esan dute Taldeak berak (CNAk) Garagar- tzatik irtetea erabakita duela, "bestela multinazionala ez dela- ko sartuko" negozioan inberti- tzaile modura.

Balizko multinazionala

Izan ere, Edesa Industrialek esan- da dauka baduela multinazional bat negozioan sartu eta inberti- tzeko gertu dagoena. Baina ba- lizko multinazional horren gai- nean ezer gutxi esan da.

Langileek, adibidez, salatzen dute eurekin ez dutela informa- ziorik partekatu: "Ez dakigu zein den multinazionala, ezta ere zen- batekoa izango den salmenta bolumena eta ezta ere emango diguten produktuen gama zein izango den. Nahita ezkatzen digute hori, jakinda itxierarekin eta kaleratzeekin mehatxatzeko garaia dela".

Jakinekua den bakarra da esan- dakoa: multinazional horrek baldintza moduan jarri duela

Garagartzako plantan ez duela jarraitu nahi.

Are gehiago, zenbait iturriren arabera, multinazional bera gertu legoke Arrasate inguruan bestelako pabiloiren bat alokatzeko eta bertan segitzeko, baina ez Garagartzan.

"Xantaia erraldoia"

Bien bitartean, langileak geroago eta ozenago dabilta euren ezinegona eta haserrea adierazten. Gauzak argitu "eta publiko egiteko" ordua badela esanda,

jasaten ari diren "xantaia erraldoia" salatu dute asteon.

"Pelotazoa"

Halaber, orain arte kaleratu ez duten informazioa, "enpresaren benetako asmoei" dagokiena, plazaratu dute. Euren ikuspuntutik, enpresak *pelotazoa* eman gura duela diote, Fagor marka erabili ahal izateko. "Fagor markarekin komertzializatzen utziko dien *pelotazoa* da, apurka-apurka fabrikazioa desagerraraziz. Zuzendaritzaren benetako

asmoekiko zalantzarik baleude, gazteen alde egiten duten apustua ikustea besterik ez dago: planteatzen dutena da 50 urtetik gorako langile guztiak lanean geratzea".(...) "CNAko zuzenda-

"HELBURU ESTRATEGIKOA DA HEMEN KOMERTZIALIZATZEA KANPOAN EKOIZTUTA"

ritzak aurkeztu digun proiektuaren helburu estrategikoa da hemen komertzializatzea kanpoan ekoiztutako produktuekin. Arazoa da Fagor marka erabili gura dutela, eta horretarako behar dutena da markaren jabe den Fagor S. Kooperatibak berriro ere negoziatzea duten hitzarmena, pertsona gutxiagori lanpostuak ematea onartuz. Eta hori eurek bakarrik lortu ez dutenez, gu tartean sartu nahi gaituzte". Jakinarazi dute, baita

ere, oraindik ez dutela abuztuko nominarik kobratu.

Bukatzeko, besteak beste, adierazi dute zuzendaritzak "bake soziala" gura duen moduan, euren ere hori berori gura dutela, "baina horretarako gardentasuna, informazioa eta komertzializazioaz gainera, industriarengatik apustua egiten duen" etorkizuna beharrezko direla. "Horrela izan dadin borrokatzen segituko dugu! Fagor-CNA ez itxi!", aldarrikatu dute.

UDAL EUSKALTEGIAK
euskarako klaseak

17/18
IKASTURTEA
Matrikula epea ZABALIK

ONGI ETORRI
euskarara

BEDITA LARRAKOETXEA
UDAL EUSKALTEGIA
Bidebarrieta,
18-behea Oñati.
Tel.: 943 78 24 96
euskaltegia@onati.eus

ARRASATEKO
UDAL EUSKALTEGIA
Arimazubi plaza, 2.
Tel.: 943 79 70 77
euskaltegia@arrasate.eus

BERGARAKO
UDAL EUSKALTEGIA
Barrenkalea, 33
(Irizar jauregia).
Tel.: 943 76 44 53
euskaltegia@bergara.eus

LEINTZ
UDAL EUSKALTEGIA
Nafarroa 2 - Aretxabaleta
Intxaurtxueta 9 - Eskoriatza
943 79 21 68
idazkaritza@udaleuskaltegia.eus

"Auzitegietan errekurritzeko aukera txikia dute langileek"

ADRIAN ZELAIA EKONOMIALARIA, EKAI CENTER

Enpresako zuzendaritzako ordezkariak jakinarazi du "oraingo altxortegiaren egoera dela-eta" enpresak "aurreikusita" duela enplegua suntsitzeko espedienteak aurkeztea. Espediente honen prozedurari eta ondorioei buruz galdetuta, azalpenak helarazi ditu ekonomian aditua den Adrian Zelaia, Ekai Center aholkularitzako presidenteak.

Zer esan gura du enpresako zuzendaritzak iragarri duen horrek?

Esaten ari dira ez dutela dirurik nominak ordaintzeko.

Eta espedienteak aurkezten duten momentuan bertan kalean daude langileak?

Ez. Nahiz eta suntsitze EREa sartu, langileak ez dira berehala kalean geratzen, baizik eta zabaltzen da langileen kontratuak eteteko prozedura.

Zein da prozedura, hortaz?

Hasiera batean, neurri informatiboa da. Erreforma laboralaren ostean, erabakia enpresaren eskuetan dago.



GOIENA

Hori bai, informatu egin behar dute, komunikatu. Langileek badute, teoriarik, enpresak argudiatutako baldintzak ez badira betetzen, hori auzitegietan errekurritzeko aukera; baina, printzipioz, baldintza objektiboak ez betetzea nahiko zaila da, ze galerak egon badaude; beraz, baldintza objektiboak ez direla bete esateko arrazoiak aurkitzea oso zaila da. Langileek ezetz esan dutenean, baina, sumatzen dut gertu daudela beste mota bateko ekimenak martxan jartzeko: mediatikoak, sozialak edo greba orokorra, pentsatzen badute horrekin presioa egiteko aukera dutela. Hala ere, kanpotik aztertuta, ez da oso garbi ikusten Cataren aldetik benetan interesa badutela lan hori mantentzeko; ze horren arabera langileek izango dute aukera mina/presioa egiteko, edo ez.

Eta ze epe-muga zabaltzen da espediente berri horrekin?

EREa aurkeztu ondoren, gutxienez, hiru eguneko epea eman behar diete langileei, eurekin lehen batzarra egin baino lehen. EREaren prozedurak, berriz, 30 egun naturaleko epea ematen du negoziatorako. Eta epe horretan, gutxienez, hiru batzar egin beharko dituzte bi aldeek. Azken bileraren ondoren, berriz, Lan Ikuskaritzak txostena aurkeztu beharko du, asko jota, 15 egunen buruan. Hori Gizarte Segurantzara bidaliko du, langabezia prestazioak tramitatzen has daitezten. Eta behin hori guztia egin ondoren has daiteke enpresaria dagozkien langileei banan-banan kaleratzearen berri ematen.



MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK

IKASKETAK ETA LANA BATERAGARRI EGITEN

Mondragon Goi Eskola Politeknikoan eginez ikasi

Goi Mailako Heziketa Zikloek lan mundurako egokitutako profesional trebatuak hezten dituzte.

Mondragon Goi Eskola Politeknikoaren helburuetako bat enpresak teknikari kualifikatuz hornitzea da, bai konpetentzia teknikoei dagokienez, baita zeharkakoei dagokienez ere –talde lana, komunikazioa, arazoaren ebazpena, eta abar–.

Hori dela eta, **goi mailako ikasketak** egiteko ibilbide interesgarria dira Heziketa Zikloak. **ETHAZI metodologia aktiboan oinarritutako ikasketa praktikoak** egiteaz gain, non erronken bitartez funtzio profesionalak simulatzen diren, lantokian egiten diren **PRAKTIKEK** ere garrantzi handia dute curriculumean. Guztira, 360 ordurainokoak dira ikasleek lantegian egiten dituzten praktika horiek.

MONDRAGON korporazioarekin dugun harreman estuagatik eta beste hainbat enpresarekin ditugun hitzarmenengatik, 2016-2017 kurtsoan Mondragon Goi Eskola Politeknikoako **35 ikasle** izan dira **DUAL sisteman** parte hartu dutenak eta Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiko **22 enpresatan** lan munduaren errealitatearekin lehengo kontaktua izateko aukera izan dutenak. 2017-2018 kurtsoan beste 37 ikasle izango dira lan-ikaste partekatze programa honetara gehituko direnak.



Aitziber Vesga
MGEPko ikaslea
ASIR Modulua
LACOR-en DUAL-ean



Endika Marqués
MGEPko ikaslea
Robotika Modulua
POLMETASA-n DUAL-ean

Sareko Informatika Sistemen Administrazioa zikloa ikasten ari da Vesga, eta Bergarako Lacor enpresan egin ditu lan praktikak, DUAL ereduaren.

“ETHAZI metodologia jarraituz, hiru erronkari aurre egin behar izan diegu kurtsoan zehar. Adibidez, kokagune geografiko desberdinak dituen enpresa batentzako WAN sare baten instalazioa, konfigurazioa eta kudeaketa egin behar izan dugu, proiektuaren fase ezberdinen kudeaketaren erantzukizuna gure gain hartuz: planifikazioa, lan-zamen kudeaketa, eta abar. DUALak, ordea, harago joateko aukera eman dit. Benetako enpresa baten, benetako lan eremu baten txertatu eta lan eginkizun guztiz errealak burutzeko aukera eman didalako. Honek, gauza gehiago ikasteko aukeraz gain, enpresa munduaren ezagutza eta lan esperientzia eman dit. Baita nire gaitasunen inguruan konfiantza irabazten lagundu ere”.

Endikak Automatizazio eta Robotika Industrialeko zikloa ikasten dihardu eta lan praktikak PMG-Polmetasa enpresan egingo ditu. Izan ere, Polmetasaren eskutik automatizazio espezializazio programarako beka lortu du. Programa hau Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak bultzatzen du, enpresen beharrei hobeto egokitutako profilak garatzeko. Programa honen lehen edizioan, 11 enpresak eta HETEL elkarteko zortzi ikastetxetako hamahiru ikaslek hartuko dute parte.

“Especializazio programa hau berria da eta hirugarren urte bat gehitzen die Lanbide Heziketako ikasketei. Nire kasuan, datorren kurtsoan bigarren maila egingo dut MGEPn eta 2018ko martxoan ekingo diot Automatizazioko espezializazio programari, 2019ko ekaina arte. Especializazio ikasketak AICK Boroan daukan zentroan egingo ditut eta DUAL programa barruan praktikak egiten Polmetasan jarraituko dut”.

Matrikula zabalik

www.mondragon.edu/gmhz

gmhz.mgep@mondragon.edu

943 71 21 91 • 664 277 592



KILOMETROAK 2017 OÑATI



LEKAIXOKA!
KILOMETROAK 2017 OÑATI

ALKOHOLAREN eta DROGEN KONTSUMO ARDURATSUARI BURUZKO SOLASALDIA

Irailaren 13an, 17:30ean, Euskaldun Berri aretoan.

Guraso eta herritar guztientzat zabalik dagoen hitzaldia AGIPAD elkartearen eskutik.

REALA vs OSASUNA

emakumezkoen futbol partidua

Irailaren 15ean, 18:30ean, Azkoagain futbol zelaietan.

III. MENDI MARTXA

Irailaren 16an, 07:30ean, Oñatiko plazan.

Oñatiko mendizale elkarteak antolatuta



Ibibide Luzea (32 km):

Plaza - Garagartza - Lamiategi - Olate - Jaturabe - Arrikruz - Kortakoagain - Arendui - Bellotza
Iturrigorri - Urbia bideko iturria - Malla - Biozkorna - San Jurgi - Asentzio - San Martin - Plaza

Ibilbide motza (23 km):

Plaza - Garagartza - Lamiategi - Olate - Jaturabe - Arrikruz - Kortakoagain - Gesaltza - Arantzazuko
Errota - Zapiarbe - Arantzazu - Duru - Malla - Biozkorna - San Jurgi - Asentzio - San Martin - Plaza

IRAILAREN 24AN GUZTIOK LEKAIXOKA OÑATIRA!



goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LEKAIXOKA!
KILOMETROAK 2017 OÑATI

OÑATI
dabilen herria

50 Txantxiku
Ikastola

ikastolenelkartea

Kilometroak jaira, hobe bidegorriz joatea

Oñatira joateko sarrera bakarria egongo da irailaren 24an: Elorregitik. Herri barrura autobusak bakarrik sartuko dira. Zubillagatik herri sarreraraino 4.600 auto sartzen diren zortzi aparkaleku egongo dira. Udana mendatea itxita egongo da egun horretan

Oihana Elortza OÑATI

Elorregitik baino ezingo da joan Oñatira Kilometroak egunean, irailaren 24an. Udanako mendatea itxita egongo da ibilgailu partikularrendako. Autobusak bakarrik pasa ahal izango dira. "Gune horretan ez dago toki aproposik aparkalekuak antolatzeke eta Zubillaga aldera egongo dira guztiak. Bestetik, Udanatik etorri gero, ibilbidearen zati bat zeharkatuko lukete autoek, eta hori ezin da", dio zirkulazioaren ardura duen Ikastolen Federazioko teknikari Hilario Seinek.

Guztira zortzi aparkaleku handi egongo dira egun horretarako prestatuta. Hilariaren inguruan 350 autobusendako tokia egongo da; antolatutakoak izango dira eta saihebidetik joango dira zuzenean. Autoendako egokitutakoen artean, herrikerik gertuen dagoen aparkalekua Otadui zuhaitzikoa izango da; 400 bat autorentako tokia egongo da. Bi gune horietatik zuzenean sartuko dira herritarak zirkuitura. Beste aparkalekuak izango dira: Torreazon (480 toki), Ulma Eraikuntzak enpresan (1.700), Fagor Showroom gunean (200), Lana eta Stadler inguruan (580), Ulma Piping eta Mekalki aurrean (250)



Bizikletak aparkatzeko egokituko duten tokia zainduta egongo da 20:00ak arte. O.E.

ARRASATEN ETA BERGARAN 10:00ETAN ELKARTUKO DIRA BIZIKLETAN JOATEKO

eta suhiltzaileen ondoan (600). Azken sei gune horietatik lotura-autobusak egongo dira herrigunera joateko; MÜren fakultate parean geldituko dira. 150 lagun arduratuko dira zirkulazioaz egun horretan.

Bizikletan

Kilometroak 2017 jaia antolatzeke hamasei batzorde egin dituzte eta jasangarritasunekoak bidegorria erabiltzeko dei egin du. Bidegorritik bizikletan joateko bi topagune antolatu dituzte: Arrasateko Eroskin eta Labegarietan, 10:00etan. Elorregin elkartuko dira 10:30ean, denak batera Oñatira joateko. "Instituto aurrean egokituko dute bizikletendako aparkaleku erraldoi bat eta goizetik iluntzera arte zainduta egongo da", dio batzordeko Ainhoa Egurennek.

Artzain Txakur Txapelketa Kilometroak egunean egingo da

Bigarren gunea izango da Santa Lutzia zelaia; goizean txapelketa eta arratsaldean Erronka egingo dira

O.E. OÑATI

Oñatiko Nazioarteko Artzain Txakur Txapelketak eta Kilometroak 2017 jaiak bat egin dute eta biak izango dira egun berean, irailaren 24an.

Ibilbideko bigarren gunea da Santa Lutzia zelaia, gazte-txoendako gunea izango da, eta antolatzaileek uste dute erakusleho aproposa izan daitekeela. "Inoiz txapelketa ikusi ez dutenek edo txapelketa ezagutzen ez dutenek artzainen lana ezagutzeko aukera izango dute. Berezi, gazteengana heldu gura genuke", esan zuten atzo, eguea, egindako prentsa agerraldian.

Guztira hamabost txakur arituko dira lehian; tartean, Jose Mari Bengoa *Urzabal* oñatiarraren *Eder*. Arrazari dagokionez,

barietate desberdinetakoek hartuko dute parte. "Betiere, txakurrik onenen presentzia izango da", antolatzaileen esanetan. 10:30ean hasiko da txapelketa, eta, gaztetxoaren gunean izanda, Erronkako finala ere hantxe egingo dute gazteek. Artzain Txakur Txapelketari egingo zaio keinu finalean eta, hain zuzen, horri lotutako probak gainditu beharko dituzte.

Goiz

Txapelketa ikusi gura dutenei goiz joateko gomendioa egin diete antolatzaileek: "Aparkalekuak Zubillagatik Oñatira artean egongo dira. Handik autobusak jarriko dituzte erdigunera, baina gero, oinez iritsi beharko dute Santa Lutzia gunera".



Egibar, Ugarte, Agirre, Bengoa, Carrasco eta Ugarte, Santa Lutzian atzo. M.A.

Txantxiku ikastolako ordezkariak hartu ditu Olanok

Lekaixoka lelopean, irailaren 24an Oñatik hartuko duen ikastolen festaren antolatzaileei harrera egin die Markel Olano diputatu nagusiak, eta festa horretan parte hartzeko dei egin die gipuzkoar guztiei. Auzolanari ekitea "hil edo bizikoa" dela adierazi du Markel Olanok eta "euskararen eta aniztasunaren alde" dihardutenen lana goraiatu du.



Ibartzabal, Artola, Guridi, Olano, Elortza eta Irizar, Donostian. GIPUZKOA.EUS

Autobus zerbitzua indartuko dute bihar Arantzazura joateko

Arantzazuko Amaren, Gipuzkoako zaindariaren, eguna ospatuko da bihar, zapatua. Aurreko urteetan moduan, Gipuzkoako gozainak, Jose Ignacio Munillak, emango du meza nagusia, 12:00etan. Inigo Urkullu lehendakaria ez da etorriko aurten, baina bai Bakartxo Tejeria, Legebiltzarreko presidentea. Gipuzkoako Aldundiko eta Oñatiko

Udaleko ordezkariak ere joango dira bihar Arantzazura. Baita euskal presoen senideak ere, Etxerategi deituta, presoen etxeratzea aldarrikatzeko. Erromesaldia 07:00etan abiatuko da Oñatitik.

Bestalde, bihar Oñatitik Arantzazura joateko autobus zerbitzua indartu egingo dute. Egun osoan 35 plazako bi autobus ibiliko dira gora eta behera eta 09:00etatik 15:00ak arte 55 plazako beste bat ere bai. Txartelaren prezioa betikoa izango da: 70 zentimo bidaiako.



ZABALIK

IRAITZ AGIRRE ARANGUREN

Poloniaren inbasioa

Urteroko matraka izan ohi da, udan, gertakari esanguratsuen faltan, ez diren lekuetatik ere berriak asmatzen dituztela komunikabideek.

Abuztua bero joan den arren, asmakizunen jokoak ez da makala izan aurten ere.

Egun batetik bestera hasi ginen *turismofobiaz* berbetan. Bere horretan zentzugabeko hitza, turismo eredu konkretu baten biktima direnak kriminalizatzeko prestatu, orkestratu eta zuzendutakoa.

Baina lortu dute denok zulatutako gurpilez eta pintadez berba egiten jartzea, espazio publikoaren pribatizazioaz, kate handien lobbyen interesez edo hiri ereduaren inguruko beharrea.

AEBetako Charlottesvilleko irudiak ere ikusi ditugu. Amerika berriz handi egin nahi duten horiek, bandera

IKUSPEGI KRITIKO ORO KRIMINALIZATZEA BILATZEN DUEN HIZTEGIA NORMALIZATZEN DUGU

konfederatu eta naziekin, arma eta zuziekin, aspaldi ikusi dugun gorroto agerraldi *pelikuleroen*. Azal zuriak eta denak ez esatearren gehienak, gizonak, euren diskriminazioaz kezku. Ederra paradoxa! Eta hango presidentea ikusi-makusika

hasi zaigu, supremazisten *alt-right*-aren parean *alt-left* terminoa asmatu eta bi mugimenduak parekatuz.


Bartzelonako atentatuen ostean, gertaera eta kausen inguruan baino gehiago, hizkuntzaren kalapitarekin lotutakoak izan dira titular.

Txio batean irakurri bezala, katalanek, komunikatzeko beharrea, espainiarrak zirikatzeo bakarrik omen darabilte katalana. Nolakoak garen hizkuntza gutxituetako hiztunok, beti handiak diskriminatzen! *Españolfobia*, sare sozialetan irakurritako berba.

Hitz hutsen bidez eztabaidak desbideratuz, borrarroak biktima eta biktimak borrarro gisa errepresentatzen dituzten mezuak errepikatuz, ikuspegi kritiko oro kriminalizatzea bilatzen duen hiztegia normalizatzen dugu. Esan *feminazioi*, bestela, andre-gizon denontzat eskubide berak aldarrikatzea eta mundu justuago baten alde aritzea, Polonia inbaditzearen parekoa ez dela azaldu behar izaten dugu eta.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

'Dreamers'

MIREN AMURIZA

[HTTPS://LABUR.EUS/RVIU7](https://labur.eus/rviu7)

Esna dagoela amets egiten duena omen ameslaria, gogoan darabiltzan ideiak (gertagaitzak edo errealtatetik urrun samar daudenak) benetan gauzatzea posible dela irudikatu ohi duen hura.

Amets batzuk, izan ere, ez dira fantasia besterik.

Manta-arraia batek zerua hegan zeharkatzea adibidez, edo gerra bat itzaltzea, sute bat balitz lez, euria egiten duen bakoitzean.

Beste batzuk helburuak dira fantasiak bainoago.

Hain ikasketa egitea edo hain mendi-gailur zapaltzea, esaterako.

Helburu lorgarria gehi bat, geure bidetxoak zabaltzen joateko, horixe proiektatu behar genuela esaten zigun irakasle batek.

Ametsak, helburuak, paseatzera atera behar dira eta lantzean behin haizeak astin ditzan utzi, herriko jaietan osabak erositako heliozko globoa zerura askatu zuen umearen antzean.

Ameslari, *dreamer*, hala esaten diete paperik gabeko haur eta nerabe estatubatuarrei.

Mexikarrak omen gehienak, El Salvador, Guatemala eta Hondurasekoak ere bai.

Barack Obamak adin txikikook babesteko programa bat abiatu zuen, ikasteko eta lanerako bisak ematen zizkieten.

Ordea, Donald Trumpek bertan behera utzi du eta ondorioz, 800.000 bat gaztetxo daude deportatuak izateko arriskuan.

Globoak lehertu ere egiten direla batzuetan, alanbrezko hesietan tratatzean, adibidez.

Izango ahal dute ameslariok beren helburuak gehi bat lantzen jarraitzeko adina irudimen eta babes.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Amalia Mundiñano, Zierza Martin, Imanol Elortza, Jokin Uribeetxeberria.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.
Erredaktore burua
Ubane Madera.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Ubane Madera,
Monika Belastegi, Mirari Altube.
Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa
arduraduna Marta Leturia.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioako Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

PROTAGONISTA

"Taldea indartu arren, zaila da ACBn lehiakorra izatea"

SERGIO GARTZIA GIPUZKOA BASKET-EKO BIGARREN ENTRENATZAILEA

Mireia Bikuña BERGARA

Irailaren 30ean hasiko duen txapelketarako bidean, geldialdia egingo du Gipuzkoa Basketek Bergaran.

Lagunartekoa jokatu du Labegaraian, eta "gogotsu" datozela dio Sergio Gartziak, bigarren entrenatzaileak.

Euskal Koparen ostean, bigarren lagunartekoa duzue Bergarako.

Zein puntutan dago taldea?

Bi aste daramagu lanean eta ez gaude fin oraindik. Lan fisikoa egiten dihardugu, txapelketara egoera onean heltzeko. Gainera, selekzioarekin jokatu dauden jokalariai falta ditugu, eta Bergaran ere ez dira egongo. Hortaz, Easoko jokalariai gazte askorekin jokatu beharko dugu.

Chery, Clark, Norel, Fakuade, Maiza, Perez... jokalariai berri asko dituzue. Nolakoak izan da egokitzapena?

Lana eskatzen duen prozesua da. LEB mailatik datoz gehienak. Euren taldeetan izarrak izan dira, baina GBCn



GBCKo bigarren entrenatzaile Sergio Gartzia. GIPUZKOA BASKET

beste paper bat izango dute. Kontzientzia dira eta euren jarrera bikaina izan da orain arte. Norberak jokatzeko modu bat dauka, eta guztiek ohitu beharko dute taldearen estilora.

Eta zein da GBCren estiloa?

Defentsan lan sendoa eta serioa egin, eta erasoan erritmo azkarra eta bizia. Hori izan da betidanik gure estiloa, eta horrekin jarraitu gura dugu.

Jokalaria berriak, errefortzuak, beharrezkoak dira ACB ligan lehiakorak izateko?

Bai. Ezinbestekoak. Gipuzkoa Basketek ez dauka punta-puntako taldea osatzeko ahalmen ekonomikorik. Hortaz, LEB mailako jokalariai dira gure helburua. Euren taldeetan erreferente izan direnak eta ACB ligan euren maila erakutsi gura dutenak. Ikasteko gosea duten jokalariai.

Eta, taldea indartu arren, badakigu ez dela batere erraza izango lehiakor izatea.

Saskibaloiairekin elitean mantentzea ez da samurra izango.

Helburua maila mantentzea da?

Bai. Oinak lurrean ditugu eta badakigu zein den gure muga. Lana, lana eta lana.

Porfi Fisac entrenatzaileak esan du GBC "familia bat" dela. Ados?

Bai. GBCren barruan pertsonak gaude: jokalariai, zaleak, zuzendaritzakoak, langileak... Denok bide berean egin behar dugu lan. Noski, zaleen babesa oso garrantzitsua da guretzat.

Eta, txapelketa hasteko, Kanaria Handia, hilaren 30ean.

Ligako oilarretako bat da. Aurkari gogorra, baina, guztien kontra jokatu beharko dugunez... Ea, bada, hasiera ona egiten dugun.

HAU BE BADOGU!

Kataluniako erreferenduma hizpide



Aldeko 72 botorekin eta 11 abstentziorekin, Kataluniako parlamentuak urriaren 1ean independentziarako erreferenduma egiteko legea onartu zuen eguaztenez. Horrela, #Parlament, #Catalunya, #referendum eta #CatalunyaSi traolak trending topic izan dira sare sozialetan aste osoan zehar. Urriaren bozkatzaera deituta daude, beraz, kataluniarrak.

Ane Irazabalek ikusmin handia sortu du



Kulturatego areto nagusia lepo bete zen martitzenean kazetariaren hitzak entzuteko:

@AneIrazabal: "Mila esker etorri zareten guztioi, halako berotasuna sentitzeak ez du preziorik! @AEDelkarta @Kulturate #yihadismoa".

@EnekoAL: "Gauza interesgarri asko esan zituen Ane Irazabal kazetariak solasaldian. Kulturatego goraino beteta, txalo artean bukatu zen saioa".

Udako jaietako azken hitzorduak

Oporrak eta udako jaiak bukatzen doaz, baina azkeneko festek ere oihartzuna izan dute sarean. Besteak beste, #Lekeitio trending topic izan da asteon, estatu mailan, martitzenean Antzara Eguna izan zelako. Kritika ugari ere izan zituen festak sare sozialetan, animalien aurkako -antzen aurkako- tratu txarrak salatuta dituzte-eta hainbat erabiltzailek.

ITURRI ONETIK

Elkartasun kontzertu berezia

Bergarako hainbat herritarren eta Debagoieneko SOS Arrazakeriaren ekimenez, kontzertu berezia gertatzen ari dira urriaren 28rako. Alfredo Gonzalez Chirlaquek zuzentzen duen orkestrak ekitaldirako propio moldatutako piezak eskainiko ditu eta horietako bat izango da Suad Bushnaq konpositorearen *Ghadan* (Tomorrow). Orkestrarekin batera hainbat bakarleri ariko dira kantuan -Aitor Garitano, Maria Izaga...-. Batutakoa Ekialde Hurbileko gatazketatik ihesi doazen errefuxiatuentzako izango da.

GORA ETA BEHERA



Autobusen ordutegia irakurri ezinda

Goienako bulegoetara etorri da herritar bat, Musakolatik, kexa batekin, eta egoera irakurleekin partekatu nahi izan du. "Herriko autobusa hartzea ez pentsa erraza denik. Apustua egin beharko lukete erakundeek hau dena errotik konpontzeko. Tartean, behintzat, gainetik jarritako paper batzuk izan daitezke irtenbide probisionala. Euritarako plastiko batekin lagunduta", dio.



Nola erabili, aukerarik ez badago?

JOXEMARI MUXIKA ARRIETA

ARRASATE

Euskararen ezagutza mailak gora egin arren erabilera behera egiten ari dela eta, "nola hobetu euskararen erabilera?", galdetzen du Jose Luis Madinagoitiak 2017-09-01eko GOIENAKo bere artikuluan. Galdera honi erantzunez, hurrengo proposamena luzatzen du, "bakoitzak bere buruari galdetzea zer egin dezakeen bere inguruan erabilera hobetzeko eta erantzuna aplikatzen hastea", honekin batera Joxean Arzeren esaldia gogoratuz: "Hizkuntza bat ez da galduko ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek erabiltzen ez dutelako baizik".

Nahiz eta hainbat hamarkadatan zehar euskara erabiltzailea izan den jende asko ezagutzen dudana, pertsona hauek lagun edo familia girotik irtetea gaztelaniaz egitera bultzatu edo derrigortuak izan dira. Ez dut dudarik irakurleak ere antzeko egoeraren bat bizi izango zuenik; izan ere, erakundeekin harremanak edukitzean –lantokian, antzerki edo zinemaren, telebista edo komunikabidetan, kirol elkarteetan...–, ia guztiek gaztelaniaz funtzionatzen dute ia erabat. Horrenbestez, euskara hiztunak zokoratuak geratzen dira.

Egoera honetan gure neska-mutikoei euskaraz

egiteko ardura eskatzea lotsagabekeria ere bada.

Batzuek esango duzue ez dela horrenbesteko, baina esandakoa ez dela horrela pentsatuz gero, erakuts egidazue, mesedez. Zenbat erakundek darabilte euskara jardura edo lan-hizkuntza moduan Debagoienean? Argitu dezagun ea zein hizkuntzatan funtzionatzen duten; badugu euskara erabiltzeko aukerarik?

Boluntario bila

XABIER JORRIN

CARITAS DEBAGOIENA

DEBAGOIENA

Caritasek eta Sarea Fundazioak kudeatutako Bidean proiektua pasa den uztailaren 10ean martxan jarri zen Arrasateko Kataide poligonoan. Urteak dira Caritas bazterkerian daudenei laguntzen lan egiten duela.

Bidean proiektuaren helburua da bazterkerian dauden debagoiendarrei gizarteratze eta laneratze prozesuan jarraipen pertsonala egitea. Horretarako, formakuntza prozesua du oinarri.

Boluntarioak sustrai gogor eta garrantzitsuak dira Caritasentzat. Boluntarioei esker, aurrera egiten du egunero formakuntzako arlo ezberdinetan: erdarazko ikastaroak, pertsonen harrera eta jarraipen pertsonalizatua, sukaldaritza ikastaroak, informatika ikastaroak, administrazio lanak...

Ikasturte berria hasita eta Bidean proiektuaren formakuntza alorra indartu nahian, debagoiendarrei deialdia egin nahi dio Caritasek, boluntarioak behar dituelako. Interesatuok irailaren 15a baino lehen 688 68 31 93 telefonora deitu edota a.juldain@sarea.com helbidera idatzi dezakete.

Aurten

MIKELE LANDA

[HTTPS://LABUR.EUS/Q0790](https://labur.eus/Q0790)

Gutako askorentzat irailean hasten da urtea. Udaberriaren uda osteko planak antolatzen hasten zarenera zuzendu behar izaten duzu zeure burua, "datorren urtean, bueno kurtsuan, apuntatuko naiz yoga klaseetara" edo "datorren urtean, bueno kurtsuan, Bartzelonara joango naiz bizitzera", "Datorren urte, bueno kurtsora arte!".

Urteak hasiera bakoitzeko ospatuko balira, zenbat izango zenituzke? Zenbat urte izan ditu 2017ak dagoeneko? Logika horri tiraka, guztiok denboraren sailkapen berberak mugatuta bizi ordez, norberak hamabi mahats aleak zeren arabera jan erabaki beharko luke, ezta? [...]

Ni urte sailkapen taldeei dagokienez "praktikoan" artean kokatzen naiz. Ingurura begiratuta esango nuke asko gairela multzo berean sartu beharrekoak. Guretzako orainaren eta betebeharren artean distantzia jartzeko balio dute urte berriek. Egunen kopurua handitzen ez den

arren, urte batetik besterako distantziak handiagoa dirudi.

Urrunago ikusten dugu, beraz, datorren urtea biharko eguna baino, nahiz eta segundo kopuru berberera egon daitezkeen.

Gaur hasi da niretzako datorren urtea. Larrepetiten astero idazteko proposamenari baiezkoa eman nionean zehaztu zen nire egutegi propioaren muga. Hortaz, urte berri on esatea besterik ez zait geratzen!

Inuzenteegi

JOKIN LABAIEN

[HTTPS://LABUR.EUS/YRB67](https://labur.eus/YRB67)

Adinean aurrera goazela izango da, esango luke norbaitek. Gero eta errazago petratzen garela, alegia, baita gai hutsalek eraginda ere. Gero eta okerrago daramat nik puntualtasunik eza. Eta, oraingoan, ez naiz lagunekin jarritako hitzorduaz edo laneko bileraz ari. Horiek jasan ditzaket, hortzak estuturik, neurri batean. Baina lotsagabekeria telebistako emanaldietara ere iritsi da. [...] Denbora asko da eguneko emanaldi nagusietako asko beranduegi hasten direla iruditzen zaizula, komeniko litzatekeela *prime time*-aren ordutegia moldatuko lukeen hausnarketa egitea. Adar jotze hau, baina, gehiegizkoa da.

Hasi orduko, nazkatuta zaude. Imajinatzen duzu ez zarela bakarra. Deigarria da, gainera, atzerapen hori telesail baten estreinaldiari lotuta egotea. Badirudi, telebista

kateetako arduradunak ez daudela ikusleak haien eskaintzara gerturatu eta lotzarekin arduratuta. Mezuak gizenduko dituzte gero, errukia edo sortu nahian, haien lana egiteko azkenaldian dauzkaten zailtasunak adieraziz. Praktikan, ordea, ikus-entzuleekiko errespetu gutxi adierazten dute. Umore on samarrez eramaten genituen, garai batean, emanaldien une gorenetan txertatzen zizkiguten iragarkien tarreak.

Jasaten genituen, gerora, hasteko minutu erdiz iragarkietara joan eta, mamira itzuli bezain laster, berriro ere halako tarte luzeak txertatzea.

Orain, ordea, denak batera egiten dizkigute, bata hasi, bestea jarraitu eta hirugarrena bukatzeko.

Emanaldia, horrela, gauerdia ongi gaindituta amaituko da. Eztabaidaren muinean ez dago iragarkien gaia, ezpada ikus-entzuleekiko begirunea eta iragarkiak txertatzeko modua.

Gaurko hau, berez, asteartean Antena3 katean estreinatuta zuten *El incidente* telesailari eskaini nahi nion. Besteak beste, aktoreetako bi donostiarrek direla kontuan izanda, gai egokia izan zitekeen. Aipatu nahi nituzke lehen ataleko irudi ederrak, zalantza efektu bereziak eta istorioaren sinesgarritasuna kolokan jartzen zuten hainbat gertakari muturreko. Inuzenteegi sentiarazi ninduten horretarako.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus





OPEL
OPEL ZERBITZU OFIZIALA



San Andres Auzoa 10-D • Tel.: 943 77 30 10

ANIMATU ETA ZATOK IKUSTERA!



OPEL CROSSLAND X BERRIA

OPEL INSIGNIA BERRIA

"Salmenta postu hutsez harago" doan azoka

Gaur muntaketa lanak amaitu ostean, bihar irekiko da Erdi Aroko azoka; postuez gain, tailerrak eta ikuskizunak nabarmenduko dira Pegasus enpresaren eskaintzan

Jokin Bereziartua ARRASATE

Ia hamar urtez antolatu barik egon ostean, bueltan dator Erdi Aroko azoka. Zaturako eta domekarako egitaraua prestatu du Udal Gobernuak kontratatu duen Bartzelonako Pegasus enpresak. "Arrasate dinamizatu eta herri-rako pizgarri" izan dadin antolatu dute, gaur egungo mota horretako azokak garai baten egiten zirenak baino osatuagoak direla esateaz bat. "Erdi Aroko azoka dagoeneko ez da salmenta postu hutsen azoka. Gaur egun, ikuskizunak, musika, umeendako tailerrak eta ipuin kontalariak eskaintzen ditu, besteak beste. Pegasus enpresak zapatu gauerako espetakulu ikusgarri, koloretsu eta zaratsatu bat ekarriko du, adibidez", adierazi du Turismo zinegotzi Victoriano Fuentesek.

Taldeen zerrenda luzea

Companyia Del Foc taldearen zapatu gaueko (23:00) piroteknia ikuskizuna izango da hori, ikuskizunen arteko plater nagusia. Hala ere, animazio taldeen zerrenda luzea da: pertsonaia mitologikoak antzetzuz kalejira ikusgarria egiten duen Teatrakalakalle; umore klabearen antzerkia egiten duen Cia La Que Tu Me Haces; Portugalgo bost musikariz osatutako Sons Da Suevia; dantza egiptoar tradizionalak egiten dituen eta norberari birak ematen errekorra duen Emad Selim sufi dantzaria; Testa izeneko fakirra; eta ipuinak euskaraz kontatzen dituen Amalurra, besteak beste.

Denbora luzea pasatu da Erdi Aroko azokaren azken edizioa egin zenetik, eta, beraz, ikusteko dago herritarrek nola erantzun duten. Hala ere, Fuentes itxaropentsu dago: "Espero dugu ondo irtengo dela, jendeari gus-

tatuko zaiola. Erdiko kalea, Iturriotz eta Seber Altube plaza lotuko ditu ibilbideak. Adibidez, Seber Altube plazan egongo dira tailerrak eta erretegiak... Azoka polita geratuko dela uste dut, herritarrek gozatzeko moduko ikuskizun polita izango da".

Aurrekontutik kentzeko eskaera

Bestalde, EH Bilduk Erdi Aroko azoka 2017ko udal aurrekontutik kentzeko eskaera egin zuen, Erdi Aroko azokak "beste lanketa bat" behar duela iritzita.

ERDI AROKO AZOKA: EKINTZEN EGITARAUA

ZAPATUA, IRAILAK 9

11:00 Azokaren irekiera
11:30 Inaugurazio kalejira, konpainia guztiekin
12:00 Azokaren inaugurazio pregoia
12:15 Ipuin kontalaria euskaraz
12:30 Sufi dantza
13:00 Xaribari kalejira
13:15 Ipuin kontalaria euskaraz
13:30 Fakirren ikuskizuna
13:45 Eskaleak
14:00 Musika animazioa
18:00 Musika animazioa
18:15 Ipuin kontalaria euskaraz
18:30 Kalejira, siesta-ostekoa
18:45 Sufi dantza
19:00 Jentila vs Kristaua
19:15 Fakirren ikuskizuna
19:30 Musika animazioa
19:45 Ipuin kontalaria (euskaraz)
20:00 Gerlarien klana
20:30 Sufi dantza
21:00 Zalduna eta ezkutaria
21:30 Fakirra suaz
22:00 Su ikuskizuna
22:30 Musika animazioa
23:00 Piroteknia ikuskizuna: Companyia Del Foc.

DOMEKA, IRAILAK 10

11:00 Azoka zabaltea
11:30 Musika animazioa
11:45 Ipuin kontalaria euskaraz
12:00 Kalejira ikusgarria
12:15 Farina kantaria eta Sultan izeneko bere tximino talismana
12:30 Sufi dantza
12:45 Fakirren ikuskizuna
13:00 Xaribari kalejira
13:15 Ipuin kontalaria euskaraz
13:30 Musika animazioa
13:45 Zalduna eta ezkutaria
17:00 Musika animazioa
17:15 Ipuin kontalaria (euskaraz)
17:30 Fakirren ikuskizuna

17:45 Kalejira, siesta-ostekoa
18:00 Txotxongiloa: *El avaro avariento*
18:15 Musika animazioa
18:30 Sufi dantza
18:45 Ipuin kontalaria (euskaraz)
19:00 Gerlarien klana
19:30 Fakirren ikuskizuna
19:45 Sufi dantza
20:00 Eskaleak
20:15 Musika animazioa
20:30 Suzko kalejira

Zapatuan zein domekan

Haurren txokoa

Goizean 11:00etatik 14:00etara eta arratsaldean 17:00etatik 21:00etara

Lanbide tailerrak

Goizean 11:00etatik 14:00etara eta arratsaldean 17:00etatik 21:00etara

Erdi Aroko ikuskizunak

Goizean 11:00etatik 14:00etara eta arratsaldean 17:00etatik 21:00etara



Companyia Del Foc-en ikuskizuna.

Jose txo Aranzabal

Dantzan ikasi nahi?

PLAZAKO DANTZA TRADIZIONALA

lotuan - soltean - jauziak - ingurutxoak - kontradantzak
 mutildantzak - plazako dantzak - sokadantzak...

URRIA - MAIATZA / Hasiera: Urriak 2
 1. maila: Astelehena 18:00
 Dantza-txokoa: Astelehena 19:30
Ikus egitarauak: www.herrixadantzan.eus

Informazioa eta izenematea:
 • AED: 943 77 12 28 / aed@aedelkartea.com
 • Gazte Bulegoa: 943 25 20 65 / gaztebulegoa@arrasate.eus

Antolatzailea:  Portaloi elkartea

Laguntzaileak:  ARRASATEKO UDALA
 AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

 aed

 gaztebulegoa.com

Kids&Us.
 school of english

ENGLISH FOR LIFE

Ingelesa irte letik aurrera

"BE THE DIRECTOR OF YOUR OWN STORY"

www.kidsandus.es

**IKASTURTE HASIERA
 IRAILAREN 18AN**

Kids&Us Arrasate - Euskal Herria Plaza, 13 | Gelma Eraikina | 20500 Arrasate
 T. 943 051 548 / 656 740 578 - arrasate@kidsandus.es

Uarkapeko gimnasio berriak ireki ditu ateak

Astelehenean eta martitzenean ate irekiak egin zituzten eta eguaztena ezker erabilgarri dago, ohiko ordutegian, hau da, astean zehar 06:30etik 21:00etara eta zapatuetan, 09:00etatik 14:00etara; jendetza bildu zen irekiera egunean



Erabiltzaileak, makina berriak probatzen. JOKIN BEREZIARTUA

J.B./E.A. ARRASATE

"Urtebete egon gara zain. Pozik gaude gimnasio berria martxan dagoelako; 30 makina daude, denak berri-berriak eta modernoak. Herritarrei dei egiten diegu etorri eta makinak proba ditzaten", adierazi du Ander Garaik, Kirol zinegotziak. Garairen arabera, Musakolako gimnasioan jende larregi ibiltzen da, bereziki arratsaldeetako zenbait ordutan, eta horri erantzuna emateko asmoz ireki dute Uarkapekoa: "Gimnasio handia behar genuen, eta, horrez gain, bagenekien herriko erdigunean ez genuela halako kirol zerbitzurik. Uarkapeko kirol eraiki-

nari ez genion behar zuen probetxua ateratzen, eta orain, espero dugu buelta emango diogula egoera horri".

135.000 euro, esleipenetan

Uarkapeko eraikinaren kudeaketa modu integralean eraman du Egoitek enpresak 2018ko uztailean bitartean. Lan horretarako Arrasateko Udalak 80.000 euro bideratuko ditu eta uztailean lehiaketa publikora irtengo da berriro.

Aldiz, gimnasiooko makineria berria erosteko BH enpresa kontratatu du Udalak, 55.000 eurotan; makinaren mantentze-lanez BH enpresa arduratuko da.

Abonua, gainkostu barik

Musakolako kiroldegian eremu lehorreko edo *plus* abonua duten erabiltzaileek doan erabili ahal izango dute gimnasio hau. "Egin behar den gauza bakarra da txartela aktibatu. Gertuko edozein txartel erabil daiteke: Kulturaterako Izenpe txartela, Lurraldebuskoa, Osakidetzakoa... Halako txartelik ez duenak bost euro ordaindu beharko du txartela eskuratzeko", dio Garaik.

Kantabriara irteera irailaren 14an, Abaroak antolatuta

Lierganes herrian egingo dute hamarretakoa eta gero, bisita gidatua jasoko dute. Ondoren, Islara joango dira eta han bazkalduko dute. Itzuleran, berriz, Castro Urdialesen egingo dute geldialdia. Datorren astelehenean banatuko dituzte autobuserako txartelak, 11:00etan. Plazak libre badaude, gainontzeko erretiratuek ere joan ahal izango dira.

Zaintzaileendako ikastaroak izango dira urrian

Mendekotasuna duten pertsonen zaintzaileei zuzendutako ikastaroak emango ditu Aitziber Gine psikologoak urriaren 3an, 10ean, 17an, 19an, 24an eta 31n. Kulturaterako Loramendi gelan izango dira saioak, 15:00etatik 17:00etara, gazteleiaz. Izena emateko, udaletxean edota BAZen bulegoetan, irailaren 18a baino lehen. Plaza mugatuak dira.

ARRASATEKO MUGIKORTASUN ASTEA 2017

"Mugikortasun garbia, partekatua eta adimenduna"

Irailaren 16tik 22ra



udalsarea21

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

EGITARAUA

■ Irailak 16 Zapatua

• **BIRZIKLETA AZOKA** – Bigarren eskuko bizikleta azoka Mondragones kalean, azokan. 11:00–14:00
(*) Noiz eta nola batuko den materiala

• ERAKUSKETA

- MUGITU ZAITEZ BIZIKLETAZ. Mondragones kalea. 11:00-14:00. Paseoko bizikletak, tolesgarriak, eletriakoak

• AEROGRAFIA

- Aerografia teknikaren bidez kaskoak eta bizikletak margotuko ditugu. Ekarri zurea eta pertsonalizatu egingo dizugu!

■ Irailak 17 Domeka

• **BIZIKLETA BIRA** Irteera: Seber Altube plaza 11:00 10 kilometroko ibilbidea herrian zehar.

Wikiloc-en ibilbidea: "Bizikleta bira Mugikortasun Astea 2017"

Bideoa: <https://www.relive.cc/view/1167536926>

■ Irailak 20 Asteazkena

• **"Emakumeak bizikletan – Bizikume" proiektuaren aurkezpena.**

Kultur ate – Areto nagusia 19:00 (Hizlaria: Erkuden Almagro)

■ Irailaren 16tik 22ra

• **Mugikortasun adimentsua informazio kanpaina**

Informazioa <http://www. arrasate.eus> webgunean

• **"Eskolara Oinez" esperientzia:**

5. mailako ikasleekin eskola bideak oinez goizero; "Ausolan" en eskutik hamaiketako osasuntsua banatuko da ostiralean

(*) BIRZIKLETA azoka -

• Zer batuko da: Egoera onean dagoen edozein material. Edozelako bizikletak, mendikoak, paseokoak, errepidekoak, haurren bizikletak, trizikloak, kaskoak, belozimetroak, gurpilak, eskularruak, maillotak... Materiala garbi eta egoera onean ekartzea eskatzen da. (Patinak eta patineteak ez dira jasoko)

• Noiz eta non batuko da materiala: Udal Azokan

Irailaren 9an, zapatua 11:00 – 13:00

Irailaren 12an, martitzena, eta 14an, eguena 11:00 – 13:00 - 17:00 – 19:00

• Salneurria jabeak jarriko dio

• Saltzen ez den materiala eta saldutakoaren zenbatekoa jabeari itzuliko zaio irailaren 21an, eguena 17:00 - 19:00 Udal Azokan.



HIRI BUSA

DOAKOA

Irailaren 16tik 22ra, hiri busa DOAN.

Aldingabeek autobusa erabili ahal izango dute bakarrik nagusi batekin badoaz edo ohiko eskola bidaiak egiteko (aurreko urteetan sortutako arazoak gerta ez daitezten)

Birzikleta Azokarako material bilketa, bihartik aurrera

Berrerabilpena eta birziklapena sustatzeko helburuarekin antolatutako azoka irailaren 16an izango da

Imanol Beloki ARRASATE

Mugikortasun Astea irailaren 16tik 22ra bitartean izango da, eta lehenengo ekintza Arrasateko Birzikleta Azoka izango da, irailaren 16an, zapatuan. Berrerabilpena eta birziklapena sustatzeko helburuarekin antolatu den egitasmoa da, eta bizikletaren erabilera sustatzeko ere balioko du, bide batez.

Birzikleta Azoka irailaren 16an izan arren, horren aurretik, bigarren eskuko bizikleta merkaturatuen salduko diren materialak batzeko ordutegia honako hau izango da: irailaren 9an, 11:00etatik 13:00etara bitartean; irailaren 12an, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara; eta irailaren 14an, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Antolatzaileek adierazi dute azken egunean baino gehiago, materiala lehenbailehen erama-

teko, azoka egunari begira dena hobeto antolatuta izateko.

Egoera onean dagoen materiala
Materiala eramaten duenak jarririk behar dio eramandakoari salneurria eta egoera onean dagoen edozein material batuko da. Mota ezberdinetako bizikletak, mendikoak, paseokoak, errepidekoak, haurren bizikletak, trizikloak, patinak, patineteak, kaskoak, gurpilak... Materiala Azoka Plazan batuko da, eta azokan saltzen den materialaren dirua jabeari emango zaio. Saltzen ez den materiala, berriz, bueltatu egingo zaio jabeari.

Azokaz gain, bizikleta pertsonalizatzeko aukera ere egingo da, aerografia bidez margotuz. Mondragones kalean, bestalde, bizikleten erakusketa egingo dute, goizean, Lizarralde Kiroketa eta Forumek.

Aste bukaera honetan izango da Merkemerkaua

Ibai-Arte merkatarik elkarteak antolatutako udaberri-udako Merkemerkaua, Arrasateko stock azoka, gaur eta bihar izango da. Aurten, berrikuntza nagusia da gaur, egubakoitza, saltokiak 16:30etik 20:00etara bitartean aterako direla. Bihar, zapatua, berriz, 10:00etatik 20:00etara eten barik egongo dira irekita saltokiak.

Bi egun hauetan saltokiek kalera aterako dituzte denboraldiko produktuak prezio murriztuetan, produktuak saltoki aurrean eskainita. Aurten, 33 merkatarik hartuko dute parte azokan, eta kaleetan zehar musika egongo da egun osoan, giroa alaitzeko eta herritarrek kalera irten daitezen.

Ordainketak, berriz, eskudirutan egin behar dira, eta gerturatzen den orok deskontu eta eskaintza paregabeek gozatzeko aukera izango du.

Herrikideei elkartasuna

27 arrasatear, Zarauzko eta Gasteizko beste 30 bat herritarrekin batera, Parisen izan dira asteon Julen Mendizabal eta Kepa Arkauz preso arrasatearren eta beste lau pertsonaren kontrako epaiketan. Atzo eguerdian irten zen epaia: Mendizabali zazpi urteko espetxe zigorra ezarri diote eta Arkauzi sei urtekoa, ETAko aparatuko logistikoko kide izateagatik.



ARRASATEKO SORTU

MERKE 2017 MERKAUA

Arrasateko stock azoka

IRAILA

**ORDAINKETAK:
ESKUDIRUTAN**

08

OSTIRALA
16:30-20:00

09

ZAPATUA
10:00-20:00 (jarraian)

Arrasateko kaleetan zehar:
Biltegi etorbidea, Erako Kale, Ferrerías, Garibai Etorbidea, Iturriotz, Maialako errabala, Maiazaren 1a plaza, Olatu, Otalora, Zarugalde,

Antolatzailea

ibai-arte

Babeslea

ELDHO INJALARITZA GOBERNO VASCO

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ARRASATE



aretha®

INAUGURAZIOA!

Irailak 15

Moda, Zapatak, Poltsak
eta Osagarriak

Dena 12€tan

Etxetxikiak 1 Arrasate

Euskal Kopako lehia murgilduko da Ointxe MU

EBA mailako saskibaloitza taldeak maila berean dauden bost euskal taldeen arteko denboraldi-aurreko txapelketari ekingo dio domekan. Horrez gain, zapatuan taldearen aurkezpen partidua jokatuko dute Hagetmau Doazit Chalosseren aurka Iturripen

Maite Txintxurreta ARRASATE

Saskibaloitza EBA mailako Ointxe MU gizonen taldeak asteburuan ekingo dio Euskal Kopari. Denboraldi-aurreko txapelketa honetan, maila horretan diharduten euskal talde guztiak hartzen dute parte. Honako hauek dira bost talde horiek: Mondragon Unibertsitatea, Biok2 Ordizia Saskibaloia, Santurtzi Saskibaloitza Kluba, Easo eta Zarautz ZKE, hain zuzen.

Horrez gain, baina, zapatuan lagunarteko beste partidua jokatuko dute; jardunaldi bikoitza, beraz. Hagetmau Doazit Chalosse talde frantziarra hartuko dute Iturripen iluntzeko zortzietatik aurrera, taldearen aurkezpen partiduan. Frantziako NM2 mailan dihardu talde horrek, herrialdeko laugarren mailan, alegia. Arrasatearrek aste pare bat baino ez daramatzate entrenamenduetan, eta oraindik taldeko aldaketetara ohitzeko lanetan dihardute, baina, "beti bezala", lehiakortasuna erakutsi eta irabaztera aterako dira, Josu Larreategi entrenatzaileak adierazi duenez.

Bada, aipatu bezala, zapatuko hitzorduaren ostean hurrengo egunean bertan ekingo diote talde euskaldunen arteko lehiari. Euskal Kopako lehen fase

horretan talde guztiak guztien aurka jokatuko dute, lehenik, eta gero, sailkapeneko lehen bi sailkatuek finala jokatuko dute. Final hori partidua bakar batera jokatuko dute, eta irailaren 30ean edo urriaren 1ean izango da.

Bada, Larreategi entrenatzen duen taldeak Easoren aurka jokatuko du lehen jardunaldia, domeka honetan. Etxean jokatuko dute, Iturripen, 18:00etan hasita.

Lehen faseko hitzorduak

Bada, lehendabiziko fasean, honako hauek izango dira asteburu honetako partiduen osteko gainontzeko hitzorduak: hurrengo asteburuan, zapatuan, Zarautzen kontra jokatuko du bisitari moduan. Hirugarren jardunaldian, berriz, MUK Santurtzi izango du aurkari, eta orduan ere bisitari izango dira. Laugarren jardunaldian atsedendia izango dute Josu Larreategi mutilek, eta, bukatzeko, lehen faseko bosgarren eta azken partiduan Biok2 Ordizia taldea hartuko dute etxean.

Denboraldi-aurreko lanak

Zapatuko bezalako lagunarteko partidua zein Euskal Kopa bezalako denboraldi-aurreko txapelketa ondo etorriko zaizkie

Josu Larreategi mutilei. Izan ere, entrenatzaileak nabarmendu duen moduan, oraindik, lau fitxaketa berri egin dituzte taldeak -Baskoniako harrobitik igaro diren lau gasteiztar: Mikel Basterra, Josu Andres, Diego Lopez eta Simon Mancebo-, eta "elkar ezagutzeko" astia behar dute orain: "Iaz jokalaritza guztiak etxe-




Muren iazko norgehiagoka bat Iturripen. GOIENA

koak ziren, baina orain aldaketa gehiago egon dira taldean. Horregatik, entrenamendu eta partidua gehiago beharko ditugu ligari ekin aurretik".


Hala, oraindik norgehiagoka horiek zer falta zaien "ikusteko" balio izango dietela uste du Larreategi. Berrogei egun dituzte aurretik horretarako.

Sarera salto egin du aurten Arrasate Eskubaloiak


Arrasate Eskubaloia klubak Internetera eta sare sozialetara jauzi egin du, denboraldi berriaren atarian. Hain zuzen ere, Facebook, Twitter eta Instagram plataformetan kontu bana irekitzeaz gainera, webgunea ere badaukate, jarraitzaileek klubaren berri izateko. Hauxe da: arrasateeskubaloi.eus.



Klubaren webgunea. ARRASATE ESKUBALOI




E




CITROËN C3 BERRIA ZU BEZAIN BEREZIA

ConnectedCAM Citroën™ | 36 pertsonalizazio aukera | Citroën Advanced Comfort®



CITROËN-ek nahiago du TOTAL

Kontsumo mistoa (l/100 km) / CO2 isurpena (g/km): Citroën C3: 3,2-4,7 / 83-109



citroen.es

TALLERES CHAPIME

San Andres 5, 20500 ARRASATE • Tel.: 943 79 45 22

Akustika desberdinen fusioa nagusi Kulturaten

Luis Vil musikariaren azken proiektuak, Mushkum taldeak, emango dio hasiera gaur, egubakoitza, Kulturate Akustikoak ekimenaren bederatzigarren edizioari; asteburuan Tori Sparks estatubatuarra eta Maria Arnal eta Marcel Bages kataluniarrak ariko dira



Marcel Bages eta Maria Arnal Kulturaten izango dira domekan. ARRASATEKO UDALA

Eneko Azurmendi ARRASATE

Gaur, egubakoitza, abiatuko da IX. Kulturate akustikoak –20:00etan–, eta Luis Vil musikari eta zinemagilearen proiektu berriak, Mushkum taldeak, inauguratuko du. "Nigan dagoen alderdi melodikoan esploratzeko beharrak, baina nire ahotsarekin –baritono gordina– egin ezin nuen egiteko sortua da", azaldu du Vilek. Musikari dagokionez, Vilen esanetan, "rock akustikoaren sustrietatik abiatuta dago, baina, aldi berean, estilo askotako mugetan mugituz, norberarena aurkitu guran". Bide batez, Vili egindako elkarrizketa dago irakurgai gaurko *Puntua* aldizkarian.

Bihar, Tori Sparks

La Huerta izeneko lanarekin dator Tori Sparks abeslari estatubatuarra, bere kolaboratzaileekin babesarekin.

Orain artekoari eutsiz, fusioa du oinarri talde horrek. Hala, estilo eta kolore desberdinetako soinuak uztartzen dira oholtza gainean, eta horren eragile El Rubioren gitarra elektrikoa eta Pepe Camachoren gitarra flamenkoa dira. Baina, horren guztiaren gainera, nola ez, Tori Sparksen ahots indartsua dago. Bihar, zapatua, izango da euren txanda, 20:00etan.

Etzi, bikote kataluniar bat

Maria Arnal abeslariak eta Marcel Bages gitarristak osatutako bikoteak orain gutxi kaleratu duen albuma, *45 cerebros y 1 corazón*, aurkeztuko du etzi, domeka, Kulturaten, 20:00etan.

Lan berri horren bitartez, memoria da aldarrikatu gura dutena, zer den gogoratzen duguna eta zer ahaztarazi nahi diguten. Eurek sortutako abestiak eskaintzen dituzte, esangura handiko letrekin, eta zuzeneko hunkigarri baten bitartez.

Plazako dantza tradizionalen ikastaroak Arrasaten

Urtero bezala, plazako dantza tradizional ikastaroak antolatu ditu Arrasaten Portaloi elkar-teak. Bi talde izango dira: has-tapeneko taldea eta *beteranoen* dantza-txokoa. Saiok astelehene-tan izango dira, urriaren 2an abiatuta, maiatza bitartean: talde berria –1. maila– 18:30etik 19:30era ariko da eta dantza-txokoa, berriz, 19:30etik 21:00etara.

Hainbat dantza eskainiko dira: lotuan –pasodoblea, balsa, polka, txotisa, mazurka, boleroa, habanera, tangoa–; soltean– trikitia, porrusalda, fandangoa, arin-arina–; jauziak; Baztango mutil-dantzak; kontradantzak; ingurutxoak; joko-dantzak, gabotak; braleak, Baztango zortzi-koa, bolant dantza, axuri beltza, larrain dantza, txerri dantza... Informazio gehiago eta izen-ematea hilabete honetan, irailean, ondorengo telefonoetara deituta: AEDra –943 77 12 28– edota Gazte Bulegora –943 25 20 65–. Dantzan ikasi nahi al duzu? Animatez!

CLINICA DENTAL BERGARA

20 urte baina gehiagoko
esperientzia
inplantologian

*Izugarri kostatzen zaizu
dentistarengana joatea?
Gurekin ez!*

- Lehen bisita doan eskaintzen dizugu.
- Beste iritzi bat konpromiso barik.
- Gertuko tratu profesionala.
- 60 hilabeterainoko finantzazioa.
- Hortz aseguruetan estaldura





Aretxarteko merkatarien postuak mojetan, martxoan egindako ixadabalden. AMAIA TXINTXURRETA

Sekulako beherapenak herritarren eskura

Aretxarte elkarte XV. Ixadabalde merkealdien azoka egiten dabil; atzo hasi eta bihar eguerdia arte, agustindar mojen eraikinean elkartuko dira hamahiru merkatari, eta uda sasoiko "produkturik onenak dituzte, prezio ezin hobeeekin"

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Eguenean ekin zioten merkealdien azokari Aretxarte merkatarien elkarteko kideek, eta, atzo lez, gaur ere, arratsaldean elkartuko dira mojetan (16:30-20:30); bihar, zapatua, oster, goizean izango dira herritarren zerbitzura (09:30-15:00).

Postu berriak

"Hamahiru elkartuko gara oraingoan, eta batzuk berriak dira, Danona taberna eta Iber, esaterako. Tak zapata denda martxoan ere egon zen, baina, orduan, ezagutzera emateko joan zen, eta oraingoan, beherapenetan dituen produktuekin egongo da", jakinarazi du Me-

ritxell Serratok, Ixadabalde azokaren antolatzaileetako batek. Eta zelan ez, merkatutako jenerorik onena izango dutela herritarren eskura gaineratu du. Eguraldi ona eginez gero, produktuok kanpora ateratzeko asmoa dute: "Hiru egunera luzatu dugu aurten azoka, aukera gehiago ematearren herritarrei, eta, barruan ez ezik, kanpora ateratzeko asmoa ere badugu", adierazi du Serratok.

100 euroko bi bonu

Azokara gerturatzen diren bezeroek saritxoia ere lor dezakete; izan ere, 100 euroko bi bonu zozketatuko dituzte Aretxarteren komertzioetan erabiltzeko.

Postuak

Mojetan elkartuko diren merkatariak:

- Amaia ume denda.
- Asensio.
- Belar Meta.
- Danona taberna.
- Haurrak.
- Iber.
- Kilima.
- M5.
- Mari Merke.
- Tak zapata denda.
- Tinta Beltza.
- Titare.
- UDA.

Ez dau urrin fan biherrik, une politteko bizitteko

Lagun askoren babesean ospatu zuen hamargarren urteurrena Juane Arientzako kanpai-jole eskolak

Goiena komunitatea

Julen Abasolo / Juane Arientzako

kanpai-jole eskola

ARETXABALETAKO

Zaratien eta soinuaren arteko aldiez jolastu gure izen geuen arranak, eta urrin fan barik Jon topau geuen arran gaixetan jantzitze; gero, Alfredo, Asier, Patxi, Joseba eta Egoitz, eta beste hogeitaz lagun Bideburuko parajietan arranak pasietako gertu.

Auzoko kontu batzuk kontau gure gittuen, eta urrin fan barik agertu zien Danel bertsolari, Oier eta Aitor musikari, Monse lekaixoka, Jose Luis latinez, Joseba kontulari, Nuria itzultzaile, Iraitz argazkilari, Nati kanpaitxuekin eta ehun bat la-

gun lasto fardotan auditoriue beteten.

Herri bazkari bat gure geuen eta urrin fan barik, Axunek itxi euskun garajie. Sardan berakatz-zopak egiten jarri zan, eta dozena bat lagun, beste lanetarako urrin fan barik, senide artien topau gittuen, 80 lagun aseteko.

Aurretik, eozenak uxatu barik beste jende bat be erakarri gure izen geuen, eta urrin fan barik The Potes eta Dixauen topau gittuen Garaikuen joteko prest. Kontzertu leku parebakuen lau generaziñotako jente morduek gozatu geuen akustikuen inguruan.

Urrin fan barik, hortxe egongo zan gure lana be.Nire ustez, bertan, urrin fan barik, egun edar bat pasau geuen zapatuen.



Hainbat lagun kantuan, zapatuan, Areantza auzoan. MAIDER ARREGI

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAKO

LANA • FISKALITATEA • KONTABILITATEA • JURIDIKOA-ABOKATUAK



30 urteko eskarmentua fiskal, kontabilitate, lan eta merkataritzaren arloetan, enpresen, autonomoen, partikularren eta enpresa bat sortu nahi dutenen zerbitzura



Basabe Industrialdea Pab. FO - 10. bulegoa • 25 Postakutxa
20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa) • Tel.: 943 71 21 12

www.zenbaki.eus

Kurtzebarri Eguna domekan, herritarren hitzordu kutuna

Aretxabaletarrek estimu handian duten Kurtzebarri mendiaren eguna ospatuko dute etzi, irailak 10. Murruxio mendizale elkarteko kideek salda eskainiko dute 10:30etik aurrera tontorrean, baita txorizo muturra eta gazta ere; 13:30ean bermuta hartuko dute Mendiola auzoan. Eguraldi txarra eginez gero Mendiolan izango direla ospakizunak esan dute.

Laster zabalduko dute ekintzaileendako lokala

Oraindik ez dute data zehatzik iragarri, baina azken lanak egiten ari dira zerbitzuetara bideratutako enpresa ekimenetako zentroko bost modulueta; dagoeneko, gainera, aurkez daitezke eskaerak Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentziara

Amaia Txintxurreta ARETXABALETA Ekintzaile berriek euren proiektuak aurrera eraman ahal izateko txoko berri bat izango dute aurrerantzean Aretxabaletan. Udalarena den eta Aralar kaltetik sarrera daukan Nafarroa kaleko 6-8 zenbakietan dagoen lokalean, bost modulu egokitu ditu Debagoieneko Mankomunitateak, eta azken lanak egiten ari dira egunotan, laster martxan jartzeko.

Zerbitzuei bideratutako proiektuak garatzeko lekua izango dute bertan ekintzaileek eta modulu bakoitzean gehienez ere hiru urtez egon ahal izango dira ekintzaileak, aldi baterako lagapenekoak direlako.

Eskaerak, Mankomunitatera Ez dago eskaerak egiteko azken egunik, eta dagoeneko bidera daitezke, baina baldintza batzuk derrigorrez bete behar dira. Besteak beste, hauxe: Debagoiena eskualdean enpresa bat eratzeko proiektua sustatzen duten pertsona fisikoak edo, asko jota, sei hilabeteko antzinatasuna duten enpresak izan behar dutela –banakako enpresaburuak ere sartzen dira–. Eta eskaerarekin batera proiektuaren bideragarritasun plana aurkeztu beharra dago.

Eskaerak Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentziara joanda aurkeztu behar dira; Arrasateko Nafarroa etorbideko 17an. Informazio gehiago nahi izanez gero, hainbat bide daude horretarako: *rgarcia@debagoiena.eus* helbidera idatzi, 943 79 30 90 telefonora deitu, edo bestela, *Debagoiena*.

eus webgunean ere badago informazio gehiago.

Arrasaten ere bai

Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentziak Enpresa Ekimenetarako Zentroa sortu zuen, eta Arrasaten dagoeneko Mankomunitatearen egoitzan horrelako hamasei modulu dau-



Itxura berritua eman diote kanpotik ere enpresa ekimenetarako zentroari. M. ALTUBE

de, ekintzaileei bideratuta; horietako zortzi industriara zuzenduta, eta beste hainbeste zerbitzuetara. Arrasateko, Aretxabaletaok batuko zaiz-

kie orain, eta, guztira, 21 modulu egongo dira, beraz, aurrerantzean bailaran. Arrasateko lokalean gaur egun hamaika enpresa daude kokatuta, eta hamazazpi lagunek jarduten dute horietan lanean. Arrasateko zerbitzu modulueta sartzeko itxarote-zerrenda dago eta aurrerantzean eskatzaileek aukera izango dute Aretxabaleta edo Arrasateko modulueta sartzeko, betiere, baldintzetan azaltzen den gutxieneko puntuazioa lortuz gero. Eta ezarritako gutxieneko puntuazioa gairiditu bai, baina lokalik lortu ez duten proiektuak itxarote-zerrendan geratuko dira.

Lokalak erabiltzeko moduan daudenean, itxarote-zerrendan dauden proiektuak dauden eskaera berriekin batera lehiatuko dira lokal horien esleipenerako, eta puntuazio-ordenaren arabera banatuko dira.

Mankomunitateak adierazi du bere lokalak 1997an martxan jarri zirenetik, 80 ekimen berri eraman direla aurrera, eta horietatik %65ek merkatuan jarraitzen dutela.

IXADEBALDE

Aretxabaleta XV. Merkealdi Azoka

irailak 7, 8 eta 9

MOJETAN

7an eta 8an: 16:30etik 20:30era
9an: 09:30etik 15:00etara

100€-ko bi bonu zozketatuko dira!

100€-ko bi bonu zozketatuko dira!

Amaia Ume denda, Asensio, Belar Meta, Danona, Haurrak, Iber, Kilima, M5, Mari Merke, Tak Zapata denda, Tinta Beltza, Titare, UDA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Aretxabaleta Udala

Lau hilabete beharko dituzte Txarapeako malda egonkortzeko

Joan den astetik dabilta Txarapea ibilbideko ezpondak egonkortzen, aspaldiko arazoari irtenbidea emateko

Mirari Altube ARETXABALETA Arazoa aspalditik dator, eta iaiz martxoan, esaterako, lur-jausiak izan ziren maldaren hainbat gunetan. Arazoa, hain zuzen, azpiko urek sortzen dute; bate-tik, ibilbide horretako urbani-

zatzte lanak egiterakoan ez zire-lako ondo bideratu, eta bestetik, autobidearen lanen ondorioz desbideratu egin zirelako ur horiek. Horren ustea dute Hiri-gintza Saileko ordezkariak, eta gaineratu dute ur horiek lurra

bigundu egiten dutela eta, ondorioz, luiziak sortu.

Orain, hiru gunetan dabilta lanak egiten: 74 eta 80 atarreen atzealdean, 32 eta 40 atarreen artean eta 24 eta 30 artean.

Behin-behineko konponbideak jarri izan dizkiete, baina orain behin betikoari heltzea erabaki dute eta horretarako azaleko ezponda izeneko horma egingo dute. Asfaltados y Construcciones Morga SL enpresari eman diote lan horien ardura eta 369.294 euroko kostua dute.

Elkarretaratzea hilaren 11n, Kataluniari babesa adierazteko

Aretxabaleta EH Bilduk babesa erakutsi gura dio Katalunian bizi duten prozesuari. Horregatik, irailaren 11rako, Diada Egunerako, elkarretaratzea deitu dute; Durana kalean –EHbilgune parean– izango da, 19:00etan. Ikur-rinarekin batera estelada jarriko dute. Herritar guztiak gonbidatu dituzte: "Gurekin bat, elkartasuna adierazteko haiei".

Euskaltzaindiaren ibilbidearen gaineko hitzaldia hilaren 14an

Euskaltzaindiko Ahozko Tradizioko Hizkeren Corpusa egitasmoaren teknikari Aritz Abaroa Cantuariensek hitzaldia eskainiko da hurrengo egunean, 18:30ean, Arkupe kultura etxean. *Euskaltzaindiak hastapenetik gaurdaino. Ibilbidea eta egungo erronkak* izenburua izango du eta herritar guztiak daude bertara gonbidatuta.

Jarduerak estreinatzeke gertu Ibarra kiroldegian

Denboraldi berriarekin kirol jarduera berriak datoz kiroldegira herritarrei egindako eskaintza osatzeko asmoarekin. Izen-emate epea zabalik dago eta astelehenetik abian izango dira oraingoak eta aurretik zeuden guztiak

Mirari Altube ARETXABALETA

Astelehenetik, irailak 11, abian izango da kirol jardueren denboraldi berria Ibarra kiroldegian. Berrikuntzekin dator, gainera, eskaintza, lau jarduera berri izango dituztelako aukeran herritarrek: koordinazioa, oreka eta indarra; circuit training; urgym; eta urxunba.

Jarduerak probatzeko deia

"Laz arrakasta izandako jarduerekin hasiko dugu denboraldia eta berriekin osatu", dio Iñigo Murgiondok, Ibarra kiroldegian Athlonek duen arduradunak. Gaur egun arrakasta handiena dutenak xunba, hipopresibo abdominal gimnasiak eta igeriketa dira.

Berrien artean dago koordinazioa, oreka eta indarra jarduera; esandako hirurak bateratuko ditu horrek, eta helduendako da aproposa: "Oreka arazoak dituztenendako; adibidez, nagusien erorketak saihesteko".

Circuit trainingek, oster, lan aerobikoa eta indarra landuko ditu intentsitate handian: "Zirkuitu bat izango da eta esijentzia eta intentsitate handiko hainbat jarduera landuko dira hor", dio Murgiondok.

Beste bi jarduerak igerilekuan izango dira: urgym -ariketak uretan- eta urxunba -dantzan uretan-. "Orain arte ekintza berezi moduan antolatu izan ditugu, eta orain, jarduera izango dira. Igerileku ertainean elkartuko dira eta urak dituen propietateak aprobeztatuko dituzte kirola egiteko".

Lau jarduerak jarririko dituzte abian irailean, gutxieneko kopurura iritsi edo ez taldea: "Probatzeko aukera, behintzat, izan dezaten herritarrek. Horregatik, izena eman aurretik probatu gura izanez gero harreraren esan eta ez da izango arazorik", dio Murgiondok, eta gaineratu du: "Nire proposamena da probatzea,



Hainbat kirolari fitness gelan. MIRARI ALTUBE

orain arte egin bakoak probatu, eta gero egokiena hautatu norberarendako".

Argibide gehiago gura duenak, edo izena eman, Ibarra kiroldegira jo dezala -info@ibarrakiroldegia.eus eta 943 03 98 42-.

Egokitzapenak

Hobetze lantxo batzuk ere egin dituzte azken asteotan; batetik, fitness gelan goma jarri dute, pisu librea egiten den gunean, eta bestetik, hamaka berriak daude solariumean.

"Aholkularitza profesionala aurkituko du"

IÑIGO MURGIÓNDO
ATHLONEKO ARDURADUNA
IBARRA KIROLDEGIAN

Zergatik joan kiroldegira?

Aholkularitza profesionala aurki daitekeelako, norberari egokitutako jarduera eskaintza zabala dagoelako eta era erosoan egin daitekeelako kirola, batez ere, negu sasoiari. **Kirola egitea muturrera eramanez azken urteotan?** Errendimendu kirola beti existitu izan da, baina ez da osasungarria. Sasiprofesional izatea aukeratu duen horri



M.A.

esango nioke profesionalen -fisioa, prestatzaile fisikoa...- aholkuak jarraitzeko eta horrek zer dakarren jakinda aukeratzeko.

Emakumea edo gizona izan, kirola egiteko era ezberdina da?

Bai; inposatutako estereotipo asko daude eta horrek eragina du jarduera aukeratzekoan ere. Gu saiatzen gara eskaintza edonorendako izaten, inolako bereizketarik egin gabe.

Beinke Loramendi dantza entseguak martitzenetik

Loramendi elkarteak antolatuta Kurtzebarri eskolako gimnasioan elkartuko dira martitzen eta eguenetan

M.A. ARETXABALETA

Sanmigeletan dantzatuko den Beinke Loramendi dantza gertatzeko entseguak antolatu ditu aurten ere Loramendi elkarteak. Martitzenetan eta eguenetan izango dira, irailaren 12an hasita; hona hemen egunak: 12, 14, 19, 21 eta 26. Kurtzebarri eskolako gimnasioan elkartuko dira (19:00-20:00) eta ez dago aurrez izenik eman beharrik, nahikoa da bertan agertzea.

Entsegu orokorra, oster, hilaren 28an egingo dute, Herriko Plazan (19:00).

Irailaren 13an Petti

Kontzertuak antolatzen jarraitzen du Loramendi elkarteak, eta oraingoan Petti (Bera, 1973) musikari ezaguna etorriko da Urbaltz taberna ingurura; irailaren 13an, eguaztena, da kontzertua, 19:30ean.

Rock doinuetan eskarmentu handia duen abeslari eta musikaria da nafarra, eta bakarka zein beste batzuekin elkarlanean jardun izan du; Anarirekin eta Rafa Ruedarekin, besteak beste. Oraingoan, gitarra lagun hartuta etorriko da.



M.A.

Magoen lanarekin gozaten

Eguaztena ezker dabilta herrian Kidam, Txoborro eta Tor magoak aretxabalearrak aho zabalik uzten Magia Astearen barruan. Eta aste bukaeran ere makina bat saio egingo dute. Gaur, Asier Kidamek eskainiko du magia ikuskizuna (22:00, Arkupe). Eta zapatuan eta domekan umeendako saioak egingo dituzte (19:00, Arkupe); Txoborrok bihar eta Tor magoak etzi.

Andramaixak ospatuko dituzte gaurtik Areantzan

Agorreko Andramaixetan murgilduko dira gaurtik Areantza auzoan. Urtero lez, tantaia jaso eta Martin Kabarrixa pertsonaia auzora ekarri hasiko dituzte jaiok (20:00) eta ondoren auzo afaria egingo dute (20:30).

Bihar, zapatua, izango da Andramaixetako egun nagusia. Txistularien doinuekin iratzarrituko dira auzokideak (10:30) eta

meza izango dute gero, Basotxo kantu-zaleek lagun eginda (12:00). Mokadutxo eskainiko dute ondoren, trikitilariak giro-tuta (12:45) eta 33. ginkanari ekingo diote gero (13:30). Arratsaldea (17:45), oster, Areantzako jolasekin pasatuko dute, ilundu artean.

Domekan Kurtzebarri mendiko egunarekin bat egingo dute; Iturriko erromaran elkartuta (09:30) abiatuko dira eta tontorrean urteroko argazkia aterako dute (12:00).

Partekatzeko moduko bidaiak

'Ostegun bidaiariak'-en laugarren edizioan, hiru bidaia ezberdin entzuteko aukera izango da: Iker Zugastik Txilen lau urtez egindakoa, Iratxe Arresek eta Jon Kortazarrek Dolomitetatik Kroaziara egindakoa eta Oihana Irazuk Nepalera egindakoa

Imanol Beloki **ESKORIATZA**

Udako oporraldia pasata, datoren urteko bidaia pentsatzen hasiak dira herritar asko. Bidaia lehenbailehen prestatu nahi duten asko daude, eta nora joan ez dakienarentzat aukera aproposa da *Ostegun bidaiariak* hizaldietara gerturatzea.

Aurten, Eskoriatzan egiten den *Ostegun bidaiariak*-en laugarren edizioa izango da, eta, urtero moduan, hiru bidaia ezberdinen kontakizuna egingo dute hainbat herritarrek lehenengo pertsonan.

Gertuko aurkezpenak

Protagonistek bisitatu dituzten herrialdeak eta hango bizipenak kontatuko dituzte, eta nork bere bidaia nahi duen modura kontatuko du. Nola antolatu duen bidaia, zer egin duen, edo zer

egin nahi izan duen, ikusi beharrekoak adieraziz, zer ez den ikusi beharrekoa... era subjektiboan kontatuta. Amaitzeko, berriz, galderen tartea izango da. Honela adierazi du Mari Karmen Arrietak, Eskoriatzako Kultura teknikariak: "Bakoitzak ikusiko du aurkezpena nola egin nahi duen, baina orain arte, argazkietan eta euren kontakizun pertsonalean oinarritu dira, eta edizio honetan ere hala egingo dutela uste dut".

Askotariko bidaiak

Irailaren 14an izango da lehenengo bidaiaren kontakizuna. *Txile iparraldetik hegoaldera* izenburupean, 21:30ean, Zaldibar antzokian, Iker Zugasti eskoriatzarrak kontatuko du. Lau urtez bizi izan da Txilen, eta 2014-2017 urteetan egindako bidaiak he-

rrialdearen handitasunaz gozatzeko aukera eman dio. 4.500 kilometro ditu puntatik puntara Txilek, eta horrek kultura, paisaia eta klima aldetik kontraste handiko herrialde bilakatzen du: lakuak, desertua, geyserrak, glaziarrak, sumendiak eta hondartza ederrez gozatzeko aukera izan du.

Bigarrena: irailak 20, eguaztena

Egitasmoa *Ostegun bidaiariak* izan arren, azpimarratu behar da bigarren bidaiaren kontakizuna irailaren 20ean, eguaztenean, izango dela, Iratxe Arresek eta Jon Kortazarrek egingo dutena. Furgonetan egindako bidaia kontatuko dute, eta, Eskoriatzatik abiatuta, Dolomita, Eslovenia, Bosnia eta Kroazia arteko 1.800 kilometroko bidean ikusitakoak kontatzeko aprobetxatuko dute. "Aurreikusten ez genuen ekintza bat suertatu da, eta irailaren 21eko kontakizuna aurreratu eta eguaztenean, irailaren 20an, izango da, ordu eta leku berean", adierazi du Mari Karmen Arrietak".

Amaitzeko, Nepalera bidaia

Azken hizlaria, aldiz, Oihana Irazu izango da, eta Nepalera egin zuen bidaiaren ikusi eta gertatutakoen berri emango die gerturatzen direnei. Annapurnako kanpaleku nagusiraino motxilarekin eta gidaririk gabe egin zuen ibilbidearen nondik norakoak azalduko ditu, besteak beste.

HIZLARI BAKOITZAK NAHI DUEN MODURA EGINGO DU BIDAIAREN KONTAKIZUNA

Hiru bidaia, hiru kontakizun



'Txile, iparraldetik hegoaldera' Lau urtez izan da Iker Zugasti eskoriatzarra Txilen. Hainbat bidaia egiteko eta herrialdearen handitasunaz gozatzeko aukera izan du han. Irailaren 14an, 21:30ean, Zaldibar antzokian egingo du kontakizuna.



'Dolomitak-Eslovenia-Bosnia-Kroazia' Jon Kortazar eta Iratxe Arrese eskoriatzarrak iaz furgonetan egindakoa. 1.800 kilometroko bidaiaren, zenbait mendi eta hondartza ezagutu zituzten... Irailaren 20an, eguaztena, 21:30ean, Zaldibar antzokian.



'Nepal: Annapurnako santutegira trekkinga' 2015ean Oihana Irazuk Nepalera egindako bidaiaren kontakizuna egingo du. Gidaririk gabe eta motxila soinean, bista zirraragarriez disfrutatu zuen, besteak beste. Irailaren 28an, 21:30ean, Zaldibar antzokian.

"Ez da bidaia bakarra izan, asko izan dira"

IKER ZUGASTI
HERRITARRA

Iker Zugasti eskoriatzarrari lanerako deitu zioten Txiletik, eta lau urtez han izan da, hidrogeologo lanetan.

Nolako bidaia izan da?

Ez da bidaia bakarra izan, bidaia asko izan dira. Lau urtez bizi izan naiz han, eta bidaia asko egin ditut Txile iparraldetik hegoaldera; Iparralde mehatzaren mundua da, eta, polita izan arren, hegoaldea gehiago gustatu zait; Patagonia, bereziki.



IKER ZUGASTI

Zer iruditzen zaizu Ostegun bidaiariak ekimena?

Idea bikaina dela iruditzen zait. Ez dut inoiz halako kontakizun batean egoteko aukerarik izan, baina herritarrentzat baliagarria izan daitekeela uste dut. Batetik, leku batera joateko asmorik ez duenari, joateko gogoia pizteko; eta, bestetik, bertara bidaiaren joan nahi duenari pista batzuk emateko; zer ikusi, zer ez...



Iaz, Eskoriatzako Garagardo Azoka Solidarioan lagun taldea garagardoa edaten. I.B

Garagardo Azoka, egoitzako obretarako

Jose Arana zaharren egoitzari diruz laguntzeko Garagardo Azoka Solidarioa beste behin egingo da aurten, irailaren 21etik 24ra arte bitartean. Egoitzako hirugarren faseko lanekin laster hasiko dira, eta dirua bertara bideratuko da

Imanol Beloki ESKORIATZA

Hainbat urte dira Jose Arana Patronatuak Garagardo Azoka Solidarioa antolatzen duena; Udalak, herriko elkarteek, merkatariek eta norbanakoek bultzatuta. Jose Arana zaharren egoitza diruz laguntzeko hainbat garagardo mota, ukondoak, oilaskoak, saltxitxak... salduko dituzte aurten ere, eta eguenean, irailaren 21ean, irekiko dituzte karpako atea, 19:00 aldera.

Tonbolarik ez da egongo aurten, baina egubakoitzean kontzertua izango da –lotu barik dago– eta zapatuan, berriz, Blue Mood taldea izango da; biak, 19:30ean.

Iaz diru gutxi atera bazen ere, aurten ere egitasmoa antolatzea erabaki dute. Honela azaldu du Dorleta Sologaitzok, Jose Arana zaharren egoitzako zuzendariak: "Nahiz eta aurreko urtean ez zen ia irabazirik izan, egindako balorazioan ikusi da herrian egoitzagatik sortzen den giroak eta elkarlanak merezi duela azken

saiakera bat egitea... Galerak izan ditzaketean gaiak landu ostean, berriz ere diru kantitate dezente bat ateratzea posible dela uste dugu".

Dirua, egoitzako lanetarako

Azokan batutako dirua Jose Arana zaharren egoitzan egin beharreko lanak ordaintzeko bideratuko da. "Diputazioak erreforma batzuk egitea exijitzen zion egoitzari, egoera txarrean zegoelako, eta lan horiei ekonomikoki aurre egiteko hasi ginen azokarekin", adierazi du Sologaitzok. Egin beharreko lanak hiru fasetan banatu zituzten: lehenengo fasekoak derrigorrezkoak ziren, eta, horiek egin ostean, bigarrenekoak egin ziren –amaitu berri daude–;

**EGUBAKOITZ
ARRATSALDEAN
JOANGO DIRA
EGOILIARRAK
GARAGARDO AZOKARA**

hirugarren fasekoekin ere laster hasiko dira.

Bigarren fasean, behe-solairua guztiz aldatu dute; egongela handi bat egin dute, lorategira irteera duena, jantokia handitu, aldagelak, egoiliarrentzat bi komun, geriatriko eta familiarrentzat beste komun bat, deskantsu gela, botikina... Horrekin batera, leihoak aldatu dituzte, barruko patioa txikundu eta tolo berriak jarri dituzte.

Bigarren fase horretarako, 180.000 euro inguruko aurrekontua behar izan dute eta hirugarren fasea egiteko, berriz, 60.000 euro inguru behar izango dituzte. Azken horretan, hain zuzen, lehenengo solairua behar bezala jarriko da, logelak eta espazioak zabalduz.

Zaharren egoitzan ate irekiak

Garagardo Azokako eguen eta egubakoitzean, hau da, irailaren 21ean eta 22an, ate irekiak egingo dituzte, herritarrek obrak bisitatzeko aukera izan dezaten.



Biribilgune ondoko hesia hautsita. I.B

Gaztañadui biribilguneeko hesiak berriz agertu dira hautsita

Lau aldiz agertu dira hautsita Hotela taberna aurreko biribilgune ondoko hesiak; azkenengoa, abuztuaren 18an

I.B ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak 2015ean Mugikortasun Plana martxan jarri zuenean, lehenengo fasean izan zen lanetako bat Gaztañadui kalean, Hotela tabernaren parean, biribilgunea jartzea izan zen. Bertan hesia jarri zen, autoeskola aldera, eta ordutik hona, lau aldiz aldatu behar izan dute, hautsita agertu delako; azkenengoz, abuztuaren 18an.

Bertatik autoak pasatzeko lekua egon arren, tamaina handiko ibilgailuak pasatzean hainbat aldiz jo dute errepide eta espaloi arteko hesia, eta Udalak

arduratu behar izan du konponketa gastuez.

Gaia mahai gainean

Udalak gaiari helduko diola adierazi du, eta irtenbide bat bilatu beharko dela. Honela azaldu du Joserra Zubizarreta alkateak: "Hesiak hautsita agertu diren azkenengo aldia oportetan izan da, eta oraindik ez dugu ezer pentsatu. Zementuzko hesia jartzea aukera bat litzateke; hala, autobusek, biribilgunean buelta emateko orduan kalteak sortzen badituzte, beraiek izan dezaten erantzukizuna".

Irailaren 24an ospatuko da erretiratuen omenaldia

Izena emateko epea zabalik dago, eta erretiratuen bulegoan sei euro ordaindu beharko dira

I.B ESKORIATZA

65 urtetik gorako erretiratuei urtero egiten zaie omenaldia Eskoriatzan. Hala, aurten ere ez du hutsik egingo Udalak eta Olazar Jubilatutako Elkarteak antolatutako ospakizun jaiak.

Irailaren 24an izango da, eta, urteroko egitarauari jarraituz, hainbat ekintza prestatu dituzte egunerako. Bazkarira joan nahi duenarentzat izen-ematea zabalik dago, eta, horretarako, sei euro ordaindu beharko dituzte erretiratuek. 11:00etatik 12:30era bitartean eta egun haue-

tan eman beharko da izena: irailaren 7an, 12an, 14an eta 19an, erretiratuen bulegoan.

Urteroko egitaraua

Irailaren 24ko erretiratuen omenaldia 11:00etan hartutako saldarekin hasiko dute, eta ondoren, 12:30ean, mezara joango dira. Meza amaitzean, berriz, 14:00etan, bazkaria izango dute Joseba Iñurrategi pilotalekuan, eta bazkalostean, dantza izango dute, eta opari banaketa Eskoriatzako hainbat udal ordezkariaren partetik.

Jolas-parke berria egin dute Apotzaga auzoan

3 urtetik aurrerako haurrei zuzenduta dagoen haur-parkeko lanak abuztuan egin dituzte. Eliza pareko parkea egoera txarrean zegoen, eta, konpondu beharrean, berria jartzea erabaki du Udalak, konponketa lanak garestiagoak zirelako

Imanol Beloki ESKORIAMATZA

Apotzaga elizatean jolas-parke berria estreinatu dute abuztuan. Orain arte, urte askoan egon da jolas-parkea, eliza parean, baina ez zegoen egoera onean, eta, eraberritze lanak egin beharrean, berria egin dute, bi arrazoiengatik: batetik, konpondu arren, gaur egun indarrean dauden haur-jolas guneko baldintzak ez zituelako beteko, eta, bestetik, konponketa egitea garestiago irriten zelako. Horrenbestez, berria jarrita, prest dago jolas-parkea txikienen gozamenarako.



Apotzagako jolas-parkea. IMANOL BELOKI

Ekipamendu ugari

Eliza pareko zuhaizpean dagoen haurrendako parkea egurrezkoa da, eta kolore biziz margotu dute: bi dorretxo, alde batetik bestera pasatzeko sareko pasabidea, txirrista, kulunka, eta kolpeen aurka segurtasuna bermatzen duen zoru berria jarri dute. Azken honetan, gainera,

tokean aritzeko jolasa margotuta jarri dute. Bertan dauden jolas guztiak 3 urtetik aurrerako haurrei zuzendutakoak dira, eta dagoeneko erabilgarri dago auzotarrentzat edo bertara doan edozeinentzat.

9.000 euroko kostua

Abuztuan zehar egin dituzten lanak egiteaz material jasangarrien aldeko apustua egiten duen Nafarroako Mader Play enpresa arduratu da, eta, guztira, 9.000 euroko kostua izan dute jokoek eta lur berria jartzeak.

'Partekatzeak urrunago eramaten zaitu' lelopean

Berrikuntzekin datozen Eskoriatzako Mugikortasun Asteko ekintzak irailaren 17an hasiko dituzte

I.B ESKORIAMATZA

Mugikortasun Asteari irailaren 17an ekingo diote Eskoriatzan eta hilaren amaiera bitartean hainbat ekintza egingo dituzte.

Udaleko Gazteria eta Ingurumen sailek, Huhezi Unibertsitateak eta ikastetxeek antolatutako ekimenaren aurtengo leloa *Partekatzeak urrunago eramaten zaitu* da, eta lelo horren bueltako ekintzak egingo dira herrian. Lehenengo ekintza bizikleta martxa izango da, hilaren 17an, 10:00etan, Fernando Eskoriatza plazatik abiatuta;



Haurrak, nagusiekin. ESKORIAMATZAKO UDALA

Urkulurako bidea egingo dute. Hamarretakoa Torrebason izango da, eta bertatik berriz bueltatuko dira plazara. Bigarren ekintzan, bi aktore etorriko dira Eskoriatzara, eta herritarrek zirikatuko dituzte, leloaren mezua zabalduz. Irailaren 22an, aldiz, goitibeherak egiteko tailerra izango da, 16:30ean, plazan, eta, amaitzeko, hilaren 30ean, Apotzagako goitibehera jaitsiera jokatuko da.

Egitarauan ez dauden ekintzak

Edozelan ere, oraindik antolatu gabeko ekintzak ere egingo dituztela adierazi dute antolatzaileek. Azken urteetan, esaterako, egoiliarak atera izan dituzte paseoa ikastetxetako haurrek, eta aurten ere halako ekintza ugari egingo dituztela adierazi dute.



Jaien aurretik, bolo txapelketarako gazte taldea praktikatzen. I.B

Andramaixetan murgilduta daude dagoeneko gatzagarriak

Atzo hasi zituzten jaiak, eta domekara arte adin guztietako jendeari zuzendutako ekintzak izango dituzte

Imanol Beloki ESKORIAMATZA

Atzo arratsaldean hasi zituzten Leintz Gatzagako Andramaixak, eta domekara arte hainbat ekintzarekin disfrutatuko dute gatzagarriek zein bertara gerturatzeko direnek.

Egitaraua jende guztiarengan pentsatuta prestatu dutela adierazi du Joannes Mendizabalek, Kultura zinegotziak: "Adin ezberdinetako jendeari zuzendutako ekintzak antolatu ditugu. Jaiak atzo hasi genituen, urteroko egitarauari jarraituz; edozelan ere, gaurko eguna egun berezia izango da, Otxandiokoak datozelako. Goizean, eskolako 100 haur inguru etorriko dira, eta kuadrilla bat oinez ere etorriko da menditik bueltan, urtero moduan. Egubakoitza ez da jaieguna, baina ahal duenari frontoira gerturatzeko eskatzen diogu, denok elkarrekin bazkaltzeko..."

Arratsaldean, gaztetxoendako apar festa eta buruhandiak izango dira, bolo txapelketa jokatuko da eta rock kontzertuak ere izango dira. Zapatu arratsaldean, berriz, kintoen arteko jokoak izango dira, eta, herri afariaren ostean, Akerbeltz erromeria izango da. Domekan, azken egunean, aldiz, kirol ekintzak izango dira nagusi, besteak beste.

Gaztetxoak bolotan

Gaur, 21:00etan, bolo txapelketa jokatuko da, eta, bere garaian izaten zuen arrakasta mantendu eta gaur egungoa areagotzeko asmoz, egunotan hainbat gazte batu dira bertan, bolo-jokoa praktikatzeko. Gaztetxoak bakarrik ez; esaterako, Juan Mari Makazaga *Pequeño* ere bertan izan da gaztetxoenei hainbat truko irakasten eta, bide batez, pixka bat praktikatzen.

Ehiza postuetarako hirugarren enkantea zabalik

Irailaren 20ra arte dago zabalik ehiza postuen hirugarren enkanterako proposamenak aurkezteko epea, orduetegi honetan; 09:00etatik 14:00etara bitartean Leintz Gatzagako udaletxean entregatu beharko da beharrezko dokumentazioa –Gatzagako udal webgunean ikusgai–.

Ehiza postuen bigarren enkanteratik, bederatzi uso-postu

eta oilagorretarako sei txartel geratu dira esleitu barik, eta interesa dutenek aukera daukate horiek lortzeko aurreko enkanterako prezio berean, %10eko deskontuarekin.

Hala, hirugarren eta laugarren kategorietako ehiza postuak geratu dira banatu gabe, eta eskaintza onena egiten duenak lortu ahal izango ditu. Kontratu, berriz, lau urterako eskuratu ahal izango dute interesdunek, eta horiek hogeitun urtera arte luza daitezke.



Mutikoak pilotan jokoan. ARAMAIO PELOTA ELKARTEA

Martxan da San Martin Pilota Txapelketa

Pasa den asteburuan eman zitzaion hasiera Araba mailako pilotari gaztetxoek batzen dituen txapelketa horren laugarren edizioari; 98 pilotari ariko dira guztira eta finalak San Martin egunean bertan jokatuko dira –azaroak 11–, herriko frontoian

Eneko Azurmendi ARAMAIO

Arabako pilota eskola desberdinetako 98 pilotari arituko dira lehia dagoeneko abian den San Martin Pilota Txapelketan, eta guztira 120 partidu jokatuko dituzte. Lau kategoriatan ezberdin izango dira, benjaminak, kimuak, infantilak eta kadeteak, eta kategoriatan bakoitzean bi maila izango dira: A maila eta B maila, pilotarien mailaren arabera: "Suposatzen da A mailan dauden kategoriatan onenak direla", azaldu du Josu Olaizolak, Aramaio Pelota Elkartearen kidea.

Laugarren edizioa du Aramaio Pelota Elkarteak antolatzen duen txapelketa horrek. Ohi bezala, ligaxka formatua izango du, eta, bi hilabete eta erdiz, astebururo hamaika partidu izango dira Aramaio pilotalekuan. "Normalean, egubakoitzetan lau partidu izango dira eta domeketan zazpi. Baina asteburuaren eta pilotarien arabera, aldatu egin daiteke hori", azpimarratu du Olaizolak.

Hala, egubakoitzetan 18:00etatik 20:00etara bitartean izango dira partiduak eta domeketan, 10:00etatik 14:00etara.

Lau kategorietako finalak azaroaren 11n, San Martin egunean bertan, izango dira, arratsalde guztira zortzi partidu, kategoriatan bakoitzean bi maila daudela kontuan hartuta.

Gazteei aukera

Txapelketaren helburuak orain arteko bera jarraitzen du izaten aurtengoan ere: pilotari gazteei jokatzeko aukera ematea, alegia. "Helburu nagusia da pilotari gaztetxoek aukera izatea zuriz jantzeko eta pilotalekuan partiduak jokatzeko. Izan ere, entrenatu egiten dira, baina ez

98 PILOTARI ARIKO DIRA LEHIAN TXAPELKETA, ETA GUZTIRA 120 PARTIDU JOKATUKO DIRA

dute aukera handirik izaten partiduak jokatzeko", adierazi du Olaizolak. Horrez gain, beste helburu nagusi bat da Araba mailan dauden pilota talde ezberdinen arteko harremanak sustatzea eta sendotzea. Hala ere, Olaizolak nabarmendu du alde horretatik ez dagoela arazorik, harremanak "oso onak" direlako.

Herriko 21 pilotari

Olaizolak jakinarazi duenez, 21 pilotari aramaioar ariko dira aurtengo edizioan. "Kategoria guztietan dago Aramaio ordezkariren bat, baina gehienak pilotariak dira; hau da, benjamin mailakoak".

Asteburu honetan herriko bi bikotek izango dute partidua, eta biek ala biek Lakuako bikoteak izango dituzte aurkari. Batetik, kadete B mailan, Arriola-bengoak eta Riok egubakoitzetan jokatu dute, eta, bestetik, kadete A mailan, Axpek eta Olaizolak domekan.

Udalak "zorrotz" salatu du bide bazterrean zaborra utzi izana

Pasa den astean, Jarindorako bidea oinetako, arropa eta bestelako traste zaharrez beteta agertu zen

E.A. ARAMAIO

Pasa den astean, hainbat traste antzeman zituen Udalak Jarindorako bidean, herritar batzuen salaketa eta informazioa aintzat hartuta. Oinetakoak, arropak, kaxak, poltsak eta bestelakoak zeuden egon behar ez liratekeen lekuan botata.

Gertaera horren aurrean, Udalak adierazi du erabat gaitzesten dituela horrelako jarrerak, eta "zorrotz" salatu ditu. Era berean, herritarrei jakinarazi nahi izan die badaudela leku eta egun zehatzak horrelako zaborrak botatzeko.

Herritarrei ohartarazi die ingurumena zaintzea eta gainontzeko herritarrekiko errespetua izatea garrantzitsua dela elkarbizitza osasuntsu eta ona izateko: "Beharrezkoa da guztiok kontzientzia izatea, ez dadin horrelakorik berriro gertatu".



Trasteak, lurrean. ARAMAIOKO UDALA

Salatzaileei eskerrak

Azkenik, Udalak eskerrak eman nahi izan dizkie gertaera hori salatu eta horren berri eman duten herritarrei: "Guztion begiak eta kontzientzia beharrezkoak direlako komunitate ikuspegitik".

Arbel kooperatibak langile euskaldun bat behar du

Administrari lanak egingo dituen pertsona euskaldun baten bila dabil Arbel kooperatiba. Interesatuta dagoenak curriculum eraman beharko du Errotabarri 1 helbidera edota arbel@arbel.eus helbidera bidali, irailaren 10a baino lehen. Harremanetarako eta informazio gehiagorako zenbakia ondorengoa da: 688 69 57 63 (Irati).

Rallysprinteko ibilbidearen azterketa egiteko, hiru egun

Irailaren 16an izango da Aramaio Rallysprinta, eta bertan parte hartuko duten pilotuek ibilbidearen nondik norakoak aztertu eta hura probatzeko aukera izango dute irailaren 9an, 10ean eta 15ean, 09:00etatik 19:00etara. Hala ere, ohartarazi dute zirkulazio araudia bete beharko dutela egun eta ordu horietan, edozein autok bezala.

Santander hiria bisitatzeko irteera, irailaren 14an

Alaiak Jubilatuen Elkarteak antolatu du bidaiaria. Autobusa 08:00etan aterako da, geltokitik. Han, hiria ikusteko bisita gidatua jaso ostean, Balneario Concha jatetxean bazkalduko dute. Ondoren, 18:30ean izango da itzulerako autobusa. Interesatuek 40 euro ordaindu beharko dute Laboral Kutxako kontuan, irailaren 12a baino lehen.

Gorbeialdeko Argazki Lehiaketa, urriaren 18ra arte zabalik

Gorbeialdeko Kuadrillan aterako argazki bat izan beharko da –ingurumena, eraikinak, pertsonak, ekitaldi kulturalak...– eta lehiakide bakoitzak hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu, gehienez, JPG formatuan. Lehen saria 200 euro izango da, bigarrena 150 euro eta hirugarrena 100 euro. Informazio gehiago, Udalaren webgunean.

Erdisoto berriarekin ekin diote ikasturte berriari

2017-2018 ikasturtea hastearekin batera, erdisoto berria ere izango dute; izan ere, bi hilabeteko lanen ostean, bukatu dituzte egokitzapen lanak eta ludoteka lekuz aldatu dute, hezetan arazoak ekiditeaz gain, argitasun handiagoa izan dezan

Eneko Azurmendi ARAMAIO

Azken xehetasunak bakarrik falta dira San Martin eskolako erdisoto berria erabilgarri egon dadin. Uda honetan, ludoteka aurrealdera pasatu da eta atzean bi biltegi egin dira, eskolaz kanpoko ekintzetarako erabiltzen den materiala batzeko. Horretarako, gimnasiotik biltegi eta ludotekara joateko sarbidea edo pasilloa lekuz aldatu da. Bestalde, komuna egokitu egin dute. Lehen, komun bakarra zegoen eta orain, dutxa zaharra kenduta, bi komun egin dituzte. Azkenik, gimnasioan ere egitura aldatu da batzuk egin dira. Rokodromo, adibidez, lekuz aldatu da, eta, esan bezala, sarrera ere aldatu da lekuz.

Eli Izagirrek, eskolako zuzendariak, adierazi du lekua hobeto aprobetxatuta dagoela, eta erabilgarriago dagoela erdisotoa: "Eskolarentzako hobekuntza handia izan da. Espazioa handitu egin da eta argitasun aldeak ere hobeto dago. Ludoteka, adibidez, oso ondo geratu da".

125 ikasle

Ikasturte hasierari dagokionez, ikasle kopuruan ez da aldaketa handirik egon, ia zokorekin alderatuta. Aurten, 125 ikasle matriculatu dira -59 neska eta 66 mutil-. Irakasleei eta zuzendaritzari dagokienez ere aldaketa handirik ez dela egon azaldu du Izagirrek. "Irakasle kopuru finkoa mantentzen da eta irakasle berri bat ere izango dugu. Zuzendaritza taldea ere egonkorra da", dio. Zuzendaritza talde honen laugarren ikasturtea izango da aurtengoa.

Astebetean, goizez bakarrik

Esan bezala, atzo hasi zuten ikasturtea ikasleek, eta, astebetean, goizez bakarrik izango dituzte eskolak -irailaren 13ra bitartean-, 09:00etatik 13:00etara. Orditik aurrera, berriaz, goiz



Ludoteka lekuz aldatu dute, argitasun handiagoa izan dezan. **ENEKO AZURMENDI**

AZKEN XEHETASUNAK BAKARRIK FALTA DIRA ERDISOTO BERRIA ERABILGARRI EGON DADIN

eta arratsaldean, hau da, 09:00etatik 12:00etara eta 14:00etatik 16:00etara.

Metodologian, hausnarketa

Bai Haur Hezkuntzan, bai Lehen Hezkuntzan, proiektuen bidez jarraituko du lanean San Martin eskolak. Baina bada berrikuntza bat Haur Hezkuntzako metodologian. Izan ere, hausnarketa prozesuan daude irakasleak, berrikuntzak egin guran. Gero, formazioa jasotzea eta proiektua martxan jartzea da eskolaren helburua.

Askotariko ekintzak

Ikasturtean zehar hainbat ekintza eta irteera egingo dituzte, ohi bezala: barnetegiara irteerak -batzuk urrian eta beste batzuk apirilean-; Jolaspiadak martxoan Elkarbizitza Batzordean; irakurketa dialogikoak;

125 IKASLE DAUDE MATRIKULATUTA 2017-2018 IKASTURTEAN, 59 NESKA ETA 66 MUTIL

Inauteriak; San Martin bezperako festa -Guraso Elkartekoek gaztainak erretzen dituzte, irakasleek txirula jotzen dute, bertsoak eta abestiak ere egoten dira eta, azkenik, erretako gaztainak jaten dituzte-; eta, nola ez, ikasturte amaierako eskolako jaia, ekainaren hasieran.

Mindfulness ikastaroa

Bukatzeko, aipatu behar da irakasleek mindfulness ikastaroa jasoko dutela aurtengo ikasturtean ere. Ikastaro horren helburua da elkarbizitza hobetzea, lasaitze eta kontzentrazio ariketa batzuekin. "Momentua presente izateko laguntza bat da, momentuan egiten ari garen ekintzan edo jardueran arreta mantentzen laguntzen du. Horretaz gain, erlaxatzeko teknika batzuk ere ematen dizkigute", zehaztu du eskolako zuzendariak.



IMANOL SORIANO

Jolasak protagonista

Eguraldiak lagunduta, behar den moduan ospatu ahal izan zuten pasa den domekan Marixeka Eguna.

Meza, jolasak, kantak... baselizara gerturatu zirenek ez zuten aspertzeko tarterik izan. Hala ere, gaztetxoak izan ziren gehien dibertitu zirenak, puzgarriekin eta beste hainbat jolasekin.

Andra Mari jaiak ospatuko dituzte asteburuan

Batetik, Eguzkierripa auzoko jaiak direla eta, bertso afaria egingo dute bihar, zapatua, 21:00etan, auzoan bertan. Xabi Igoa herritarra esperientzia handia duten bi bertsoariarekin ariko da bertsoan: Sebastian Lizasorekin eta Iñaki Muruarekin, hain zuzen.

Ibabeko Andra Mari Kofradiak ohiko ospakizunak egingo ditu domekan, hilaren 10ean. Lehenik, ohikoa den moduan, 12:30ean meza izango da ermitan eta ondoren, ohiko batzar nagusia egingo dute. Bertan, lehendakaritza eta zuzendaritza batzordea berriztatuko dituzte, botazio bitartez. Amaitzeko, bazkaria egingo dute.

Twin Room bikotea gaur, egubakoitza, 19:30ean, Sastiñan

Sonia Vera abeslariak eta Josu Jungitu piano-joleak osatzen dute 30eko eta 40eko hamarkadetakoa swing doinuak jorratzen dituen bikotea. "Abesti zaharren bertsoak jotzen ditugu, pelikula ezagunen soinu bandak. Horrez gain, Frank Sinatra edota Nina Simone bezalako abeslarien kantak ere jotzen ditugu", azaldu du Jungituk.

Aitor Arana mendi martxa egingo dute irailaren 23an

Azken urteetan urtero egin ohi duten moduan, Aitor Arana zeneren omenezko mendi martxa egingo dute aurten ere, Orixol Mendi Elkarteak antolatuta.

Irailaren 23an izango da hori. 08:00etan izango da irteera eta izen-emateak bost euro balioko du. Horretarako aukera kiroldegian egongo da, ordu erdi lehenago hasita.

24 kilometroko ibilbidea izango da: Ibarra hasi eta Lurgorrrira. Handik Tellamendira igo eta ondoren Zabalanditik pasatu ostean, Orixolera. Handik Marixekara jaitsi eta Kruzetatik, berriro ere Ibarra; ibilbidea han amaituko da. Bost ordu inguruko ibilbidea da.

Mantentze gimnasia egiteko izen-ematea irekita dago

Irailaren 18an hasiko dituzte hirugarren adinekoendako mantentze gimnasia saioak eta dagoeneko izen-ematea zabalik dago. Interesatuak udaletxean eman beharko dute izena, hasiera eguna baino lehen.

Saioak astelehenetan eta eguaztenetan izango dira, 10:45etik 11:45era bitartean, Aramaioko kiroldegian.

Jokin Bereziartua BERGARA

Bi asteburu hartuko dituzte aurten San Martin jaiek. Lehen asteburuko egun kutuna bihar-koa izango da, feria handiaren eguna. "Aurten, bigarren urtez, Oxirondon jarriko da azoka [10:00etan irekiko da]; han izango dira barazki eta fruta postuak, baita bestelako askotariko postu batzuk ere. Katabixan, aldiz, gazta lehiaketa egingo da, talo eta odoloste postuak izango dira, eta herriko komertzio batzuek ere postuak jarriko dituzte", azaldu du Kultura teknikari Edurne Kortak. Talo eta odoloste postuen zozketan, aurten Harrera eta Jardun euskara elkar-teak izan dira zortedunak. Harrera elkar-teak taloen postua jarriko du eta bigarrenak, berriz, odolosteena.

Barazki, fruta eta gazta lehiaketak

Biharko azoka bereziak utziko dituen zifra batzuk eman ditu aditzera Udalak: gazta lehiaketan 21 ekoizlek hartuko dute parte, eta barazkien eta fruten lehiaketan 15 ekoizlek eman dute izena. Sarietako dagokionez, barazki, fruta eta gazta lehiaketetako lehen hiru irabazleei 500 euro eta garaikurra emango zaie, bigarrenei 450 euro eta hirugarrenei 400 euro. Guztira bederatzi sari banatuko dira, lehiaketa bakoitzeko hiru.

Horrez gain, eta iazko arrakasta ikusita, erle eta ezti erakusketa ere jarriko dute aurten Katabixan.

Aukeran-en 'Maurizia' bihar

Azokaz harago izango diren biharko ekitaldien artean, Aukeran dantza taldearen *Maurizia* emanaldia izango da Udal Pilotalekuan arratsaldeko zortzi eta erdietan: "Aipamen be-

Ohi baino luzeagoak eta parte hartzaileagoak

Gaur hasi eta irailaren 17ra arte izango da aurten sanmartinetako egitaraua; bihar azoka handia Oxirondo inguruan eta irailaren 15ean irtengo da inoizko parte hartzerik handiena izango duen helduen danborrada, 19 talde eta 560 danbor-jotzailerekin



laz lehen aldiz Oxirondo inguruan egin zen azoka handia; aurten ere leku berean jarriko dute. IMANOL SORIANO



Edurne Korta eta Maite Agirre eguazteneko aurkezpenean. AMAIA TXINTXURRETA

rezia egin gura diogu *Maurizia* dantza emanaldiari. Bergarako Edu Muruamendiarazek zuzendutako Aukeran dantza taldea da sortzailea eta aurten taldeak 20 urte beteko ditu; urteurren berezi hori bergararrekin ospatu nahi izan dugu". Emanaldi horren gaineko xehetasun gehiago, 27. orrian.

Dantzarekin jarraituz, klasiko bat izan ohi den Moises Aspiazuren omenez Bergarako Musika Eskolak antolatzen duen bikote nagusiendako dantza solte txapelketarik ez da faltako

aurten ere. Hori bai, azoka bezperan egiten zen txapelketa, baina, domeketan jende gehiago egongo dela aurreikusita, aurten domekara pasatzea erabaki dute. Etzi izango da, Udal Pilotalekuan (12:00). Parte hartuko duten bederatzi bikoteen artean Bergarako bakarra dago: Julen Murgiondok eta Saioa Galarragak osatzen dutena, hain justu.

Domekan, Kultura Kalera ekimenaren baitan, Oñatiko Ganbara abesbatzaren kontzertua izango da Mariaren Lagundiko elizan (19:00).

Danborradak, errekorra aurten

Lehen asteburuaren ostean, hilaren 15a, 16a eta 17a bete-beteta datoz. Hilaren 15ean, San Martin bezperan, nagusien danborrada aterako da. Sekulako indarra hartu ostean, aurten errekor guztiak hautsiko dira parte-hartzeari dagokionez: 19 taldek eman dute izena eta 560 danbor jotzaile arituko dira, inoizko kopururik handiena. "Entseguak hasi dira eta jai giroa zabalduz doa herrian. Danborradarekin lotuta, Udaletik nabarmendu nahi dugu bertako eragileekin landutako partaide-tza prozesua danborradaren arautegia idazteko; udal webgunean dago zintzilikatuta. Aurtengo parte hartzearekin oso pozik gaude", adierazi du jaietako zinegotzi Maite Agirrek. 22:30ean irtengo da Udal Liburutegitik; eguraldi txarra egiten badu San Martin plazatik behin bakarrik pasatuko da, bestela birritan. Hori bai, euria eginez gero parte-hartzaileei pontxo batzuk banatuko dizkie Udalak.

Ondoren, 23:30ean, San Martin Agirrerren heriotzaren errepresentazioa hasiko da musika bandaren laguntzarekin. Umeen



NIRE USTEZ

ANDRES OSA 'SAKONA'

Euskararen erabilera ahula

Urte asko igaro dira euskararen ofizialtasuna martxan jarri zela. Kalean euskararen erabilera moteltzen ari da. Ikasi gehiago ikasten da, baina erabilera atzerantz doa. Laburbilduta, bi esparrutan jarriko dugu arreta: hezkuntza eremuan eta administrazioan orokorrean. Gauza bat da euskara ikastea eta beste bat erabiltzea eta kalean islatzea.

Ikastetxean, euskararen erabilera bermatu behar da. Horretarako, ekintza osagarriak behar dira. Kanpainak egin ikastetxeko langile guztien partaidetzarekin. Ikasleen artean euskaraz mintzatu ikastetxetik at ere islatu dadin. Solasalditan irakasleak ikasleekin parte hartuz jolas guztietan, aditz eta esaera zaharren lehiaketak

eginaz; hitzaldiak, idazlanak, entrebistak, eta abar, eta abar. Ezinezkoa ez da, lorpen bikainak izan dira. Bigarren puntua, bi hitzetan, administrazioari dagokio; funtzionarioak euskaldunak izatea. Bada garaia. Oposizioak euskararen baldintzapean egitea. Administrazioaren atal guztietan, bereziki, jendaurrean lana egin behar dutenek, euskaraz!

Izen-ematea zabalik 1942an eta 1948an jaiotako bazkarian

1942koak urriaren 7an Baztanera joango dira. Izena eman behar da irailaren 30a baino lehen 50 euroko ordainduta kontu zenbaki honetan: 3035 0009 10 0091151403. Bestalde, 1948koek Albaola faktoria bisitatuko dute irailaren 30ean. Izena emateko 60 euro ordaindu behar da Laboral Kutxan propio ireki duten kontuan, hilaren 23a baino lehen.

danborradarako –irailaren 16an, 18:30ean– entseguak ere hasita daude dagoeneko.

Aritzeta abesbatzak 30 urte

Aurtengo danborrada oso berezia izango da Aritzeta abesbatzarendako; izan ere, Aritzeta duela 30 urte jo zuen lehen aldiz San Martin jaietako danborradan. Ordura arte danborradan soilik "gizonez osaturiko konpainiak" zeuden, eta Aritzeta orduan egin zuen talde mistorako aldaketa. Aritzeta abesbatzako kideak emakumezkoak eta gizonezkoak izanik, danborradan parte hartzea erabaki zuten aldaketa horren ostean. "Aritzeta parte hartzearekin danborradaren beste aro bat hasi zen eta ondorioz beste talde misto askok parte hartzeko aukera izan dute", diote. Urteurren berezia ospatzeko, Alfredo Gonzalez Chirlaquek konposaturako martxa joko dute eta urte hauean guztietan Aritzeta kide izan direnak gonbidatu dituzte danborradan parte hartzera. Arrazoia, honako hau: "Guztiok lagundu izan dugulako daukagun danborrada mantentzera".

Emakume pilotariak hilaren 17an

Emakumezkoen pilota partiduek ere izango dute tokia aurten, Bergara Pilota Elkarateak antolatuta. Jaietako azken egunean, kadete eta nagusi mailetako pilota partidua eta gazte mailako pala partidua jokatu dira; Udala Pilotalekuan, 18:30ean.



San Martin jaietako egitaraua ikusteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.



Kuadrilla bat iazko sanmartinetan, lehen aldiz Muniben jarri zen txosnan. GOIENA

Munibeko "gune askeko" eskaintza

Xaxau jai herrikoien konpartsaren egutegian gorritz markatuta ageri dira San Martin jaiak. Iaz lehen aldiz jarri zuten txosnagunea Muniben eta ondo funtzionatu zuen. "Lau egun jarraian izan ziren iaz, eta jende mordo ibili zen. Aurten ere halako zerbait espero dugu", adierazi du Xaxauko Maddi Aspiatzuk. Aurten, hilaren 9an, 15ean eta 16an egongo da zabalik Munibeko "gune askea", baina kartzela zaharrak ere hartuko ditu egitarau herrikoiko zenbait ekintza; Egubakoitzak Kartzelan gaur –ikus 27. orria– eta *Adarretatik zintziik* antzezlan hilaren 14an, kasu.

Herriko beste eragile batzuekin elkartu eta "ahalik eta egitaraurik anitzena eta osatuena" antolatzen saiatu dira aurten ere Xaxaukoak: "Herriko jai nagusiak amaitu eta gutxira hasi ginen elkartzen eta oporren ostean berriro heldu diogu. Herrian leku bat egin dugu, uste dugu gero eta jende gehiago identifikatzen dela Xaxauren proiektuarekin. Beste mota bateko jaiak posible dira herrian, denon arteko elkarlanetik gauza interesgarriak irteten dira". Udalaren "laguntza logistikoa" izan arren, egitarauaren "antolakuntza guztiaz" Xaxau konpartsa arduratu da.

Bertako produktuen bazkarirako plaza mugatuak

Ekintzen artean, biharko feriatik eskuratutako produktuekin egingo den herri bazkaria nabarmendu du Aspiatzuk; Muniben bazkaltzeko txartelak Ganbaran eta Arranon erosi ahaliko dira zazpi eurotan, baina bihar bertan ere egongo da aukera izena emateko. Hori bai, plazak mugatuak dira. Bazkaldu ostean bingoa eta Big Time DJa izango dira eta gauean Pelax eta Telmo Trenor-en eta Kuartz-en kontzertuak (22:00) eta bikote jolasa (02:00) izango dira. Hilaren 15ean, berriz, txosnak 19:00etan irekiko dituzte eta 01:00etan sasi DJen txapelketa hasiko da. Amaitzeko, hilaren 16an, Oki Moki, Tacumah eta Los Perros de Pavlov taldeen kontzertuak izango dira (22:30).

"Akordioarekin, herriko beharrei hobeto erantzungo diegu"

GORKA ARTOLA EH BILDUKO ZINEGOTZIA

Abendura arte, egun erdiz arituko da Udalean lanean

J.B. BERGARA

Joan den egueneko osoko bilkuran, Bergarako udalbatzak Gorka Artola EH Bilduko zinegotziari Udalean aritzeko %50eko jarduna aitortu zion. Udalbatzak aho batez onartu zuen EH Bilduren eskaera gai horretarako propio deitutako ezohiko bilkuran. Eskaera oinarritzen da Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 legeko 33. artikuluan, iaz PPK onartutako legean, hain justu. Artolaren urteko soldata gordina 15.688 euro izango da, eta irailaren 1a ezkerro dauka Artolak Udalean aritzeko %50eko dedikazioa. Abendura bitartean jardun erdiarekin nahikoa dela ikusten badute, horrela jarraituko lukete; hala ere, gobernuak zein EH Bilduk jardun osoan aritzeko aukera zabalik utzi dute. Bestalde, gaur beste ezohiko osoko bilkura bat egingo da (19:30); Boluko pilotalekua estaltzearen gaineko auzo-galdeketa loteslea gauzatzeko proposamena da zerrendako gai bakarra.

Pozik zaudete Udala Gobernuarekin heldu zareten akordioa dela-eta?

Bai; komenigarri eta beharrezko ikusten genuen. Beharra ikusten genuen herrian garrantzitsuak diren gaiei jarraipena egiteko ordu batzuetako dedikazioa aitortzea. Akordioarekin, uste dugu hobeto erantzun ahal izango diola EH Bilduren udal taldeak herriko beharrei. Horrez gain, herritarrekin kontaktua izateko eta Udaleko informazioa



Artola, osoko bilkuren aretoan. J.B.

jaso eta teknikariekin harremana izateko baliatuko dugu, bereziki, liberazioa.

Zertan datza akordioa?

Oraingoz, jardun erdiko dedikazioa aitortuko zait, abendura bitartean. Ikusten badugu horrekin nahikoa dela eta egin behar guztietara heltzen garela, horrela mantenduko genuke. Ostera, ikusten baldin badugu nahiko justu nabilela, zabalik utzi dugu aukera abendutik aurrera jardun osora pasatzeko.

Arlo pertsonalean, aldaketa handia ekarriko du zure bizitzan?

Bai, seguru. Etapa berri bat da niretako, zalantza barik. Irakasle moduan jarraituko dut eta Udaleko lanarekin hasiko naiz, biak bateratu beharko ditut. Bere zailtasunak izango ditu, baina uste dut moldatuko naitzela. Esperantza horrekin hasiko gara, behintzat.

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
Horma-Armairuak
Altzariak neurrira
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

*Ondo pasau
Sanmartinetan!*

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com



Igeriketa elkarteak entrenatzaile berria du

Xabier Labaka bergararra dagoeneko lanean hasia da Mikel Mujikari erreleboa hartzeko. Entrenatzaile berriak dio Mujikak hasitako dinamika onari jarraipena ematen ahalegintzea izango dela denboraldi honetarako asmo nagusia

Maite Txintxurreta BERGARA

Bergarako Igeriketa Elkartearen entrenatzaile berria izango dute denboraldi honetan, Xabier Labakak (Bergara, 1994) hartuko baitio erreleboa Mikel Mujikari.

Ez da hutsetik hasiko; izan ere, iaz entrenatzaile laguntzaile lanetan aritu zen. Orain, Mujika eta biok arituko dira urri bitartean, trantsizioa egiteko. "Asmoa da ardura honi eskua hartzen joatea", dio. Labakak Gorputz Hezkuntzako Irakasle ikasketak egin ditu, eta umetatik dabil igeriketan.

Dinamika onari segida

Proposamena nola hartu duen galdetuta, zera dio: "Hasieran, zalantzak izan nituen; izan ere, ardura handia da. Ez gabiltza igeriketa ikastarora datozen umeek, igerilari hauek emaitza batzuen bila ere badoaz". Azkenean, baiezkua eman zuen, eta azpimarratu du bere nahia Mujikak egindako lanari "segida



Labaka, Agorrosingo igerileku estalian. M.T.

ematea" dela: "Hemen gertatu zena da Amaia Andueza entrenatzailea joatean, lau bat urteko hutsunea egon dela. Orduan, progresioa galdu genuen. Orain, Mikelekin pixkanaka hasi gara berririo emaitza onak lortzen,

eta nire nahia da bide horretatik jarraitzea". Horretarako, bere lana "ahalik eta hobekien" egiten ahaleginduko dela dio: "Nik ere oraindik ikasteko asko daukat, nahiz eta txikitatik jardun igeriketan. Entrenamendu mota aldetik, adibidez, metodo asko daude. Nire ustez, baina, oso garrantzitsua da entrenatzaile batendako igeriketa mundua ezagutzea, horrela, igerilarien tokian jartzen baitzara".

Hilabete eta erdi barru izango dute lehen lehia, eta ondoren, hiruzpalau astean behin: "Epe motzera, lehenengo helburua Gipuzkoako Kopa izango da, azaro erdialdean. Eta gero, Gipuzkoako eta Euskadiko neguko txapelketak."

8 urtetik aurrerako igerilarietara lan egingo du: "Txikiekin gehienbat da oinarria egitea eta teknika hartzen joatea. Nagusiekin, emaitzak lortzea izan ohi da helburua, eta nork bere markak hobetzea".

"Gipuzkoako 2. eta 3. mailetan talde bana izango dugu"

MIKEL BARKERO XAKE TALDEKO KIDEA

Xake taldeak ateak zabalik izango ditu eguenero

M.T. BERGARA

Duela hiru urte Bergarako Xake Elkartearen barruan sortu zen taldeko kide da Mikel Barkero.

Nola hasi zen zuen xake taldea?

Duela hiru urte proiektu bat abiatu genuen, eta lehen egunetik modu asanbleario baten aldeko apustua egin dugu. Lehenengo bileran lau batu ginen, eta ekipo bat sortzeko jende gehiago behar da. Azkenik, hamar apuntatu ginen eta taldea sortu genuen. Iaz, jada hamasei ginen. Aurten bajarik ez dago eta, gutxienez, pertsona berri bat badator. Araza da emakumerik ez dagoela. Etorbizuneko gure erronka hori da.

Lehiatu egiten zarete?

Gipuzkoako Ligan, eta iaz lortu genuen ekipo bat mailaz igotzea. Hortaz, aurten bigarren eta hirugarren mailetan talde bana izango dugu. Helburua mantentzea da, baina talde ona daukagu eta gora begiratu behar dugu.

Liga zelakoa izaten da?

Motza. Urtarrietik martxo bukaerara arte, hamaika partida dira. Astebururo lau pertsonak joan behar dute jokatzera. Partidetan, pertsona bakoitzak ordu eta erdi dauka, eta mugimendu-



Barkero, Zabalotegiko lokalean. M.B.

ko hogeita hamar segundo ematen dizkizute. Motzenak ordu eta erdikoak izaten dira eta luzeenak hiru ordu eta erdikoak. **Interesdunek zer egin dezakete?** Asmoa da ostegunero Zabalotegiko dorreko lokala edozeinentzat zabalik izatea bostetatik aurrera. Gainera, nibel pixkatxo bat izanda, jada lehiatu daiteke. Urtean bi torneo ere egiten ditugu. Bata abenduan, gaztetxean. Eta beste bat, gaztetxearen urteurrenean, ekainean. Bigarren hori kalean egin ohi dugu, eta beti norbait berria apuntatzen da.

Ondo pasau Bergarako San Martin Jaixetan!

San Martin Jaiak 2017
Irailaren 9tik 17ra
BERGARA

Azpeitxi
Etxagi
Irish Pub Galways
Bule
Euxebio II
Usoa
Pol Pol



Aukeran konpainiaren *Maurizia* dantza ikuskizunaren une bat. AUKERAN DANTZA KONPAINIA

Mauriziaren indarra dantzara ekarrita

Edu Muruamendiaraz bergararrak zuzentzen duen Aukeran dantza konpainiak 'Maurizia' izeneko ikuskizuna taularatuko du bihar, zapatua, 20:00etan. Arrakasta handia izaten ari den emanaldia doan ikusteko aukera izango da sanmartinetan

Maite Txintxurreta BERGARA

San Martin jaietako egitarauaren baitan, ikuskizun berezia izango da bihar, hilak 9, Udal Pilotalekuan, arratsaldeko zortzi eta erdietan, Edu Muruamendiaraz bergararrak zuzentzen duen Aukera dantza talde entzutetsuak *Maurizia* obra eskainiko du.

Maurizia Aldeiturriaga pandero jole zeberioztarrarengandik dator emanaldiaren izena. Hain zuzen, hura izan da inspirazio iturri: "Euskal Herrian ikono bihurtu da Maurizia, eta, hura oinarri hartuta, emakume guztiei omenaldi txiki bat egin nahi izan diegu". Zuzendariaren iritziz, Aldeiturriagak balio edo ezaugarri ugari betetzen ditu: "Langilea, ama, egiten zuenagatik pasioa, guda bat pasatu izana... Mauriziak guztiak betetzen zituen".

Bada, panderoak presentzia garrantzitsua du Aukeraren emanaldian, eta hori taldearendako erronka bat izan da, Mu-

ruamendiarazek dioenez: "Lehenbizi, panderoa jotzen ikasi behar izan genuen, eta ondoren, bere musikarekin dantza egiten".

Hala, lana izan den arren, emaitza polita dela uste du, eta dio behin edo behin esan diotela "bazela ordua" panderoari daukan garrantzia aitortzeko. "Panderoak esanahi desberdinak izan ditzake. Ez da musika instrumentu bat soilik, istorio guztian zehar badu bere garrantzia".

Beti bezala, jantziek eta estetikak ere garrantzi handia daukate Aukeraren emanaldi honetan ere, eta euskal jantzi tradizionalak izango dira protagonista, betiere, ikuskizunari egokitutako ezaugarriekin.

"EMAKUME GUZTIEI OMENALDI TXIKI BAT EGIN NAHI IZAN DIEGU 'MAURIZIA' IKUSKIZUNAREKIN"

Ikuskizun arrakastatsua

Muruamendiarazendako, "berezia" da norberaren herrian ikuskizuna eskaintzea, eta, are bereziagoa, *Maurizia* izaten ari den arrakastarekin.

2016ko Loraldia festibalean estreinatu zuten, eta bertan "sekulako arrakasta" izan zuela dio zuzendariak: "Hamar minutuko txalo zaparrada eskaini ziguten". Geroztik, hamar bat emanaldi egin dituzte, guztiak ere arrakastatsuek.

Hala, Bergarakoaren ostean beste zortzi bat emanaldi ere emango dituzte. Beraz, "oso pozik" daude, emanaldi dezente izaten ari direlako, eta, gainera, lehenago sartzen ez ziren "tokietara iristea" lortu dutelako. Aurten, gainera, Aukeran konpainia 20. urteurrena ospatzen ari da, eta horren bueltan emanaldi berezi bat prestatzen ere badabil.

Zuzendariak herritarrek gonbidatu ditu ikuskizunera gerturatu daitezten.

Puntako egitarauarekin dator Egubakoitzak Kartzelan

'Bertxortan' antzezlanaren eta Iker Lauroba & Itsasargiak taldearen kontzertua izango da, 22:00etan, gaztetxean

M.T. BERGARA

Gaztetxeko Egubakoitzak Kartzelan kultura zikloa bueltan da, beste behin, eta puntako gonbidatuak dakartza.

Gaur, 22:00etan, *Bertxortan* antzezlanaren izango da, lehenik, umoretik asko izango duena. Honela aurkeztu dute: "Seriotasunari barre egiteko txanpinoi baratzea. Lau paretaren artean egiten eta pentsatzen duguna publiko egitearen atrebentzia".

Horren ostean, Iker Lauroba & Itsasargiak taldeak kontzertua emango du; *Nire gotorlekutik* lan berria aurkeztuko du. Folk doinuak izango dira nagusi bertan. Emanaldi bietarako sarrearen prezioa: hiru euro.

Datozenak

Beste hiru hitzordu ere izango dira Egubakoitzak Kartzelan zikloan. Hala, irailaren 22an



Iker Lauroba. B.G.A.

Txabela Bragas antzezlanaren izango da, eta ondoren, Kokeinen kontzertua, akustikoan. 29an, berriz, Olatz Salvador bakarlarria eta Erraiak taldea. Eta, bukatzeko, urriaren 6an, Jon Basaguren eta Jon Gurrutxaga eta Keu Agirretxea.

Irailaren 21era arte eman daiteke izena Musika Eskolan

Bergarako Musika eta Dantza Eskolak gaur hasiko du ikasurte berria, eta hilaren 21era arte egin daiteke matrikulazioa plaza librean dituzten ikasgaietan. 15:30etik 19:30era dago zabalik idazkaritza, eta bertan egin daiteke izen-ematea. Eskaintzari buruzko informazio gehiago: idezkaritza@bme.e-telefonica.net edo 943 76 57 80.

Ramon Arantzabalen 'Munibe Blues' ikusgai Nahikarin

13 hilabetez Arantzabalek Muniben ikusgai izan dituen hainbat pieza batzen ditu erakusketak. Plaza horretan hilerio margolan desberdinak jarri ditu ikusgai Arantzabalek, erakusketak finko batean, eta orain, Nahikari tabernan batu ditu gehienak. Hilabete osoan zehar izango da mostra bisitatzeko aukera.

Eguneko menua

(astelehenetik barikura)

Menu berezia

(zapatuan eta domekan)

Ostegunetik zapatura, afaritarako ere zabalik!

(Plater konbinatuak, kazuelatxoak...)

Janaria enkarguz ere egiten dugu.

Sanmartinetarako menu berezia dugu!



Ibargarai 37 - BERGARA • Tel.: 943 53 89 97

Trikiti doinuak, festa eta mendizaletasuna, eskutik

220 lagun baino gehiago batu zituen, zapatuan, lehen Trekutz egunak. Lagun taldeko afari batean jaiotako ideiak erantzun aparta izan du eta pozik azaldu dira antolatzaileak. Datorren urtera begira ere jarriak dira dagoeneko herritarrak

M.A. ANTZUOLA

Antolatzaileen aurreikuspenak gainditu egin ditu antzularrek zapatuan ospatu zuten lehen Trekutz egunak. 220 lagun baino gehiago batu zen bazkaltzeko Trekutzeko belardian. Musika, bertsoak eta umorea izan ziren nagusi. Izan ere, trikitia eta mendizaletasuna eskutik dakarren festa berriro berreskuratu gura izan du herritar talde batek, auzolanean. Eta emaitza ezin izan zen arrakastatsua izan.

Oso zaila da herrian horrenbeste jende mugitzea. Emaitza ikusita, balorazioa ezinbestean positiboa egiten dugu, lagun taldean sortutako ideiak harreara paregabea izan du eta", azaldu du Mikel Lizarazu antolatzaileak. "Izan ere, trikitia eta festa giroa ia-ia galduta zegoen. Lehen, Arrolak antolatzen zuen Finalista Eguna Trekutzen, baina hori ere galdu egin zen. Nik uste dut horrelako jai baten beharra eta nahia bazegoela herrian", gaineratu du.

Herriko trikitilariak ez zuten hutsik egin eta egun osoa girotu zuten. Bazkalostean, nola ez, herriko bertsolarien saioak jarri zion festari gatz eta piperra. Antzularren txalo zaparradek lagundutako saioa egin zuten *Kaxeta* eta Aitzol Iturbe bertsolari antzularrek.

Herriko kuadrilla asko animatu zen, gainera, egunaz gozatzera, eta herri bazkari baten itxura ere hartu zion batek baino gehiagok. "Esan beharra dago herri bazkari batean baino jende gehiago batu garela eta azpimarragarria dela hori", esan du antolatzaile lanetan ibili den Aitziber Lizarralde.

Urdaiazpikoa

Zozketatu zen urdaiazpikoak 6 kilo 160 gramo zuen. Gehien hurbildu zena Ieltxu Mendizabal izan zenez, urdaiazpikoa hark eraman zuen etxera.



220 lagunendako paella erraldoia prestatzen. IMANOL SORIANO



Bazkal aurretik doke txapelketan herritarrak. IMANOL SORIANO



Giro ederra sortu zen kuadrillen artean bazkalostean. MAIDER ARREGI

Industrialdea egiteko aukera atzera bota du Ingurumen Sailak

Zorroztarrietako industrialdea, Udal Gimnasioaren egoera eta Herri Eskola, berbagai ohiko osoko bilkuran

M. A. ANTZUOLA

Martitzeneko ohiko osoko bilkuran, eskaera eta galderen tartean azaleratu ziren gaiak hartu zuten protagonismo ia osoa. Izan ere, Zorroztarrietako industrialdearen egoerak kezka sortu zuen udal ordezkarien artean. Udalak uztailean jaso zuen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailaren ezezkoa. Gutunak dio bertan dagoen "haltzadi ederra ukitu ezina" dela. Udalak horri erantzun ostean, abuztuan iritsi da ezezkoa berresten duen Jaurlaritzaren gutuna. "Ondo pentsatutako erabaki loteslea dela dio gutunak; ez daukala atzera bueltarik diote, eta beste toki bat bilatzeko", azaldu zuen Beñardo Kortabarria alkateak. "Antzuolan ez dago industrialdea egiteko beste tokirik. Gainera, guztion intereseko proiektua da; ez da kapritxo bat. Ingurumen zuzendari Aitor Zulueta gonbidatu gura dugu, ikus dezan Antzuola nola dagoen eta zein den bere egoera. Irimoegi auzora eramango nituzke; handik ikusten da ederki Deskarga eta Antzuolaren arteko obraren eragina/kaltea nolakoa den".

Gauzak horrela, ahal den guztia egiteko prest dago udalbata, eta martitzeneko osoko bilkuran argi utzi zuten Udal bezala kexa bat aurkeztuko dutela, herriak duen behar hori errealitate bilakatu dadin.

Gimnasioa oraingoz itxita

Herrian kezka eragin duen bigarren gaia Udal Gimnasioaren itxiera da. Oraingoz itxita dagoen arren, Udalak zabalik gura duela argi utzi zuen: "Saia-tuko gara zerbitzuak jarrai dezan, noski. Orain arte gimnasioaren kudeaketa eraman duen Egoitek-en kontratua uztailean bukatzen zen. Hori gerta aurretik, berriro ere lehiaketa atera genuen, ondorengo urteetan gimnasioa kudeatzeko. Zerbitzua hobetu nahi genuenez lehiaketako baldintza-pleguan hainbat aldaketa egin genituen. Hala, kontratua eramango zuen

enpresarentzat diru gehiago jartzea erabaki zen: bikoitza -9.000tik 18.000ra-; baina ordutegi zabalagoa, zapatutan irekitzea, ikastaro mota dibertsifikatzea... ere bai. Helburu nagusia zen erabiltzaileei, herritarrei, aukera gehiago ematea. Lehiaketa irekira ez zen inor aurkeztu, eta orain prozedura negoziatua hasi behar dugu, legearen arabera gutxienez hiru enpresarekin. Bitartean Egoitek-i eskatu dugu zerbitzua ematen jarrai dezala urte bukaera arte oraingo baldintzetan, prozedura negoziatua aurrera eramateko denbora behar dugulako. Erantzunaren zain gaude, eta aste honetan jakitea espero dugu", argitu zuen alkateak.

Eskolako lanak

Bestalde, Herri Eskola handitzeko arau subsidiarioen aldaketa puntuala aho batez onartu zuen udalbatzak. Eskolako lanak 2018ko ikasturtearen bukaeran hasi nahi dituzte. "Uste dugu 2018ko ekaina eta uda aprobetxatuko direla lan potoloenak egiteko. Oinarrizko proiektua badaukagu eta obraren ezaugarriak finkatzen ditu. Egin duguna izan da eremu horretako arau subsidiarioen aldaketaren hasierako onarpena", argitu du Kortabarria alkateak.

"Handitzearen azalera totala 897,87 m2 izango da. Eskolako partzelak orain 1.728,96 m2 dauzka -gela aurrefabrikatuak kenduta-; eta 237 m2 handituko da. Beraz, partzela berriak 1.965,96 m2 izango ditu. Gela aurrefabrikatuek okupatzen dutena okupatuko du zabaleran, baina luzera gehiago izango du. Beheko solairuaz gain, bi pisu gehiago izango du handitzeak", argitu du Hirigintza teknikari Valen Moñuxek.

Oraingo jangela ere handiagoa izango dela azaldu du Moñuxek: "Oraingo jangelak 51 m2 ditu. Jangela berriak 85 m2 izango ditu, eta bulego bat izango du, 25 m2-koa".

"Geroz eta neska-mutiko gehiago daude klubean"

IBON GEZALAGA ANTZUOLA KIROL ELKARTEKO PRESIDENTEA

Uztailen Mikel Kerexetari erreleboa hartuta, Ibon Gezalaga da Antzuola Kirol Elkarteko presidente berria. Hastear dagoen denboraldiari buruz mintzatu da.

Maite Txintxurreta ANTZUOLA

AKEko talde gehienak dagoeneko martxan daude, entrenamenduetan eta hastear dagoen 2017-2018 denboraldia prestatzen. Presidente berria izango du aurten klubak: Ibon Gezalaga.

Aurrez ere bazeunden batzordean, eta ezagutzen duzu klubak. Orain, nola hartu duzu presidente kargua? Bai, iaz hasi nintzen batzordean, eta futbol eskolako arduradun lanetan ibili nintzen, eta orain presidente. Hasiara gogorra izaten da, garai honetan lan asko egoten delako. Baina poliki-poliki dena bere bidetik joaten da. **Zenbat talde ditu gaur egun Antzuola Kirol Elkartek?**

Preferentean, gazte mailan, infantiletan eta kadeteetan talde bana izango dugu. Eta, horrez gain, futbol eskola ere izango da, eta horren barruan alebinezako mutilen bi talde izango dira, alebinezako nesken beste talde bat eta benjaminetako mutilen talde bat.

Hortaz, futbol eskolakoaz aparte, ez da nesken talderik irten.

Ez. Jende nahikoa ez dago taldea osatzeko. Iaz ez zen atera, eta aurten ere ez. Datorren urtean futbol eskolatik, adinagatik, zazpi igoko lireratek kategoriaz. Agian, gazteagoak igotzeko aukerarik balezgo edota beste neska batzuk animatu eta futboleko jokatzeko hasi, hurrengo urtean atera ahal izango litzateke taldea... Baina zaila izango da. Ikusi behar da, gainera, orain futbol eskolan dabilzanek jarraitzeko asmoa izango luketen edo ez.

Denboraldi berrira begira, nobedade nabarmenik badago?

Nabarmenezkoa, agian, lehen taldearen igorera, aurten kategoriatan bat gorago arituko dena. Erregionalean egotetik Erregional Preferentean jokatzera pasako dira. Gainontzeko taldeek berdin jarraituko dute. Eta, entrenatzaileei dagokionez, talde



Ibon Gezalaga, Antzuola Kirol Elkarteko presidentea. IMANOL SORIANO

"PREFERENTEAN, GAZTE MAILAN, INFANTILETAN ETA KADETEETAN TALDE BANA IZANGO DUGU"

nagusian Igor Larreak eta Josu Zubikaraik jarraituko dute. Gazte mailako eta infantilen entrenatzaileak topatzeko arazo txoren bat izan dugu, baina dagoeneko nahiko bideratuta daukagu. Azkenean, futboleko ibilitako lau gazte izango dira gazte mailako entrenatzaileak, entrenatzaile finko baten partez, nahiz eta bat izango den arduraduna. Eta kadeteetan ere hiru arituko dira; hauek joan zen urtean infantilen entrenatzaileak izan ziren. Futbol eskolan ez dago aparteko aldaketarik.

Aldagelak txiki geratu zaizkizue?

Bai, hala da. Udalekoekin ere egon ginen horretaz hizketan, eta jakinaren gainean daude. Instalazio aldetik, aldagelak eta argiteria dira egoera kaxkarrean daudenak. Oraingoan, ez da ezer handirik egingo. Egia da planteatu dela aldagelen arazoa-

ri aurre egiteko aurrefabrikatutako zerbait jartzea edo... baina oraindik ez dago ezer lotuta; aurrerago, agian. Argiteriari dagokionez, oraingoan, ezin da ezer egin. Autobideko lanek irauten duten bitartean asko mugatzen da obra handiak egiteko aukera. Harmailak jartzeko nahia ere hor dago, neguan batez ere, jendea aterpean egon dadin, eta aparkalekuarena ere bai... Baina horiek obra handiak eta gauza asko dira eta pausoz pauso joan behar dugu.

Futbol eskolako umeak dira toki falta gehien nabaritzen dutenak.

Bai. Bi aldagela ditugu, eta partiduetan, bata etxeokendako da eta bestea kanpokoendako. Futbol eskolan, aldiz, 150-160 neska mutiko dabilta, eta bi aldagela ez dira nahikoa. Ez hori bakarrik; egia esan, aldagelen euren egoera ere ez da onena. Eta futbol eskolan nesken taldea ere badago, eta horiek ezin ditugu mutikoen aldagela berean sartu. **Elkartek badu pisua herrian, ezta?** Bai; futbol saila da herriko kirol talderik handiena, eta geroz eta gehiago gara. Neska-mutiko gehiago dabilta futboleko, eta hazten ari gara.



Gari jotzea egin zuten elkartasun jaietan. IMANOL SORIANO

Senegali laguntzeko elkartasun festa emankorra izan da

Anelkarrek antolatutako jaietan batutako dirua elkarteak Afrikako herrialdean duen proiekturako izango da

M.T. ANTZUOLA

Anelkarrek antolatuta, Elkartasun Festa arrakastatsua egin zuten joan den egubakoitz arratsaldean. Aurten, senegaldar ukitu nabarmena izan du jaiak, eta, hain zuzen, Anelkarrek herrialde horretan martxan daukan proiektuari laguntzeko erabiliko dute festan bildutako dirua.

Senegalgo maafea dastatzeko aukera izan zen Elkartasun Festan. Horrez gain, baina, antzuolarrek 47 patata-tortilla eroan zituzten jairako, eta 380 pintxo banatu zituzten gerturatutako jendearen artean. Hala, mila

euro inguru batu zituzten herritarren laguntzari esker.

Gari-jotzea

Euskal Herriko garai bateko ohiturak eta baserriko lanak bertatik bertara ikusteko aukera ere izan zuten elkartasun jaietan parte hartu zutenek. Zehazki, gari-jotzea zelan egiten zen erakutsi zuten Zurrategi plazan bertan. Hala, uztailearen 22an gari mozteko egin zuten, eta egubakoitzean gariaren aleak ateratzeko hurrengo faseak nola egiten diren erakutsi zuten. Txikiak ere animatu ziren.

Errioxara irteera egingo dute Landtxopekoek

Irailaren 20an Errioxako Bada-ranera irteera egingo dute Landtxopekoek. Autobusa goizeko bederatzietan aterako da Antzuolako geltoki nagusitik (08:45ean Antiguán), eta lehenik Haron egingo dute hamarretakoa eta denbora-pasa, eta, horren ostean, David Moreno upategia bisitatuko dute. Bazkaria ere bertan egingo dute. Arratsaldean tarteko beste herriren baten geldialdia egiteko aprobetxatuko dutela azaldu dute. Irteerara joateko interesa dutenek irailaren 11n edo 12an eman dezakete izena, 16:00etatik 18:00etara bitartean Landtxopen bertan. Ekintzan parte hartzeko 32 euro ordaindu behar dira.

Antzuolako gaztetxeak itxi egin ditu ateak

Antzuolako Gazte Kuadrillak komunikatu bidez aditzera eman duenez, herriko gaztetxea itxi egin dute eguaztenez, irailak 6. "Hainbat ahalegin egin ostean, eta nahiz eta denboraldi handi baten ahala egon den, gaztetxea ixteko ordua heldu da", diote. Hala, aste honetan, urteetan zehar gaztetxean ibilitako talde batek lokala txukundu eta giltzak "herriaren esku" laga ditu, barruan zegoen materiala ere han lagata, "herritarrei eskainiz. Alternatiba gisa, ideia batzuk badauzkagu buruan. Bitartean, herriko kaleetan elkartuko gara; eta noski, eskerrak beti inguruan ibili zareten denori! Biba zuek!", diote komunikatuaren bukaeran.



Neska-mutiko taldea, atzo, ikasgelara sartu berri. LARRAITZ ZEBERIO

115 ikasle ditu aurten Elgetako Herri Eskolak

Atzo, ehun eskola umek eman zioten hasiera 2017-2018 ikasturteari, eta astelehenean hasiko dira goizeko eta arratsaldeko ordutegiarekin. Egun berean ekingo diote egokitzapen aldiari 2 urteko gelan sartzen diren 15 neska-mutikoek

Larraitz Zuberio ELGETA

Amaitu dira opor luzeak, eta atzo izan zen ikasgeletarako itzulera Elgetan ere. 09:00etan jo zuen txirrinak, eta nabari zen urduritasuna. Irakasleek geletara igotzeko agindua emandakoan hasi ziren ikasleak eskalera gora, nor bere ikasgelara.

Itxura berriarekin egin zien harrera ikastetxeak. Udalak korridoreak margotu zituen zutaillean. Desagertuta daude horma horietan urteetan pilotutako margolanak, kartelak eta fitxak, eta berriz margotuta daude: beheko aldea urdinez eta goikoa, berriz, zuriz.

Eskolako zuzendaritzak emandako datuen arabera, 115 ikasle izango ditu, aurten, Elgetako Herri Eskolak. Haur Hezkuntzan 53 neska-mutiko izango dira, lau gelatan banatuta, eta Lehen Hezkuntzan 62 ikasle, beste lau taldetan banatuta. Bigarren eta hirugarren mailetako ikasleak talde bakarrean elkartuta daude, baita bosgarren eta seigarren

mailetako neska-mutikoak ere. Irakasle taldeari dagokionez, iaz baino irakasle bat eta heren bat gutxiago ditu eskolak. Murrizketen eragina dela adierazi du zuzendaritzak.

Egokitzapena

Astelehenean hasiko dira eskolan 2 urteko gelak aurten hartuko dituen 15 neska-mutikoak. Betiko moduan, egokitzapen aldia izango dute urrira bitartean. Aurten, ordea, zenbait aldaketa izango dira. "Gurasoek egindako eskaera batzuk kontuan hartu dira eta irailaren 26tik aurrera 2 urteko gelako umeek jantokia erabiltzeko aukera izango dute; betiere, 13:15erako jaso behar dira". Egokitzapen erdial-

IKASTURTE HONETAN 53 NESKA-MUTIKO DIRA HAUR HEZKUNTZAN ETA 62 LEHEN HEZKUNTZAN

dera ere umeak 09:30ean eskolaratzeko aukera izango dute familiek.

Ikasturteko erronkak

Irakurketa plana garatzea, jazarpen egoerei aurre egiteko prestatzea eta baratzea bultzatzea nabarmendu ditu zuzendaritzak ikasturteko erronka berezi moduan. Irteerak ere iragarri dituzte; hain zuzen, laster egingo dute lehenengoa, Egoarbitzara. Eguraldiaren arabera aukeratu dute eguna.

Zaintza goizez eta arratsaldez

Guraso elkartearen ekimenez bultzatutako goizeko zaintza zerbitzuak astelehenean zabalduko ditu ateak, 07:30etik 09:00etara. Eskolako beheko solairuan dagoen gela batean emango dute. Egun berean izango da martxan arratsaldeko zaintza-ludoteka udal zerbitzua. Lehenengo astean, gainera, ate irekiak egingo dituzte. Urteko bonuak ere atera ditu Udalak.



Elgetako liburutegian umeak irakurtzen. L.Z.

Udako mailegietan genero poliziakoa eta historikoa nagusi

Gazteek nahiz helduek gaztelerazko irakurketen aldeko hautua egiten jarraitzen dute

L.Z. ELGETA

Opor egunetan irakurtzeko mailegatutako liburuak bueltan jatzeko egunak izan dira honako hauek liburutegian. Zenbait astez itxita egon ostean, zerbitzuak udako ordutegiarekin zabaldu ditu ateak asteon. Astelehenean itzuliko da ohiko ordutegira. "Uda partean ohiko irakurleek mailegu gehiago egin dituzte eta liburu bat edo bi beharrean hiruzpalau eramaten dituzte. Badira kopuru hori gaintzen dutenak ere", azaldu du liburutegiko arduradun Geaxi Ezpeletak. Irakurtzeko zerbait erraza emateko eskakizuna nagusitzen dela dio, eta genero irakurriaren artean poliziakoa eta historikoa nabarmendu ditu. "Gazte nahiz helduek gaztelerazko irakurketen aldeko hautua egiten dute. Tarteak, gainera, nabarmena da guztiz; arduratzekoa, esango nuke. Haurrak

salbuespena dira, gehiengoak euskarazko edukiak eramaten dituelako. Haur literatura dezentente mailegatzen da. Gazte literatura oso gutxi. Helduen narratibak ere -16 urtetik gorabadiu irakurleak. Irakurleen gehiengoa 35-40 urtetik gorakoa dela esango nuke".

Udako titulu arrakastatsuen artean, Ezpeletak Eva Gartzia Saenz de Urturiren *Los ritos del agua*, Dolores Redondoren eleberriak, Toti Martinez de Lezearen *Tierra de leche y miel* eta Fernando Aranbururen *Patria* nabarmendu ditu.

Ekintza bereziak bueltan

Ezpeletak hilaren 22rako iragarri du hurrengo ipuin kontalari saioa. *Gu ere kontalari* ekimenak eta aurreko ikasturtean abiarazitako *Hitzez pitz* literatura solasaldie ere jarraipena izango dute.

Gaztetxeak tortilla lehiaketa iragarri du irailaren 23rako

Asteon elkartu dira erabakia hartzeko: irailaren 23rako tortilla lehiaketa eta triki-poteoa antolatuko ditu gaztetxeak. Aurreko urteetan moduan, base-rritarren azokaren egun berean izango dira. Tortilla lehiaketa 18:30ean hasiko da eta 20:00etan izango da sari banaketa. Ondoren, 20:30ean, triki-poteoa egingo dute.

Autobusa Bilbora Gure Esku Dagoren manifestaziora

Kataluniako erreferenduma babesteko manifestazioa dago deituta hilaren 16rako, 17:30ean. Elgetako Gure Esku Dagok autobusa antolatu du. 16:00etan aterako da herriko plazatik eta doan izango da. Lekua gordetzeko, interesatuek elgetakogureesku@gmail.com helbidera idatzi behar dute. Autobus bakarra jarriko dute; beraz, bete arte.

"Berarekin batera taldez aldatzea erabaki nuen"

IÑAKI OLAORTUA BARAKALDO TALDEKO FUTBOL JOKALARIA

Iaz Amorebieta taldean aritu zen, Aitor Larrazabal entrenatzailearen aginduetara, eta uda honetan, Larrazabalek berarekin eraman du Amorebietatik Barakaldora

Eneko Azurmendi ELGETA

Azkeneko zortzi denboraldietan zortzi talde desberdinetan jokatu du Iñaki Olaortua elgetarrak (1993). Bergaran eman zituen lehen pausoak futbolari gisa.

Amorebietatik Barakaldorako jauzia eman duzu uda honetan. Zer dela eta?

Iaz Amorebieta taldean nire entrenatzailea zena –Aitor Larrazabal– Barakaldok fitxatu zuen. Esan zidan bere konfiantzazko jokalaria nintzela eta berarekin batera Barakaldora joatea eskaini zidan. Izen handiko taldea denez, eskaintza onartzea erabaki nuen. Hala, nik eta beste jokalariek batek eman dugu Amorebietatik Barakaldorako jauzia.

Eta, zer moduz hartu zaituzte talde berrian? Giro ona dago?

Bai; oraingoz, oso gustura nago. Giro bikaina daukagu taldean. **Entrenatzailearen konfiantza izanda, jokatzeko aukera izango duzu.** Bai; oraingoz, hiru partidu jokatu ditugu eta minutu guztiak jokatu ditut. Alde horretatik, pozik nago. Izan ere, talde garrantzitsua izanik, beldur horrekin etorri nintzen.

Bigarren B Mailak exijentzia handia eskatzen du?

Bai. Nire bigarren urtea da Bigarren B Mailan eta garbi dago exijentzia handia eskatzen dela. Talde gogorak daude kategoria honetan, fisikoki ondo egotera behartuta zaude.

Hirugarren Mailan ere jokatu izan duzu. Nabaritzen da diferentzia?

Bai. Asko nabaritzen da jauzi hori. Jokalariek kalitate handiagoa dute, fisikoki hobeto daude eta taldeak taktikoki hobeto prestatuta daude, entrenamendu ordu gehiagorekin. Azken finean, profesionalizatuago daude.

24 urte dituzu eta zortzigarren taldea da Barakaldo. Aldaketa asko urtetik urtera.

Bai. Eibartik irten nintzenetik, oraindik ez ditut bi urte segidan



Iñaki Olaortua, Atxabalpen. XABIER URZELAI

"TALDE GOGORRAK DAUDE MAILA HONETAN, FISIKOKI ONDO EGOTERA BEHARTUTA ZAUDE"

egin talde berean. Eskaintzak izan ditut eta taldez aldatzea erabaki izan dut orain arte, jende berria ezagutzeko eta esperientzia berriak bizi ahal izateko. Oraingoz, behintzat, gustura aritu izan naiz batetik bestera, ez dut urte txarrik izan.

Lesioek errespetatu zaituzte?

Horretan ere zorzea izan dut. Bihurrituren bat edo beste izan dut, baina gauza handirik ez.

Defentsako jokalaria izanik, ze arrelari mota da gauzak zailen jartzen dizkizuna?

Aurrelari handiak eta bizkarrez ondo jokatzeko dutenak dira gutxienez gustatzen zaizkidanak. Nahiago dut aurrelari bizkor bat defendatu, alor horretan hobeto moldatzen naiz.

Txukun hasi duzue denboraldia. Garaipen bat eta bi berdinketa.

Hala da. Ondo hasi gara eta, gainera, ez dugu golik jaso hiru

partiduetan. Oraindik denboraldia luzea da eta gogor egin behar dugu lan, baina itxura ona dauka, oraingoz.

Hiru partidutan aurkako golik ez. Zure lana ondo betetzen duzun seinala da hori.

Meritua talde osoarena da, ez nirea bakarrik. Jokalariek batek defendatzeari uzten badio, taldeak asko nabaritzen du.

Ze helburu du Barakaldok denboraldi honetan?

Esan dizudan moduan, izen handia dauka Barakaldok eta beti da goiko postuetan egoteko talde bat. Denboraldia hobeto edo okerrago joan daiteke, baina, hasiera batean, behintzat, igorako *play-off* postuen lehian egon behar genuke. Hala ere, gero, igoera lortzea oso zaila dela badakigu.

Zure burua ikusten duzu Bigarren Mailan edo Lehen Mailan?

Dagoeneko 24 urte ditut, eta, oraindik ez badut jauzi hori eman, aurrerantzean ez dut uste emango dudunik. Gerta daiteke, baina oso zail ikusten dut. Hala ere, ez diot garrantzi handirik ematen. Ni maila honetan oso gustura nago, disfrutatzen, eta horrekin geratzen naiz.



Jone Muxika bizikletan, lasterketaren une batean. JOSU GIASOLA

Jone Muxika elgetarra irabazle Zumaiako Triatloi Herrikoian

Modalitate honetan bere lehen esperientzia izan zen pasa den zapatukoa eta nagusitza lortu zuen

E.A. ELGETA

39.06 eginda, lehen emakumezkoa izan zen Joxe Muxika elgetarra Zumaiako Triatloi Herrikoian –350 metro igerian, 10 kilometro bizikletan eta 2,5 kilometro korrika–.

Bere lehen esperientzia izan da triatloian, eta pozik dago, batez ere, lasterketan izan zituen sentazioengatik. "Beti izan dut gogoa probatzeko, eta, distantzia motza izanik, animatzea pentsatu nuen. Pozik nago ez irabazi nuelako, gorputzak ondo erantzun didalako baizik", azaldu du Muxikak. Josu Gisasola lagunak animatu zuen parte hartzera. "Berarengatik izan ez balitz, ez nuen parte hartuko", dio.

Atzetik aurrera

74 emakumek hartu zuten parte lasterketan eta lehenengo zatian –igerian– nahiko atzean zebilen Muxika. Hala ere, bizikletan

asko aurreratzea lortu zuen –"hori izan zen gakoa"–, eta ondoren, korrikako tartean lasterketa errematatzea lortu zuen. "Igerian lasai egin nuen, trankil hartu nuen. 40. postuan irten nintzen igeri egitetik, baina bizikletan, nuen guztia eman nuen eta ia aurreraino joan nintzen, bigarren posturaino. Ondoren, korrika eman nuen mailarekin ni neu ere harrituta gelditu nintzen, eta irabaztea lortu nuen".

Esperientzia, "oso polita"

Muxikak adierazi du esperientzia "oso polita" izan zela. "Oso giro ona zegoen, parte-hartze handia, antolakuntza aldetik ere guztia oso ondo eta bide bazterrean jende ugari animoak ematen eta lasterketa ikusten". Hala ere, oraingoz, lasai hartu nahi du kontua eta ez daki aurrerantzean distantzia luzeagoko triatloietan parte hartuko ote duen.

Erretiratuek irteera Artziniegara irailaren 20an

Goiena komunitatea

Xalbadorpe elkartea / ELGETA

Abuztuko etenaldiaren ostean, martxan dira berriz ere Elgetako Xalbadorpe erretiratuen elkarteko ekintzak. Zuzendaritzak irteera iragarri du hilaren 20rako, eguaztena. "Araba aldera joango gara egun-pasa eta Artziniega herria ikusiko dugu goizean, baita bertako museo etnografi-

koa ere". Bazkaria Amurrioko Ruperto jatetxean izango dela jakinarazi du Xalbadorpe elkar-teak eta gehitu du ondoren Urduñan egingo dutela arratsalde-pasa. "Autobusez egingo dugu joan-etorria eta 08:30ean abiatuko gara Elgetako herriko plaza-tatik".

Joan nahi dutenek zapatuan, irailak 9, eman behar dute izena Ozkarbi elkartean. Zuzendaritzako ordezkariak izango dira bertan 11:00etatik 12:00etara. Prezioa da 30 euro pertsonako.



Kilometroak egitasmoko parekidetasun batzordeko kideak Santa Ana aurrean. MIREN ARREGI

Parekidetasuna: Kilometroak jaiaren ardatzetako bat

Hiru puntu more izango dira Oñatin irailaren 24ko ikastolen festan: Asentzión, Foruen plazan eta Santa Lutzian. Txosnetan, berriz, sirena moreak jarriko dituzte: "Erasorik onartuko ez dugula eta haiei erantzun egin behar zaiela gogorarazteko"

Oihana Elortza OÑATI

Sirena morea ikur dutela, *Eraso sexistei erantzun!* leloa baliatuta, eta ikusita "askotan ezkutuan, isilpean" geratzen direla eraso sexistak, "bai larriak, bai sotilagoak diren eraso, diskriminazioak, ere", Kilometroak 2017 jaiaren indarkeria sexistari aurre egiteko protokoloa eta kanpaina landu du parekidetasun lantaldeak.

Horren emaitza zehatza irailaren 24an bertan ikusiko da: hiru puntu more ipiniko dituzte, informazioa eman eta materiala banatzeko: "Bertan egongo garenak eraso eta diskriminazioez hitz egiteko prest egongo gara, zalantzak, iradokizunak, eta abar komentatzeko. Edozein eraso jasan edo ikusiz gero, asko eskertuko genuke puntu moreetan honen berri izatea, guk gertatu dela kontuan har dezagun, eta, beharra egonez gero, edozein egoerari aurre egiten laguntzeko prest izango gara", adierazi du Rebeke Maestrok, parekidetasun lantaldeko ordezkariak.

Puntu moreez gainera, sirenak ere ipiniko dituzte, horiek ere moreak. Kasu horretan, txosnetan izango dira. "Erasorik onartuko ez dugula eta eraso sexistei erantzun behar zaiela gogorarazteko", esplikatu du Maestrok.

Parekidetasun irizpideak

Ekimen konkretu horiez gainera, baina, parekidetasun lantaldearen helburua da jaiaren osotasunean eragitea. Beste modu batean esanda, Kilometroako antolakuntzan diharduten lantalde guztiek "parekidetasun irizpideak" kontuan har dezaten lan egin dute: "Gida bat egin guren, talde ezberdinei argibideak emateko. Parekidetasuna KMK jaiko ardatz nagusietariko

**REBEKA MAESTRO:
"EDOZEIN EGOERARI
AURRE EGITEN
LAGUNTZEKO PREST
IZANGO GARA"**

bat izanda, honela, modu transbertsalean –zeharkakotasunez– landu behar zela ikusi genuen. Beraz, gure lana beste lantaldeek modu feminista batean jarduteko behar zuten laguntza ematea izan da, guk antolatu beharrean gauza feministak", dio Maestrok.

"Parekidetasuneranzko pausoak eman nahi baditugu, ezin dugu izebergaren puntaren inguruan bakarrik jardun. Zerk eusten dio emakumeen aurkako indarkeriari? Zerk mantentzen ditu desigualdadeak? Feminismoak ematen dizkigu gakoak parekidetasuneranzko pausoak eman ahal izateko; argiak hori gogorazten digu, argi moreari heldu behar diogula, emakume bezala sozializatutako ahaldunduz, gizon bezala sozializatutako maskulinitate ereduarekin, eraso sexistak ikustarazi behar ditugula, zerbait deigarri eta arbuigarri bihurtu, hau baita lehen pausoa haiei erantzun eta hauen atzean dauden botere logikak deuseztatzeke", azpimarratu du.

Hendaiako eta Iruñako dantza taldeak gonbidatu dituzte aurten

Hilaren 17an egingo da aurtengo Haurren Eguna eta elkartuko diren dantzariak etxeetan bazkalduko dute

Oihana Elortza OÑATI

Irailaren 17an egingo da aurtengo Haurren Eguna, Oñatz dantza taldeak antolatuta, eta dagoeneko azken xehetasunak lotzea baino ez zaie falta. Euskal Herriko hamahiru dantza talde etorriko dira; tartean, Hendaiako Akelarre eta Iruñeko Duguna. "Azken bi urteetan talde ezberdinekin harremanak hasi eta sendotu ditugu eta horren emaitza dira talde hauek. Harreman hauei esker gure txikiak tokian tokiko plaza eta dantza ezberdinak ezagutzeko aukera izaten dute eta oso aberasgarria da hori", adierazi du Oñatz dantza taldeko Maite Irizarrek.

Familiak

600 bat haur dantzari elkartuko dira eta denak Oñatiko etxe partikularretan banatuko dituzte bazkaltzeko. "Haurren gurasoen



Kiroldegian ospatu zen iaz. GOIENA

implikazioa handia da oso eta horri esker da posible hori. Oñatiko Haurren Eguna erreferente da kopuruari dagokionez, baina gurasoen laguntzagatik da hori. Baita Udalarena ere", dio Irizarrek. Egun osoko festa izango da.

Domeka arratsaldean egongo da azkeneko soroslea Usakon

Aurtengo udako denboraldia bukatzeko, Usakon ez da soroslerik egongo datorren astetik aurrera. Domeka, irailak 10, izango da begiralea egongo den azken eguna.

Zubikoa kiroldegiko igerileku ondoan dagoen belardia, berriz, jaiak hasi arte egongo da erabilgarri; irailaren 28ra arte zabalik egongo da.

Gure Esku Dagoren manifestaziora joateko autobusak

Katalunian urriaren 1ean egingo duten erreferenduma babesteko manifestazioa egingo du Gure Esku Dago ekimenak Bilbon irailaren 16an. Eta Oñatiko lantaldeak autobusak antolatu ditu hara joateko. 16:00etan aterako dira postetxetik. Txartelak dagoeneko eskuragai daude. Ona, Boga, Otamendi eta Garoa tarternetan.

Txalokak antolatuta, haurrendako jolasak egongo dira plazan

Txaloka ludotekak umeendako jolasak eta tailerrak egingo ditu datorren astean Foruen plazan. Astelehenean hasita, aste osoan zehar egingo dituzte ekintza bereziak kalean, 16:30etik 19:30era. Eguraldi txarra eginez gero, azokan egingo dituzte antolatutako eskulanak, tailerrak eta jolasak. Ez dago izenik eman beharrik.

Txanda elkarteko merkatariek 'outlet'-a egingo dute

Txanda merkatariek elkartek udako *outlet*-a egingo du datorren asteburuan. Irailaren 15ean, egubakoitzean, goiz eta arratsaldez eskainiko dituzte euren produktuak prezio berezietan eta zapatuan, berriz, goizetik bakarrik. Kale Zaharrean, Atzeko kalean eta Kale Barrian egingo da. Karpak jarriko dira eta kale animazioa egongo da.

"Ahizpari ilea moztu eta aita eraman egin zuten"

ELIXABETE GALARTZA 1936KO GERRAKO LEKUKOA

1936ko gerra emakumeen ikuspegitik kontatzen duen erakusketa dago zabalik kultura etxean eta Galartzarena da ikusten den argazki erraldoietako bat

Oihana Elortza OÑATI

Elixabete Galartza Zuluetak (Oñati, 1931) 5 urte zituen matxinatuak Oñatin sartu zirenean. Gogoan du aita eta ahizpa eraman zituzten eguna. Baita handik urte batzuetara familia osoa berriz elkartu zen ueña ere. Orduan gertatutakoa jendeak jakitearen aldekoa da.

5 urte zenituen, baina ondo gogoratzen duzu nola eraman zituzten aita eta ahizpa.

Bai. Etxeko atarian nembilen jolasean bi guardia zibil etorri zirenean. Aita eta ahizpa bat eraman zuten; aita kartzelara, Ondarretara lehenengo eta Galiziara gero. Ahizpari ilea moztu zioten eta berririo ekarri zuten etxera.

Zenbat zineten etxean?

Zazpi anaia-arreba. Anaia zaharrena Bilbon zegoen eta bigarrenak hara egin zuen alde, hemengo egoera ikusita. Biak elkartu ziren han eta erabaki zuten elkarrekin ihes egitea norabait. Baina atxilotu egin zituzten. Zaharrena El Puerto de Santa Mariako espetxera eraman zuten eta bestea, kontzentrazio-esparru batera.

Arabian irakasle zegoen ahizpa ere espetxean sartu zuten.

Arabako herri batean, Murgian, zegoen irakasle. Handik Gasteizko espetxera eraman zuten eta handik Oñatira, berriz Donostiako emakumeen kartzelara eramateko, Asilo San Josea. Denbora bat egin zuen han, eta, berriz etxera etorri zenean, irakasle izaten jarraitu gura zuen hark, baina esan zioten ezin zuela maistra izan Euskal Herrian, eta Segoviako herri txiki batera bidali zuten bost urterako. Sei egin zituen.

Noiz elkartu zineten berriz?

Hantxe, Segoviako herri hartan elkartu ginen. Aita eta anaia zaharrena 1940ra arte egon ziren kartzelan, eta denak etxeratu zirenean joan ginen Segoviara.



Elixabete Galartza erakusketa gelan inaugurazio ekitaldian, astelehenean. A.T.

"GERORA, BATEZ ERE, AHIZPEKIN EGINDUT BERBA URTE HAIETAN GERTATUTAKOAZ"

Hitz egiten zenuten etxean gertatutakoaz eta bizitakoaz?

Ni txikia nintzen, baina gertutik jarraitzen nuen egoera. Amari ere asko begiratzen nion, detaile asko ikusi nituen, eta haren bitartez jaki-

ten nuen zer ari zen gertatzen. Gerora, batez ere, ahizpekin egin dut berba urte haietaz. Gogoratzen dut Naparreneko Margarita Iturraldek eta nire ahizpa Edurnek asko egiten zutela berba elkarrekin, eta hantxe izaten nintzen ni ondoan, entzuten.

Zer iruditzen zaizu erakusketa?

Hunkitu egin naiz. Oso pozik nago elkarte batzuek egin duten lanagatik orduko gertaerak ezagutarazteko. Jendeak jakin egin behar du zer gertatu zen.

Bisita gidatuak eta hitzaldia

Gerra eta frankismo garaia emakumeek nola bizi izan zuten jasotzen du kultura etxean zabalik dagoen *Emeek emana* erakusketak. Agertzen dira, esaterako, erbestearen, gerraren, torturaren, espetxearen eta erreprosioren aurrean bizirik ateratzeko estrategien gaineko narratioak, kontakizunak, emakumeen ikuspegitik. Intxorta 1937 elkarte ibili da antolatzen, gizonezkoen testigantzekin egin zuen moduan. Argazkiak Mauro Saravia txiletarrarenak dira.

Oñatin bertan hitzaldia antolatu dute bertako Gogoratu Guran taldearen laguntzarekin. *Emakume oñatiarrak 1936ko gerran* da izenburua eta irailaren 19an izango da, 19:00etan, kultura etxean. Hilaren 14an bestalde, erakusketaren bisita gidatuak egingo dituzte 10:00etan eta 18:00etan.



NIRE USTEZ

MARINA ETXEGOIEN

Asterixen irakaspenak

Irakurketaren onurak asko dira. Besteak beste, irudimena lantzen da, kontzentrazioa areagotu, hizkuntza aberastu, espirtu kritikoa garatu, enpatia sendotu eta, hau gutxi balitz, zientifikoki frogatu da neuronen arteko lotura ere indartzen dela. Denbora-pasa ederra da, gainera.

Bizitzan zehar irakurri dugunarekin, gure izaera osatzen omen da. Irakurritakoa, usainen eta soinuaren antzera, gure burmuinean txertatzen da eta gutxien espero duzunean azaleratzen da.

Eskolatik irten, etxera joan eta merienda jaten nuen bitartean, Asterixen liburuak irakurtzen nituen nik haurtzaroan. Aurten, Korsikara joan naiz; ez nuen ezagutzen. Hala ere, banekien korsikarrak burugorrrak direla, herri menditsuak daudela bertan, gaztainak eta gazta oso gustuko dituztela, txerri basatiekin trikits egin daitekeela eta bertako zaharrek bizitza nola pasatzen den begira egotea gustuko dutela. Aspaldi erakutsi zidan hori Asterixek, eta ez zait ahaztu; hor nuen nonbait, ondo gordeta.

Danborradako entseguak dituzte haurrek eta nagusiek

Egutegiak hala behartuta, arreratu egin dute aurten, astebetetz, jaietako haurren danborrada. Irailaren 16an izango da.

Datorren astean izango dituzte, beraz, azken entseguak. Martitzenean eta eguenean egingo dituzte, 12an eta 14an, Eltzian, 18:45etik 19:30era. Haurren danborradako karrozak

zirkua itxura izango du aurten eta antolatzaileek deialdia zabaldu dute egun horretan ahalik eta guraso eta ume gehien zirkuko pertsonaiez mozortuta joateko.

Nagusien danborrada, berriz, San Migel bezperan izango da aurten ere, irailaren 28an. Parte-hartzaileek hilaren 14an dute lehen entsegu orokorra, 20:00etan, eta hurrengoak 19an, 21ean eta 26an. Nagusien entsegu saio guztiak ordu berean izango dira, Eltzian.

Holi jaialdi koloretsua gaur, Atzeko kaleko jaiiei hasiera emateko

Zapatuan da Arantzazuko Ama Birjinaren eguna eta asteburuan jaiak ospatuko dituzte Atzeko kalean eta Arantzazu auzoan. Atzeko kalean gaur, egubakoitza, botako dute jaiiei hasiera eman gien etxafuegoa, 16:00etan, eta segidan egingo dute jai horietan egin ohi den zinta lasterketa. 18:30erako, Holi jaialdi koloretsua antolatu dute adin guztietako herritarrendako. Zuzeneko musika emanaldiak, sokamuturra, sagardo dastatzea eta piroteknia saioa ere egingo dira, besteak beste, domekara bitartean.

Arantzazun, bestalde, auzo bazkaria egingo dute bihar auzo etxean, 14:00etan.

Birzikleta azokarako materiala batzen egongo dira bihar

Birzikleta azoka egingo dute irailaren 16an Foruen plazako frontoian eta azoka horretan salgai egongo den materiala batzen hasiko dira bihar, zapatua. Bizikletak, kaskoak, babesak eta maillotak jasoko dituzte azokarako. Baita patinak eta patineteak ere. Azokako beheko solairuan egongo dira material hori jasotzen hilaren 9an, 12an eta 14an, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

Mugikortasun astea egingo da Oñatin irailaren 16tik 22ra eta horren barruan antolatu dute bigarren eskuko bizikleta azoka. 22an, autorik gabeko eguna izango da.

Odrizola izango da Infanteren ondorengoa

Zubikoa kiroldegian 33 urte egin ditu lanean 'Artza'-k eta datorren urtean hartuko du erretiroa. Josune Odrizola igerilari ohi oñatiarra izango da haren ondorengoa eta ikasturte honetan elkarrekin gidatuko dute Aloña Mendiko igeri taldea

Oihana Elortza OÑATI

Josune Odrizolak (Oñati, 1996) hartuko du Xabier Infante *Artza*-ren erreleboa. Pozik eta gogotsu dago igerilari ohi: "*Artza*-k bere lana hartzeko proposatu zidanean harritu egin nintzen. Egia esan, dena ondo pentsatuta eta antolatuta zuen berak eta ondo hartu nuen. Ziur nago laguntza ere izango dudala, eta pozik nago, bai".

Urtebete

Uztailaren 1ean bete ziren 33 urte Zubikoako igerilekua zabaldu zutela, eta huraxe izan zen bere lehen laneguna Oñatin *Artza*-rendako. Orduan, Gasteizen bizi zen eta hona etortzeko aukera ikusi zuenean ez zuela askorik pentsatu gogoratzen du: "Etorri eta listo". Harrezkero, makina bat ordu egin du igerilekuan. Datorren urtean hartuko du erretiroa eta dagoneko badaki nork hartuko duen bere lana. "Josune pertsona egokia izango litzatekeela pentsatu genuen eta horregatik proposatu genion", dio.

Kirol Hezkuntza ari da ikasten Odrizola eta eskainitako aukera hau paregabea dela dio: "Azken urtea egingo dut ikasturte honetan eta oso aukera ona da niretako. Praktikak egin



Odrizola eta Infante elkarrekin igerilekuan eguen goizean. O.E.

behar ditugu ikasketen azken kurtsoan eta Oñatin bertan eta igerilekuan egingo ditut nik".

Obrak

Praktika horiek egiten aste honetan bertan hasi da. "Oraindik ez dakit zenbat igerilariren ardura izango dudana; normalean, 40 inguru izan ohi gara taldean. Baina tokia ondo ezagutzen, baita igerilari gehienak ere. Gainera, badakit goizean goiz jaikitzea zer den, nahiz eta lotia naizen. Orain arte ez bezala, gero lana izango da, eta bete-

beharra bete egin behar da", esan du arduratsu oñatiarrak.

Oporretan egon berri, lanean hasteko gogoz dago Josune Odrizola. "Badakit obra edo lan batzuk egitekoak direla igerilekuan eta oraindik ez dakit horrek zertan eta zehazki noiz eragingo digun, baina moldatuko gara", dio, baikor.

Ikasturte honetan elkarrekin arituko dira lanean Xabier Infante eta Josune Odrizola eta datorren kurtsoan helduko dio entrenatzaile paperari bete-betean gazte oñatiarrak.

Oñatiko historia ere ezagutuko da Kilometroak egunean

Irailaren 24an, herriko historiarekin lotutako hiru antzezlan eskainiko dituzte Olaitturri Kultur Elkarteok

O.E. OÑATI

Olaitturri Kultur Elkarteok ere bat egin dute Oñatin egingo den Kilometroak jaiarekin, eta, hala, irailaren 24an herriko historiarekin lotutako hiru antzezlan eskainiko dituzte *Oñatiko zertzeladak* izenarekin. 20 minutu inguruko hiru pieza izango dira, bakoitza herriko txoko batean. Zumeltzegi dorretxean, 1542an kokatutako gebaratarrekin lotutako emanaldia eskainiko dute; Sancti Spiritus Unibertsitateko klaustroan, 1760an kokatutako amodiozko istorio baten epaiketa; eta Lazarraga jauregiko lorategian, 1845ean Oñati Gipuzkoari anexionatu zitzaioneko kontaketa.

Antzezlanak Olaitturrikoek aurretik egindako obren nolabaiteko moldaketa laburtuak izango dira, eta, lehenengo aldiz, euskara batuan. Gune bakoitzean



Eguazteneko prentsa agerraldian. T.M.

200 aulki jarriko dituzte eta emanaldiak doan izango dira. 40 bat lagun ibiliko dira lanean.

Antzezlan bera herriko jaietan ere egingo dute Olaitturri elkarteok, hiru zatiak bata bestearen atzetik. Irailaren 29an izango da, Santa Ana antzokian.

Saguzarrak hobeto ezagutzeko irteera egingo dute zapatuan

Arantzazuko Parketxean elkartu eta ibilaldi txiki bat egingo dute inguruan saguzarrak ikusteko, bihar, 20:45ean. Aurretik, Kiko Alvarez adituak azalpen batzuk emango ditu animalia horiei buruz. Plazak mugatuak dira eta hauek dira izena emateko bideak: 943 78 28 94 edo arantzazu@gipuzkoamendizmen-di.net. Prezioa bost euro da.

Eskola Kirola programan izena emateko garaia da

Eskola Kirolaren eskaintzaren eskuorriak ikastetxeetan banatuko dituzte eta astelehenean zabalduko dute epea izena emateko. Aste barruko ekintzak urriaren 9an hasiko dira eta asteburuko kirol jardunaldiak, berriz, urriaren 21ean. Informazioa eskatu eta izena emateko kiroldegira joan behar da. Azken eguna irailaren 22a da.

EUSKAL KULTURGINTZAREN TRANSMISIOA

GOIENA TELEBISTA,

IRAILAREN 14AN, EGUENEAN, 21:00ETAN

GONBIDATUA: MARI JOSE AZURMENDI ETA ITSASO OLAIZOLA

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK, GOIENAK, EUSKADI IRRATIAK ETA BILBAO HIRIA IRRATIAK ELKARLANEAN EGINDAKO SAIOA.

goiena
ZU HEMEN ZAUDE



Agirrereren omenezkoa jokatuko dute bihar

Jose Luis Agirre zenaren omenezko partidua jokatu du bihar arratsaldean Aloña Mendiko futbol taldeak Azkoagainen. Denboraldi-aurreko azkena izango da. Ligako lehen partidua etxean lehiatuko dute, datorren asteburuan, Idiazabalen kontra

Oihana Elortza OÑATI

Jose Luis Agirre omentzeko partidua jokatu du bihar, zapatua, Erregional Preferente mailako futbol taldeak. 17:00etan izango da, Gasteizko Ariznabarra taldearen kontra. Biharko partidua izango da, gainera, talde horren denboraldi-aurreko azkena. Hiruzpalau jokatu dituzte, azkena Bergara Hiria torneoaren barruan, eta bihar-koa izango da azkena. Datorren asteburuan hasiko du Aloña Mendik aurtengo denboraldiko liga. Etxean hasiko du, Idiazabalen kontra. Bigarrena Eztan jokatu du, Antzuolaren aurka.

Berdina

Aldaketa gutxi izango dira aurtengo taldean. "Julen Agirre eta Julen Palacios dira izango ditugu bi bajak; lehenengoa ikasketengatik eta bigarrena lesioengatik. Asier Ugarte, aldiz, taldera bueltatu da. Hutsuneak gazte eta erregional mailetakok jokalariekin beteko ditugu", azaldu du Endika Ruiz kirol zuzendariak.

Eta taldea mantentzen delako daude hain pozik, hain zuzen ere, taldean. "Mailaz jaitsi gara, baina taldea mantendu egin da. Talde ona da. Hori ez da askotan gertatzen, baina hemen bai, eta oso pozik gaude. Horixe izan

da fitzaketa onena, taldea mantentzea", azpimarratu gura izan du Endika Ruizek.

Denboraldi berrirako dituzten helburuei dagokienez, Ruizek adierazi du maila honetan bakarra igotzen dela gora eta zaila izango dela bukaerara lehengo heltzea: "Postu hori borrokatzeko moduan heldu gurako genuke. Ea aurten iaz baino lesio gutxiago izaten ditugun".

Gotzon Urzelai izango da entrenatzailea, Haritz Garmendia laguntzailea eta Gorka Ibarguen prestatzaile fisikoa. Taldeko kapitaina iazko bera izango da, Joseba Irizar.

Pilotako San Migel txapelketako beste lau partidua gaur

Euskal Herriko kadete eta gazte mailetakoko pilotari onenak ari dira lehiatzen Aloña Mendiko pilota sailak antolatutako San Migel txapelketan eta gaur, egubakoitza, beste lau partidua jokatu dituzte kiroldegiko frontoian, 17:30ean. Pilotan arituko diren hamasei pilotarietatik hiru, gainera, oñatiarrak izango dira.

Zilarrezko hiru domina ekarri ditu Ramosek Danimarkatik

Marisol Ramos korrikalari beteranoak zilarrezko hiru domina eskuratu zituen abuztuan, beterano mailako Europako atletismo txapelketan. Aarhusen (Danimarka) jokatu zen nazioarteko hitzordu garrantzitsuan, Europako W55 txapeldunordea izan zen oñatiar korrikalaria, hamar eta bost kilometroko probetan eta maratoietan.

Reala eta Osasuna Azkoagainera datoz irailaren 15ean

Kilometroak jaiaren barruan, Reala eta Osasuna aurrez aurre lehiatuko dira Azkoagainen datorren asteburuan. Irailaren 15ean izango da partidua, 18:30ean. Sarrerak leihatilan salduko dituzte egunean bertan: 15 urtetik beherakoendako bost eurotan eta nagusiendako hamar eurotan. Lekaixoka produktuen zozketa egingo da.

Mendi martxan parte hartzeko izen-ematea astelehenean itxiko da

Hilaren 16an da hirugarren Oñatik mendi martxa eta egun gutxi gelditzen dira izen-emate epea ixteko. Irailaren 11 da azken eguna. Bi bide daude: Internet bidez www.kirolprobak.com helbidean sartuta edo Aloña tabernara joanda. Asteburuan mahai bat jarriko dute Atzeko kalean izenak hartzeko. Dagoeneko ia 200 lagunek eman dute izena.


Gure Ametsa

Gatzetxea

Ezkontza berezia eta ahaztezina!




943 71 49 52 • Leintz Gatzaga • www.gureametsa.es



13. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA *egin klik!*

Irailaren 17ra arte bidal
ditzakezu zure argazkiak!



POZEZ SALTOKA ISLA SAONAN | Argazkia: Iñaki Zenitagoia



CHICAGON SALTOKA | Argazkia: Ane Azkarate Quintana



ZORIOEZ BETETAKO BIDAIA | Argazkia: Ignacio Bolivar Ripoll



ARABAKO SORGINETXE TRIKUHARRIA IZARREN AZPIAN | Argazkia: Xabi Urteaga



BI LEHENGUSU ERLAXATZEN AUSANGATEN | Argazkia: Maialen Martinez de Zuazo



BIZIKLETAK BETI IZAN DIRA UDAKOKO | Argazkia: Martin Uriarte



EGUNSENTIA PUNTA CANAN | Argazkia: Aimar Zenitagoia



NAFARROAKO ERREGE BARDEA | Argazkia: Andoni Etxezarreta Conde

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:



GURE AMETSA
JATETXEA





GARAZI, NEAK PEAN TENPLUAREN SARRERAN | Argazkia: Ibai Martin Fernandez de Luco



ARRANTZALEAK SAREA JASOTZEN PRAIA DO FONTE DO TELHAN | Argazkia: Iban Garai Alonso



ARGAZKILARIAK | Argazkia: Maitane Gomez de Segura



OLATUAK NOIZ ETORRIKO ZAIN | Argazkia: Idoia Lete



HOSSEGORKO ZUBITIK EGUNEKO AZKEN JAUZIA | Argazkia: Arnaitz Eraso



PRESOEN ZAPATAK PENITXEKO KARTZELAN | Argazkia: Andoni Garai Larrea



BA... EZ DA USAINTZEN | Argazkia: Ricardo Santa Cristina



PI-LEH URMAELA | Argazkia: Garazi Romero

Sariak

LEHEN SARIA: LENOVO TAB 2 A10-30 tableta

GOIENA SARIA*: Bi pertsonarendako bazkaria edo afaria Gure Ametsa jatetxean.

* Eraman GOIENA edo *Puntua* oporretara, eta argazki originalenak, kuriosoenak, graziosoenak saria izango du. Animatu eta bidali zuen argazkia!

PUBLIKOAREN SARIA: Zumaiako Zelai Talasoterapian bi pertsonarendako zirkuitu termala + Zelai menua

PARTE-HARTZE SARIA: Intersport Loramendin erabiltzeko 100 euroko erosketa-txartela.

(Publikoaren Saria aukeratzeko parte hartzen dutenen artean zozketatuko dugu)



Egin klik eta bidali **poltsikoko telefonoarekin, argazki kamerarekin edo tabletarekin ateratako udako argazkiak!**

Posta elektronikoz (argazkiak@goiena.eus) edo Whatsapp/Telegram bidez (688 69 00 07) bidal ditzakezu argazkiak!



Argazki guztiak foto-blog honetan: blogak.goiena.eus/argazkiak



Gipuzkoa GBC eta Baskokia, duela hiru urte Eskoriatzan. Hurrengo urtean Labegaraietan izan ziren bi taldeak. IMANOL SORIANO

Gaur, ACBra itzuli den Gipuzkoa Basket lehia

SASKIBALOIA Gaur, egubakoitza, maila goreneko saskibaloia itzuliko da Bergarara (19:00, Labegaraieta) Gipuzkoa Basket eta Argentinako Obras Basket taldeen arteko lagunarteko partidurekin. Bi urte pasa dira donostiarrak Bergaran egon zirenetik

Xabier Urzelai BERGARA

Denboraldi-aurrea une egokia da Gipuzkoako saskibaloia talde nagusia Debagoienara gonbidatzeko. Eta BKEko ordezkariak ez dute aukera hori alferrik galdu. Hala, gaur, 19:00etan hasita, Labegaraietako harmailak saskibaloia zaleekin (5 euro) bete-ko dira, ACBra itzuli den talde

gipuzkoarra bertatik bertara ikusteko. Porfi Fisac-en taldeak zortzi lagunarteko jokatu-ko ditu liga hasi aurretik –irailaren 30eko asteburuan–, eta horietako bat da gaurkoa.

Talde gipuzkoarra indartzeko hainbat fitxaketa egin dituzte, eta gehienak Bergaran izango dira gaur. Azken fitxaketa

Michael Fakuade izan da (Chicago, 1989), eta amerikarrarekin batera, zaleak, besteak beste, Jordan Swing, Daniel Clark eta Miquel Salvo moduko jokalariekin gozaten hasteko gogoz daude. Oraingoan, gipuzkoarrek Euskal Kopako partidurekin hasi dute denboraldia; 83-81 galdu zuten Bilbao Basketen kontra.

Emakumeen Euskal Liga eta Ohorezko Erregionala, martxan

FUTBOLA Aretxabaletak, Bergarak eta Mondrak etxean jokatu dute eta Leintz Arizmendik, kanpoan

Mireia Bikuña DEBAGOIENA

Erregularitasuna neurtzen duen txapelketa hastear da maila bazueta. Gizonezkoen Ohorezko Erregionala eta emakumezkoen Euskal Liga aste bukaeran hasiko dira.

Bergarak, Aretxabaletak eta Mondrak etxean hasiko dituzte euren bideak. Denboraldi-aurreetan egindako lana erakusteko ordua da, eta, gainera, zaleen aurrean.

Bergararrek Urola hartuko dute Agorrosinen (zapatua, 17:30). Mikel Juaristiren taldearen hel-



Leintz Arizmendi. RAMON AZKARATE

burua mailara ahalik eta azkarraren ohitu eta iazko dinamika mantentzea da.

Domekan, ordu berean jokatu dute UDak eta Mondrak: 16:30ean. Hurrenez hurren, Hernaniren eta Añorgaren kontra. Iaz bi taldeek egindako txapelketak erreferentzia moduan hartuta hasiko dute liga. Aretxabaletarrek goiko lekuetan egon gura dute hasieratik. Arrasatearrek ere iazko bidea jarraitu gura dute, baina kontziente dira urte zaila izango dela.

Emakumeak

Leintz Arizmendik, etxetik kanpo, Rezola futbol zelaian hasiko du Euskal Liga, Añorgaren kontra (zapatua, 18:15). Arrasateko eta Aretxabaletako jokalariek bateratzen dituen taldeak "gogotsu" ekingo dio txapelketari.

"Halako partiduak ondo datoz gazteei zaletasuna areagotzeko"

MARIAN MELLADO BKE-KO SASKIBALOI SAILEKO ARDURADUNA

Gipuzkoa Basket taldeko arduradunak BKEko ordezkariekin harremanetan jarri zirenean egubakoitzeko lagunarteko proposatzeko, mahonerok ez zuten zalantzarik izan.

Gipuzkoa Basket eta Baskonia azkeneko Labegaraietan egon zirenean (2015) giro ederra egon zen harmailetan.

Bai, eta egubakoitzean gauza bera errepikatzea espero dugu. Halako partiduak ondo datoz herritarren artean saskibaloiarekiko zaletasuna areagotzeko, eta, batez ere, gazteendako da polita. Orduan, oso gustura geratu ginen lagunartekoak eman zuenarekin. **Argentinako talde bat izango da bisitari.**



GOIENA

Ez dut uste inoiz egon denik Argentinako talde bat gurean jokatzeko, esango nuke lehenengo aldia izango dela. Madrilen daude egunotan, denboraldi-aurre moduko bat egiten dabilta eurak ere, eta hainbat partidu hitzartu dituzte aste hauetarako. Horietako bat da egubakoitzean Bergaran jokatu dutea; ea zer-nolako

ikusizuna ikusten dugun.

Partidurako sarrerak salgai daude dagoeneko.

Bai; partidu aurreko egunetan Pol-Polen, Deporren, Ganbaran eta Labegaraietako kiroldegian jarri ditugu salgai, eta partiduren aurretik Labegaraietako atean ere egongo da sarrerak erosteko aukera, bost eurotan.

Lagunartekoa alde batera utzita, ze itxura hartzen dio BKEk aurtengo denboraldiari?

Itxura polita du, bagoaz aurrera poliki-poliki. Gaztetxoak Eskola Kirolean hasita daude, eta aurten talde bat gehiago izango dugu klubean, zortzi talde izango ditugu guztira. Gainera, denboraldia behar den moduan hasteko, aurki egingo dugu talde guztien aurkezpena, San Martin plazan.

ESKALADA Bailerako eskalada eskolaren ikasturtea, hastear

Arrasateko eta Aretxabaletako kiroldegietako rokodromoetan egingo dituzte 2017-18 ikasturteko eskalada ikastaroak. Bai Arrasaten eta baita Aretxabaletan ere, lau eguneko ikastaroak emango dituzte irailean. Hain justu ere, irailaren 11n, 13an, 18an eta 20an Arrasateko Uarkape rokodromoan eta 12an, 14an, 19an eta 21ean Ibarra kiroldegian. 18:00etatik 19:00etara emango dituzte eskolak. Intereza dutenek egun horietan joango behar dute ikastarora, eta bertan izena eman.

Parte-hartzaileek duten mailaren arabera taldeak osatuko dituzte, eta eskaladaren atal guztiak landu.

LASTERKETAK Zabalik dago Arrasate-Oñati egiteko izen-ematea

Urriaren 14an egingo dute korrikako eta patinetako lasterketak, Antxintxiketan elkartearren eskutik. Batean zein bestean parte hartzeko izen-ematea zabalik dago, *Herrikrosa.com* atarian. Inskripzio orria bete behar-ko da.

34. aldiz egingo dute Arrasate eta Oñati arteko lasterketa herrikoia. Aurten ere, bi modalitate egongo dira: korrika edo patinetan egin daiteke. Biek ala biek ibilbide berbera izango dute. Guztira, hamabi kilometro izango dira. Horietako gehienak Arrasate eta Oñati artean dagoen bidegorritik egingo dituzte. Helmuga Oñatiko Foruen plazan egongo da.



Auto bat, iazko igoeran, zaleen begiradapean. IMANOL SORIANO

40 bat pilotu espero dituzte Udalako igoeran

AUTO IGOERAK Bigarrenegoz egingo du A+GAS taldeak lasterketa, hainbat aldaketarekin; besteak beste, bost txanda beharrean lau egingo dituzte, eta proba 14:00etan hasiko da. Sarrerak zortzi eurotan eros daitezke irteera puntuan

Mireia Bikuña ARRASATE

Bigarrenegoz egingo dute, bihar, zapatua, Udalako Auto Igoera. A+GAS taldeak guztia prest dauka 14:00etan lasterketari irteera emateko. Azken ordura arte zenbat pilotu egongo diren jakingo ez duten arren, 40 bat izatea espero dute. Lerro hauek ixteko orduan, 32 ziren izena emanda zutenak.

Lau txanda

Iaz ez bezala –iaz azkenaurreko proba izan zen–, biharkoa erabakigarria izan daiteke Euskadiko txapelketarako. Hori horrela, antolatzaileak pozik daude, probak izan dezakeen maila eta lehiakortasuna handiak izan daitezkeelako.

Ikuskizunean lagunduko du, zalantza barik, lasterketak izango dituen aldaketak. Bereziki, txanda gutxiago izateak. Iaz, bost egin zituzten. Aurten, lau. Hori horrela, gidariek gehiago zaindu beharko dute egiten duten denbora eta lana. Lasterke-

ta laburragoa eta ikusgarriagoa izango da, gainera.

Oinez joatea eskatu dute

Eta ordurako zale asko espero dituzte antolatzaileek. Segurtasuna bermatuta dagoen lekuetan ipintzea eskatu dute, eta Udalara oinez joatea. "Zaleen autoak aparkatzeko leku txikia dago. Iaz, arazo handia izan zen gurtzat. Hortaz, ahal den neurrian, oinez igotzea eskatu behar diegu zaleei, ahalik eta enbarazu txikiena egite aldera", esan dute.

Federazioak sarreraren prezioa hamar eurokoa izatea aholkatzen badu ere, Udalakoa zortzi euro ordaindu beharko da. Lasterketa 14:00etan hasiko da, iazko leku berean.

UDALAN APARKATZEKO LEKU TXIKIA DAGOENEZ, OINEZ JOATEA ESKATU DIETE ZALEEI

Aramaiokoa, hilaren 16an

Euskadiko Automobilismo Federazioak zehazten duenaren arabera, Udalakoaren ostean, Aramaioko XVI. rallyesprintaren txanda izango da: irailaren 16an jokatu da, 15:00etan.

Hori ere puntuagarria izango da Euskadiko Txapelketarako. Hortaz, lehia estua duten gidari guztiak espero dituzte Aramaion.

Azpiko Racing taldeak antolatzen duen probako izen-ematea irailaren 8an itxiko da. 12an aurkeztuko dute gidarien zerrenda, eta lasterketa egunean bertan egingo dituzte autoen egiaztapenak.



Limousin Cartonajes taldeko Unai Iribar helmugan sartzen, iaz. IMANOL SORIANO

Udazkeneko Criteriumeko lehen etapa izango da Oñatikoa

TXIRRINDULARITZA Gazte mailako lasterketa 59. San Migel saria ere izango da eta 10:00etan hasiko da

M.B. OÑATI

Gazte mailako Udazkeneko Criteriumak eta 59. San Migel sariak bat egingo dute bihar, zapatua, Oñatin, 10:00etan. Proba bakarra izango da, baina sari bikoitza duena: lasterketa bera irabazi eta Criteriumeko lider izan, hain zuzen. Izan ere, Oñatikoaren ostean, beste bi etapa jokatuko dituzte domekan, Liernian. Errepidean bata eta erlojuaren kontra bestea.

Udana eta Atagoiti

Horrengatik guztiagatik lehian 100 bat txirrindulari espero di-

tuzte. Tartean egongo dira Ulma taldeko ordezkariak.

81 kilometroko ibilbidea egingo dute. Tartean Udana eta Atagoiti igota. Azken hori, bi alditan. Helmugatik gertu –bi kilometrorra–, Santipillauko aldapa izan daiteke erabakigarria.

Oñatitik irteera, Bergara aldera egingo dute lehenengo. Handik Oñatira buelta, eta Udana igoko dute. Motxorrotik Atagoiti igo eta handik Ormaizteira jaitsita, berriro Atagoiti igo eta Oñatira jaitsiko dira. Azken indarrak Zañartun erreko dituzte.

Mendiko bizikletan kilometroak egiteko aukera zabala bailaran

MENDIKO BIZIKLETA Oñatin, Leintz Gatzagan eta Bergaran egingo dituzte probak, zapatuan eta domekan

M.B. DEBAGOIENA

Iraila mendiko bizikletaren hila betea da bailaran. Bihartik hasita, aste bukaera guztietan dago irteeraren bat.

Lehena Oñatikoa izango da: bihar, zapatua, 09:00etan irtenegoa dira Arantzazuko auzo-etxetik. Han hasiko dute ibilaldia, baina haraino bizikletan igogura dutenei deialdia egin diete, Foruen plazan. 08:00etan abiatuko dira Arantzazu aldera.

Indarra dutenek beste bi mar-txa dituzte aukeran, domekan, Bergaran eta Leintz Gatzagan.

Biak ala biak 09:00etan hasiko dira.

Leintz Gatzagako martxak 27 kilometro izango ditu, 1.200 metroko desnibelarekin. Ibilbide tekniko da, bidezidor gehiago dituena. Parte-hartzaileek proba hasi aurretik eman beharko dute izena, irteeran bertan. 10:00etan, umeendako lasterketa egongo da.

Bergarako Palmerakuak taldeko lagunak Trekutz aldera joango dira. Bi ibilbide dituzte aukeran: 40 kilometrokoa bata eta 26koa bestea.

"Aurretik idatzitako lau poema bidali nituen"

MARIA OSES IDAZLEA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak antolatzen duen 'Urruzunotarrak gehituz' literatura lehiaketan, poesia sailean saritu dute Arrasatekoa

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE

Idazteko lehiaketetan eskarmen-tua du Maria Osesek (Arrasate, 2000), eta astelehenean jaso zuen azkeneko saria, *Urruzunotarrak gehituz* lehiaketan. Opari, beste hamabost sarituekin Elgoibarko Aubixa aterpetxera joan zen egunean bertan. Gaur, egubakoitza, itzuliko dira etxera.

Zorionak!

Eskerrik asko! Oso pozik nago; egia esan, irabazteko esperantza handirik gabe aurkeztu nintzen. Askok poztu ninduen irabazle izan nintzela jakiteak.

Saria gozaten ari zara?

Denetik ari gara egiten. Astelehenean etorri eta gaur bitartean, askotariko tailerrak egin ditugu. Lehenengo egunean, idazmen tailerrak eta gauean testuen errezitaldia. Hurrengoan, Yolanda Arrietaren idazmena lantzeko tailerrak izan genituen. Eguaztenean, berriz, Gotzon Barandiaranekin eta Rafa Ruedarekin euskal olerkigintzaren eta kantagintzaren arteko loturari buruzko hitzaldia jaso genuen eta arratsaldean, Mundakara joan ginen Edorta Jimenezekin itsasontzian ibiltzera...

Poesia atalean oraingoan, eta izenburua, bitxia: Gorroto nuen poesia.

Prosa idazteko beranduegi harrrapatu ninduen eta, aurrez



Maria Oses –erdian– astelehenean saria hartzen. EUSKO JAURLARITZA

idatzita nituen lau poesia bilduma batean batu, eta horixe aurkeztu nuen. Izenburua txikia nintzenean poesia gorroto nuela eta jarri nion, orain gustuko dudana arren; bitxia iruditu zait beti.

Zer kontatzen duzu?

Lau poesiako bilduma da; poesia indibidualak dira, lau gai independente: lehenengoak, hiriaren frenesitik ihes egitea; bigarrenak, denboraren joana; hirugarrenak, bakardadea edo hustasuna; eta laugarrenak, galdutako maitasun batek era-

gindako inpotentzia. Modu baten esanda. Kar-kar-kar.

Zerk bultzatuta aurkeztu zinen?

Aitak proposatu zidan; aurrez idatzitako poesiak begiratu nituen, eta lau horiek bidali nituen gero, baina, egia esan, ez naiz gogoratzen noiz.

Hala ere, ez da idazteagatik jaso duzun lehenengo saria.

Ez, jaso ditut beste batzuk aurretik, bai: AEDren literatura saria hiruzpalau aldiz, Ramon Rubial saria bost aldiz eta Bergarako Jardunen amodiozko gutuneko saria, ia.

Bilboko Pomeray taldearentzako 'Osintxun Musikara!' sari nagusia

Lizarrako Bolbora taldeak bigarren saria eta ikusleen saria eskuratu zituen egubakoitzean jokaturako finalean

A. A BERGARA

Egubakoitzean, jaietan, jokatu zuten musika lehiaketako finala, eta Pomeray, Bolbora eta Red Iron taldeak izan ziren agertokian. Bigarren edizio horretan, Euskal Herriko toki askotako 21 taldek eman zuten izena –iaz baino talde gehiago–. Hautaketa egiteko, lau irizpide hartu zituzten kontuan: abestien konposizioa, emanaldiaren beraren joaldia, ahotsa eta instrumentala.

Antolatzailak gustura dira emaitzarekin: "Antolakuntza aldetik dena ezin hobeto aterazten. Ohiko atzerapenak kontuan hartuta, taldeen arteko koordinazioak ondo funtzionatu zuten. Ikusleen erantzuna ere ona izan zen, espero baino jende gutxiago etorri arren, baina kontuan hartzekoa da ekitaldi asko zuzeldela inguruko herrietan ere", dio Ruben Gaunak.

Sariak, Bilbora eta Lizarrara

Gauna konforme da taldeek finalean eman zuten mailarekin. "Bilboko Pomerayk eraman zituen 500 euroak, estilo oso indartsua eta zuzena dute, eta indie estiloko pop-rockean koka genitzake. Lizarrako Bolbora taldearentzako izan ziren, ska-reggae estilo alaiarekin, bigarren saria –200 euro– eta ikusleen saria –Arrasateko Danatec musika dendan gastatzeko 300 euroko txartela–. Red Iron Squad ere, finaleko hirugarren taldea, oso ona da, baina egubakoitza ez zen euren egunik onena izan. Ikusiko dugu aurrerantzean lehiaketak hartuko duen norabidea; oraingoz, parte hartu duten taldeei, diruz lagundu ditugutenei eta bereziki Iker Barandiarani eskerririk asko emandako aholkuengatik eta laguntza-rengatik".

Ugandako umezurztegi baten aldeko kontzertua

Musica Para Salvar Vidas gobernuz kanpoko erakundearen eskutik, Ugandako Aba Taano boskoteak emanaldia egingo du astelehenean, irailaren 11n, Arrasateko San Juan Batailatzailearen parrokiaren parrokian, 20:00etan.

Eskarmentu handia duen taldea da; Europako herrialde askotan birak egin ditu, eta nazioarteko sei sari irabazi. "Afri-

kako gospela eskainiko dute, *a capella*. Kantu tribalekin dago osatuta euren erreperitorioa, eta, besteak beste, luganda, swahili, ancore eta lingala hizkuntzetan abesten dute. Orain dela hamai-k urte sortu genuen Ugandako gazteen aldeko proiektuaren alde abestuko dute; proiektu horren bitartez abiatu zen Aba Taano taldea. Emanaldia dohainik izango da, baina diruz laguntzeko aukera izango dute bertaratzen direnek", azaldu dute GKEko ordezkariak.

'YIHADISMOA, ERREFUXIATUEN KRISIA... ZER DAGO ATZEAN?'

GOIENA TELEBISTA, ELKARRIZKETA

IRAILAK 13, EGUAZTENA, 21:00

ANE IRAZABAL KAZETARI ARRASATEARRAREKIN ELKARRIZKETA

goiena
ZU HEMEN ZAUDE



Iker Martinezen musika zuzenean gozagarri

Aramaioko Eki tabernan egingo du domekan emanaldia, 18:30ean, eta Jabi Zola aspaldiko laguna izango du telonero; irailaren 22an, berriz, Oñatiko gaztelekuan abestuko du, eta horretan, Ruper Ordorikaren aurretik izango da Martinez jotzen

Aitziber Aranburuzabala ARAMAIO

Talde askorekin ibili ondoren, maiatzean kaleratu zuen Iker Martinez oñatiarrak *Itzalen mundua* bakarkako lehen lana, eta harrezkero gustura ari da zuzenean aurkezten. "Pozik nago. Beldurra nion bakarka aritzea-ri eta biluztasun horri, baina hasieratik komodo sentitu naiz; nahiko kontziente naiz naizenaz eta eman ahal dudana, ez dut espektatiba izugarririk; niretako, ikasteko garaia da, orain... Poliki-poliki gero eta kontzertu hobeak egitea da nire erronka. Abestea asko maite dut, horretaz ere konturatu naiz, eta maite dut, baita ere, aurrean dandenei nire historiakoak kontatzea", azaldu du Martinezek.

Hiru kontzertu egin ditu dagoeneko: Oñatin, Antzuolan eta Aretxabaletan. "Lehenengoa ekainean, herriko Ona taberna aurrean izan zen, jende gehien egon dena, baina publikoa urrutien sentitu nuena ere bai. Hurrengoak askoz gertukoagoak izan dira, jende gutxiagorekin aurrean, baina arreta jartzeko zegoen jendearekin".

Diskoa oraindik ere eskuragarri

Goiena Klubeko bazkideek etxean jaso zuten *Itzalen mundua* lana, baina, oraindik ere, hainbat



Iker Martinez, ekainean Oñatiko Ona tabernan egin zuen kontzertuan. MIKEL AGIRRE

tokitan eskura daiteke: Oñatiko Ona eta Boga tabernetan eta Elkar dendetan. "Orokorrean, uste dut gustatu dela diskoa, nahiko jendek geratu nau kalean, ezezagunek ere bai, zoriontzeko".

Lagunak lagunak telonero

Domekako emanaldia berezia izango dela dio: "Jabi Zola lehenengo aldiz izango da taularen gainean eta nire aurretik. Lagun-aguna dut eta historia polita du atzean, bizitza guztian barruan izan eta orain ia 40 urterekin musikan eta sorkun-

tzan barneratu da, eta asko gustatzen zait nola bizi duen eta nola egiten duen".

Irailaren 22an berriz ere herrian jotzeko aukera izango du Martinezek, oraingoan, Udalaren eskutik, Oñatiko gaztelekuan. "Ikusi egin behar nola aterako den hori ere. Berezia izango da, bai edo bai, nirekin grabatu zuten musikari gehienak han izango direla esan didate-eta, ez taularen gainean, ikusle edo entzule moduan baizik. Ea lortzen dudan jendearenganaino iristea, hori da nire erronka!".

Marijose Azurmendi eta Itsaso Olaizola ama-alabak 'EKT' saioan

